

# Zu hemen zaude. goiena

## JOKOA HASTEKO GERTU

Realeko entrenatzaile berriarekin egon da GOIENA / 38







Asier Garitano –Real Sociedadeko entrenatzailea– eta Jokin Etzaniz –Aspe pilota enpresako kirol zuzendaria–, Angiozarko elizpean, pilotan, txikitako sasoiak oroitzen. XABIER URZELAI

**2.300 neska-mutikok jolasean emango dituzte uztaileko goizak udaleku irekietan** / 2

**Monterron parkea herrira irekitzeko 11 proposamenak ikusgai daude Kulturaten** / 10

**Novedades aretotik eroandako aulkiekin zinema-gela egokitu dute Bergarako kartzela zaharrean** / 34

### SINADURAK

 OIHAN VITORIA / 6	 PEDRO GARITANO / 31
 MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 14	 JOSU ZUBIA / 37
 LEIRE ELEJALDE / 15	 MIKEL IRIZAR / 48



**50 auto-pilotu nor baino nor gehiago zapatuan, Gatzagako Igoeran, lau txandatan** / 39

**puntua**  
Debagoiendarren bizipenak Iruñeko sanferminetan  
Joseba Intxausti idazlea, Frantzisko Asiskoaz berbetan



**MERKE ALDIA**  
gama altuko  
2 mō betaurreko progresibo  
**199€**  
lehenago prezioa: 229€

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria  
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Koerlutaratza izateko zure optikan kanpalmarek estagarriak.  
Eztingo eta beste eskaintza batzuetan erabil.

Gure betaurreko guztiak  
2018 bildumakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehenago zerbitzu optikoetan



Eskoriatzako udaleku irekietan parte hartzen ari diren umeak. IMANOL BELOKI

## 2.300 ume baino gehiago udaleku irekietan

Udarekin batera, heldu da Debagoienera udaleku irekien eskaintza. Hain zuzen ere, bailarako herri guztietako ehunka eta ehunka neska-mutiko, begiraleen zaintzapean, askotariko jolas eta ekintzetan murgilduta egongo dira uztailean zehar

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Udako lehenengo asteetan murgilduta, Debagoieneko herrietan udaleku irekien eskaintza mar-txan jarri dute dagoeneko.

Arrasaten, esaterako, Txatxilipurdik antolatzen dituen udaleku irekietan, 280 ume parte hartzen ari dira egunotan. Astelehenean hasi eta uztailearen 20ra arte udalekuez gozatu ahal izango dute gazteek. Udaleku irekiak 30. urtez jarraian antolatu dituzte Arrasaten.

Bergaran, aurten, 508 umek eman dute izena udaleku irekietan. Pasa den astelehenean, uztaileak 2, hasi eta hilaren 27ra arte iraungo dute udalekuetakoko ekintzek.

Oñatin 580 umek eman dute izena aurten, eta, astelehenean hasiera eman ostean, uztailearen 27ra bitartean ibiliko dira 3 eta 12 urteko haurrak. Udalak eta Txaloka ludotekak antolatu dituzte udalekuak, elkarlanean, beste behin.

Aretxabaletan, bestalde, 338 neska-mutiko elkartuko dira aurten. Guztira, 37 begirale eta bi koordinatzaile izango dituzte 3 eta 12 urte arteko gazteek guztia bideratzen. Taldeetan banatuta, ekintza ugari egingo dituzte hurrek, uztailearen 20ra arte. Gainera, Ibarra kiroldegian egingo dituzten kirol-udalekue-tan 23 umek eman dute izena aurten.

Eskoriatzan, 3-12 urte bitarteko 240 haur dabilta udaleku irekietan. Martitzenean hasi zituzten eta uztailearen 20ra arte iraungo dute.

Antzuolan ere, astelehenean abiatu zituzten udaleku irekiak, eta, uztailearen 12ra arte, jolaste-ko eta ondo pasatzeko aukera izango dute izena eman duten 195 umeek.

Elgetan 80 neska-mutiko pasako dira udaleku irekietatik. Ekainaren 25ean hasi zituzten eta uztailearen 27ra bitartean izango da 2006 eta 2015 urteen artean jaiotako neska-mutikoen-dako eskaintza.

Aramaion ere Udalak antolatu ditu udaleku irekiak. 12 urtez

### Udaleku irekiak

Herria	Neska-mutikoak
Antzuola	195
Aramaio	100
Aretxabaleta	338
Arrasate	280
Bergara	508
Elgeta	80
Eskoriatza	240
Leintz Gatzaga	12
Oñati	580
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.333</b>

azpikoek uztailearen 20ra arte izango dute dibertitzeko aukera, eta, 12 eta 16 urte artekoentzat, uztailearen 4an, 5ean, 16an, 17an eta 18an ekintzak antolatu dituzte. Guztira, 100 gaztek eman dute izena.

Leintz Gatzagan, 12 umek parte hartuko dute udaleku irekietan, bi begiraleen zaintzapean. Uztailearen 9tik 20ra izango dira.

#### Kirola egiteko aukera

Era berean, kirol campusak ere heldu dira. Bergara Kirol Elkar-teak 130 gazterendako jardunaldiak egin zituen Ander Capa jokalariairengandik gertatzen eta Mondrak aste honetan abiatu du campusa, 44 umekin. Saskibaloari dagokionez, Ointxe! taldeak ere antolatu zuen campusa pasaden aste bukaerarako. Aurrera begira, *Geroa sortuz* udako futbol campusaren 8. aldia antolatu du UDAn. Datorren astean egingo dituzte saioak, eta 61 umek parte hartuko dute Aretxabaletan.

Uztaileko lehen hiru asteetarako, gainera, Mondratek campusa antolatu du. Aretoko futbolaren inguruan 92 neska-mutiko ibiliko dira aurten.

## Lehenengo aldiz banatu dute 'Denon artean' saria

Arizmendiarrietari, 'in memorian' eman diote *Denon artean* euskal kooperatibismoaren saria

**J.B.** DEBAGOIENA

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak lehenengo *Denon artean* saria banatu zuten atzo, 96. Kooperatibismoaren Munduko Egunean, Kursaal jauregian. Euskal Kooperatibismoaren saria da, hain zuzen, eta aurrenekoa, *in memorian*, Jose Maria Arizmendiarrietari eman diote:

"Mondragon esperientzia kooperatiboaren buru izan zen, eta izen horrekin ezaguna den ekimena iragan mendeko 60ko hamarkadan sortu, eta, 60 urte geroago, mundu osoan parekorik ez duen errealitate ekonomiko eta sozial indartsu bat da. Alderdi sozialari begiratuta, printzipio eta balio kooperatiboak oinarri hartuta lortu dela nabarmendu behar da, non elkartasuna, interkooperazioa eta demokrazia diren Arizmendiarrietak sustatutako Mondragon ereduaren funtsezko hiru ardatz nagusiak".

Ekitaldian, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko presidente Javier Goienetxeak eta Konfekoop-eko presidente Rosa Lavinek parte hartu zuten.



**ALKIDEBA**  
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

**DENDA BERRIA SORALUZEN**  
Lorezaintza eta garbiketarako makineria txikia eta askoz ere gehiago

administracion@alkideba.net

**MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO**






Máizaga - Soraluze errepidea.  
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioia  
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

# Plastikoaren arazoari aurre egiteko urratsa

Plastikozko poltsen erabilera murrizteko ahaleaginean, horiek kobratzen hasi dira asteon ibarreko komertzioak. 2020an, ostera, plastikozko poltsak debekatzea aurreikusten du Europako Batasunak. Oro har, "harrera ona" izan du erabakiak

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Uztailaren 1ean jarri zuten martxan arau berria: Espainiako Estatuko salmenta guneak hasiak dira plastikozko poltsak kobratzen. Hain zuzen ere, poltsaren arabera prezioak finkatu dituzte dendariak –legeak hala zehaztuta–; poltsa normalak, lodixegoak eta material konpostagarriez egindakoak bereizten ditu neurriak. Eta, 5 eta 15 zentimo arteko prezioa dute horiek. Hala, zorroen erabilera murriztu gura dute erakundeek.

Era berean, legeak finkatua du salbuespenik. Alegia, ez da ezer ordaindu beharrik izango "zorro oso arinengatik"; hain



Txantxiku Elektrizitatean, eguaztenean, iragarpen kartela atzean dagoela IKER OÑATE

justu, frutendako, barazkiendako eta halakoendako erabiltzen dira horrelakoak.

**Dendariak, "harrera ona"**

Besteak beste, neurria martxan jarri aurretik, zenbait denda hasiak ziren plastikozko poltsak kobratzen. Eta hasi berriek, oro har, harrera ona egin diote aldaketari. "Neurri positiboa da. Baliagarria baita jendea plastikoen erabilera murriztu beharraz kontzientzia dadin. Ingurumena zaintzeko beharraz jabe gaitezke horrela. Hori bai, esan beharra dago, gaur-gaurkoz, nahiko kontzientziatua direla herritarrak", azaldu du Julen Uribeberriak, Oñatiko Txantxiku Elektrizitatea dendakoak.

Hori horrela, egoera berrira egokitu beharra besterik ez dute izan. Orain artean, "normaltasun osoz" dihardute. "Jendeak normalizat hartu du aldaketa. Denda batzuk jada kobratzen hasiak zirelako izan daiteke hori. Azkenaldian, gero eta jende gehiago zetorren telazko poltsarekin", dio Arantxa Aranzabalek, Arrasateko Resusta-Karrikiriko dendariak. Eta gaineratu du asteon

apenas banatu dutela plastikozko poltsarik. "Astelehenetik asteazkenera, plastikozko bi poltsa besterik ez genuen banatu. Eta jende gehiagok eroan du gure telazko poltsa", argitu du.

**Debekua, 2020rako**

Zehatz esanda, erakundeek Europako Batasunaren planteamenduaren baitan bultzatu dute neurri berria. Sortzen den plastiko kopurua murriztea da haren asmoa. Eta, horretan geratu barik, poltsak erabiltzeko debekua du aurreikusirik –2020. urtean jarriko luke indarrean horri dagokion neurria–. Hor, salbuespen lirarteke material konpostagarriez egindakoak.

Azken finean, azkenaldian, egoerarekin "kezkatuta" azaldu da Europako Batasuna. Eta, tartean, zorro horien erabilera inguruko datuak dakartza gogora –Europako Batzordeak egin zuen azterketa–: "Urtean, erabilera bakarreko ia 100.000 milioi plastikozko poltsa erabiltzen dira Europan; horien %7 berrerabiltzen dira soilik. Gainera, 8.000 inguruk bukatzen dute naturaguneetan".



» Oñati gestio heziketa

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

**75**

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

**Matrikula**

Uztailaren  
12-13-16-17-18

**Eskaintza akademikoa**

**OÑATI GESTIO HEZIKETA**

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

**MGEP**

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91 • 664 277 592



# Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak

**Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...**



**RENAULT**  
Passion for life

**AUTOBERRI S.L.**

San Andrés Auzoa, 5 Arrasate  
Tel.: 943 71 24 72 • www.autoberri.com  
E-maila: autoberri@red.renault.es

Renault Minutua: mantentze-lanak, pneumatikoak, ITV aurrekoa, eta abar.  
Mekanika, karrozeria, karrozeria azkarra.



**CITROËN**  
**ION AUTOAK**

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36

Bergara

Tel.: 943 76 47 49

automovilesion@hotmail.com



**BERGARA**  
PNEUMATIKOAK

- Pneumatikoak
- Olio aldaketak
- Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27

bergarapneumatikoak@gmail.com | www.bergarapneumatikoak.com



**DESA CRISTAL**

AUTOAREN KRISTALDEGIA  
•  
INPAKTUEN KONPONKETA  
•  
LAMINA SOLAR  
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA



Santelaitz, 6-5.  
Pab. - BERGARA  
ITVaren kalean  
Tel.: 943 76 36 09  
www.desacristal.com



Mekanika  
Elektrizitatea  
Mota guztietako pneumatikoak  
**NISSAN** Erakusketa eta salmenta:  
Amillaga 22, BERGARA • Tel.: 943 76 17 35

**Murillo Garajea**



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara  
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo



Debagoieneko  
**KIA ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA**  
30 urte baino gehiagoko esperientzia  
Chapimeren eskutik  
**ABUZTUAN ZABALIK!!!**

**Txapime Autoak**

San Andres Auzoa, 5 • Arrasate • Tel.: 943794522

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Salmenta eta salmenta osteko  
zerbitzu osoa



**GALLASTEGI MOTORSPORT**  
APR / VAGSPEED GIPUZKOA



Markulete Industrialdea  
Telleria 4, 5 pab. Arrasate  
943 79 73 58 / 670 79 73 58

Mekanika orokorra,  
Elektronikan adituak  
Diagnosi zerbitzuak  
Automozioiko aholkularitza.

reprogramazioko  
etxeen banatzaile  
ofiziala.



San Andres 10 D • Tf.: 943 77 30 10

Salmenta  
Mekanika  
Elektrizitatea  
Pneumatikoak

Eskaintza  
handiak Km 0 eta  
bigarren eskuko  
autoetan!

**GARAJE BERRIA**  
**MULTIMARKA**

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak  
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

fordberria@telefonica.net • www.garajeberria.com • garajeberria@gmail.com



**CITROËN**

Talleres Chapime, S.C.L.

Debagoieneko Kontzesionario Ofiziala

San Andres Auzoa 5 ARRASATE

www.tchapime.citroen.es

e-maila: chapime@chapime.redcitroen.com

Mekanika, karrozeria, pneumatikoak, garbiketan,  
beiron aldaketa eta tindaketa



**TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA**

Gesalibar auzoa 31  
Tel.: 943 79 99 61  
Faxa: 943 79 13 90



**ALMACENES LASCAR**

GASOIL BANAKETA  
OLIOAK (REPSOL)  
OLIO ALDAKETAK  
PNEUMATIKOAK ETA  
GARBIKETAK

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es  
Amillaga 32 • 943 76 10 36 / 943 76 19 11

# "Eredu bilaka gaitezke berrikuntza sozialean"

**ARITZ OTXANDIANO BAGARAKO KIDEA**

Gizartearen beharrak erdigunean eta lankidetzeta oinarri, Debagoieneko Berrikuntza Plataforma eraikitzen dihardute zenbaitek. Epe luzera begirako egitasmoa litzateke

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Ibarreko kooperatiben hausnarketa oinarri, berrikuntza sozialerako urratsak egiten hasiak dira Bagara eta Agirre Lehendakaria Center. Besteak beste, Debagoienak dituen erronkei erantzuteko bitarteko litzateke berrikuntza plataforma. Eta, herritarren kezak eta helburuak litzuzke erdigunean. Horixe bera ezagutarazi dute asteon Garaia Berrikuntza Gunean egindako jardunaldietan; nazioarteko esperientziak ezagutu dituzte bertarutakoek. Hori horrela, jardunaldiez, ibarreko berrikuntza plataformaz eta aurrera begirakoaz jardun du Aritz Otxandiano, Bagarako kidea.

**Berrikuntza soziala erdigunean, nazioartean hainbat ekinbide ezagutarazi dituzue asteon.**

Hala da. Ibarreko kooperatibok hausnarketa prozesua dugu martxan jarria. Besteak beste, Debagoienari ekarpen handiagoa egin guran gabiltza. Eta horretarako baliagarri liratekeen aukerak aztertu genituen. Ikusi genuen berrikuntza plataforma baliagarri dela horretarako. Beraz, horrekin dihardugu. Eta, horren barruan, oinarria eraikitzen hasi behar. Ba, nazioarteko esperientziak ezagutzea lagungarri da horretarako; horixe, asteko ekintzaren oinarria. Kasuistika ezberdinetako esperientziak ekarri genituen gurea –herrialde garatuak, garapen bidean daudenak...–, halako plataformek eginak dituzten ekarpenak ikusarazteko. Eta, noski, ikasteko ere balio izan zuten jardunaldiok. **Eta baliagarriak dira esperientziok?** Duda barik. Testuinguru ezberdinak ezagutu ditugu. Egoera ezberdinak. Baina esan beharrekoa da plataformak oinarri metodologiko jakin batzuk dituela, berdina, kasu guztietan: entzutearen garrantzia –komunitatearen parte hartzea dakar



Aritz Otxandiano, Garaia Berrikuntza Gunean. IKER OÑATE

## "ZENBAIT ERRONKEI ERAGILEON ARTEKO LANKIDETZAREKIN BESTERIK EZIN DAKIEKE AURRE EGIN"

horrek–, proiektu bakartuetatik plataformarako jauzia –nor bere kabuz ibili beharrean, egitasmo ezberdinak konektatuko lirateke– eta eragileen arteko harremana. Beraz, horiek erdigunean dituela egokituko da plataforma dagokion herrialdeko testuingurura.

**Oro har, gustura jardunaldiok eman dutenarekin?**

Bai. Batetik, pozik gaude parte hartzearekin: jende askok egin zuen bat hitzorduarekin –askotariko eragileak izan ziren jardunaldietan–. Eta horiek mundu mailako esperientzia interesgarriak izan zituzten ikasgai. Hala jardun zuten eurek ere, adi. Eta jardunaldi bukaerako mahai inguruak utzi zuen horren islarik. Parte hartzaile ezberdinen arteko elkarrizketa aberasgarria piztu zen. Hein batean, horixe bera bultzatuko luke

etorkizuneko berrikuntza plataformak.

**Nola gauzatzen da berrikuntza plataforma?**

Metodologia bat du oinarrian. Eta ez da urte bateko kontua; epe luzera begirako egitasmoa da. Hala, komunitatea entzuten hasi behar genuke, hortik, dimentsio ezberdineko egitasmoak sustatzeko: ekintza komunitarioak, jarduera ekonomikoari loturiko eskala txiki zein ertaineko ekimenak, erakunde publikoekin elkarlanean gara daitezkeen eskala handiko proiektuak eta politika publikoen berrikuntzara bideraturiko ekinbideak. Eragile ezberdinen eta ekintzaile sozialen arteko lankidetzeta lukete horiek oinarrian. Hori bai, lehen urtean, seguruenik, martxan diren egitasmoak konektatzea izango da erronka nagusia. Ostean sortuko dira ekinbide berriak.

**Jada hasia duzue prozesua. Noiz jarriko duzue martxan plataforma?** Gaur-gaurkoz, asmoak eragileekin elkarbanatzea dagokigu. Eta udako oporrak bitartean jarraituko dugu horretan. Behin hori eginda, aurreikuspenen arabera, irailean ekingo genioke meto-

dologiako lehen urratsari, entzuteari. Hori bai, esan moduan, epe luzeko ekimena da berrikuntza plataformarena. Bailara pixkanaka-pixkanaka joango da horren eraginak igartzen. Eta, asmoa da, urtetik urtera inpaktu handiagoa lortzea.

**Bailarako herritarrek ere nabariko du horren eragina, beraz.**

Noski. Komunitatea entzutea da berrikuntza plataformaren lehen urratsa, eragile eta norbanakoek kezak, nahiak eta pertzepzioak ezagutzea. Proiektuaren norabidea zehazten lagunduko luke horrek. Eta, nola ez, fase horretan jasotakoak eragina luke martxan diren egitasmoetan. Finean, herritarren kezak eta nahiak oinarri, ekinbide berriak sortzea da helburua.

**Eta Debagoiena prest dago halako plataforma bat hartzeko?**

Sekulako potentziala du Debagoienak, askotariko eragileak ditu, indar handikoak: unibertsitatea, enpresak, ikerketa zentroak, tokiko administrazio publikoak, askotariko gizarte eragileak... Gainera, oso errotua dago komunitatea lankidetzatik eta autoeraketatik eraikitzearen kultura. Finean, gizarteak berezko duen potentzial hori askatzea da kontua; eragile horien arteko konexioan sakontzeak lagun dezake horretan. Tartean, gurea moduko gizarte konplexuak dituen zenbait erronkei eragileen arteko lankidetzeta eraginkor batekin besterik ezin diezaiokegu aurre egin –klima aldaketa, gizartearen zahartzea, genero berdintasuna, hezkuntza ereduaren berrikuntza, gizarte kohesioa...–. Eta hori lortzera bidean dihardugu berrikuntza plataformarekin. Nire ustez, ba, uneotan ahulak diren konexio horiek indartzea eta lankidetzeta eraginkor baterako bitartekoak jartzea da egin dezakegun ekarpen handiena.

**Zer espero daiteke aurrera begira?**

Ba, atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu bailara erreferente izan dela gizarte eraldaketan. Jakin izan baitzuen garaiko erronka sozial potoloei erantzun berritzaile eta eraldatzailea ematen. Bada, bide horri eman gura diogu jarraipena berrikuntza plataformarekin. Asmatuz gero, ziur naiz eredu bilaka gaitezkeela nazioartean. Guztien arteko lankidetzan dago gakoa, beste barik. Horretan sakondu beharra dugu, beraz.

## Ibarreko langabezia tasak behera egin du ekainean

Oro har, langabeziak beherako joeran segitzen du Debagoienean. Horixe bera da azken hilabeteko datuek adierazten dutena: maiatz bukaeran %8,41 zen langabezia; ekaina bukatuta, %7,87an dago portzentajea. Puntu erdi baino gehixeago egin du behera, beraz. Eta, urteko bilakaera aztertuta, bestetik, gaur-gaurkoz, %8,5 jaitsia da langabezia.

Dena den, Debagoieneko herri guztietako datuek ez dute joera bera izan ekainean. Hau da, langabeziak gora egin du Antzuolan, Elgetan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aramaion. Behera, ostera, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

Zehatz esanda, Arrasate da langabe gehien dituen herria, %10,33ko langabezia tasarekin –1.078 pertsona–. Eta ostean dira Eskoriatza –%7,58–, Bergara –%7,33–, Elgeta –%7,28–, Aretxabaleta –%6,64–, Antzuola –%5,58–, Oñati –%5,41–, Leintz Gatzaga –%2,90– eta Aramaio –%1,72–.

## 'Busti zaitetz' kanpaina egingo dute domekan Arrasaten eta Oñatin

*Esklerosi anizkoitzagatik busti zaitetz* kanpaina egingo dute etzi, domeka, Arrasaten eta Oñatin. Hain zuzen ere, Esklerosi Anizkoitza Fundazioak antolatuta du ekimen solidario hori, Gipuzkoako Ademgi elkartearen laguntzarekin. Helburua da gizarte sentsibilizazioa eta, oro har, gaixotasun neurologikoak eragiten dituen arazoei buruzkoak azaltzea. Era berean, esklerosi anizkoitza eta bestelako gaixotasun neurologikoak dituztenendako zentroko jardunerako dirua lortu gura du Ademgik –2007an ireki zuen hori–.

Zehatz esanda, Arrasaten, 10:30etik 15:00etara bitartean egongo da ekintza solidarioan parte hartzeko aukera. Antolazaleek Musakola kiroldegira joan eta igeri egiteko –edo bustitzeko– dei egin diete herritarrei. Eta Oñatin, ostera, boluntarioak 11:00etatik 14:00etara egongo dira herriko plazan. Standa jarriko dute bertan.



ZABALIK

OIHAN VITORIA

## Urte(bete)

Urteak betetzea ez da denen gustuko. Haurtzaroan arrapaladan bete nahi izaten genituen, ahal bezain bizkor. Nerabezaroan, are azkarrago: 18 urteetara lehenbailehen iristea zen xedea. Adinean aurrera egin ahala, ikasketak edo lana salbu, independentzia eta erabateko autonomia lortzearen sinonimo bihurtzen dira urteak, nahiz eta baden salbuespenik. 40ak 30 berriak diren bitartean, adinekoentzat seinale txarra omen da urteak betetzea, zahartzarora gerturatzeko, bizitzaren pulsuari eustea nor bere buruarekin pozik egoteko arrazoi nahikoa ez balitz moduan.

Urteak betetzea egokitu zait asteen, eta urtebetetze zalea ez naizen arren, kandlei putz egin behar izan diet lankideen begiradapean. Eta onartu beharra dut bereziki poztu nautela urrun dauden zorion mezuek, egunero alboan ez ditudanen berri jasotzeak, sare sozialei esker –edo erruz– jasotako mezu *huts* batean bada ere.

### ONARTU BEHARRA DUT BEREZIKI POZTU NAUTELA URRUN DAUDENEN ZORION MEZUEK

Mezuak diot, deiak bakan batzuk baino ez direlako gaur-gaurkoz. "Eta eskerrak", pentsatzen dut sarri askotan. Garai batean, nerabezaroan, ziurrenik, biziki gorroto nuelako amona, aitona,

izeba, osaba, lehengusu, eta abarren deiak jasotzea, guzti-guztiei kontu bera errepikatzen. Gurasoek urteak betetzen zituen horri aldekarrez deitua erabakitzen zutenean ere, ihes egiten nuen oheko izara artera, lo plantak egitera edo ezkutatzera, besterik gabe. Nahiz eta behartuta bukatzen nuen sakontasunik gabeko solasaldietan itsatsita, tramite bat balira lez.

Gertuko babesa behar bezainbeste ez baloratzea leporatuko didate familien defendatzaile sutsuenek, eta ez zaie arrazoirik falta. Urteen poderioz konturatu bainaiz zein garrantzitsuak ziren deiak, taxuzko ezer esan gabe zenbat esaten genion elkarrari, zenbat eskertzen genuen familiakoek hitz goxoak entzunda oheratzea. Agurrak, isiluneak, etxeko telefono desagerezina senideen artean pasa bitarteko itxaronaldiak... Eskegi gabe utzi dut telefona hurrengo urtera arte.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Galtzerdiak

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/N5JBE  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Pasadizoa lehendik zen ezaguna.

Eric Olhatsek Realarentzat egiten zuen lan, iparraldean eta Frantzia talentu gazte bila.

Duela dozena bat urte Parisen lehiaketa bati begira zegoela, mutil txiki ezker batek eman zion atentzioa.

Montpellierrekin jokatu zuen.

Detale nîmiño batek sortu zion esperantza.

Mutiko hark ez zeramatzen taldekideen galtzerdi berdinak.

Desberdinekin ari zen. Pentsatu zuen Montpellier taldeak fitxatu gabe zeukala artean, proban zeukatela.

Jakin ahal izan zuen mutikoaren izena, baina ez helbide eta gainerakorik. Zubietara etortzera gonbidatu nahi zuen eta ezin zuen aukerarik galdu.

Lehiaketa amaitu eta sari-emate unea baliatuz hurbildu zen mutikoarengana, eta hitz batzuk luzatu ondoren, txarteltxo bat sartu zion sakelari.

Honela zioen: "Etxera iristean irakurri eta hitz egin zure aitarekin".

Nik ezagutu dudak arte, haurrak artean izar ez diren adin tarte horretan, futbolera bezala, piano eskolara, hara eta hona autoz ibiltzen dituztenak amak gehiago izaten dira aitak baino.

Edo paretsu gutxienez.

Baina aitarekin hitz egiteko eskatu zion, ez gurasoekin edo amarekin.

Antoine Griezmann da mutiko hura.

Urtean milioiak irabazten ditu.

Eta bere fitxaketak eta diru-sarrerak negoziatzen dituen... bere arreba da.

Post gehiago 8. orrialdean.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Ona izateko, esperientzia behar du artzain-txakurrak"

OSKAR MURGIA ARTZAIN-TXAKURREN HEZIKETAN ADITUA

Jone Olabarria OÑATI

Oñatiko Larraña auzoak euskal artzain-txakurrak hezteko ikastaroa hartu du. Bertako arrazako artzain-txakurra ardi-lanetan irakatsi nahi duten zazpi lagunek hartu dute parte, Oskar Murgiarekin. Artzain-txakurretan aditua den murgiar horren lana gertutik ezagutu nahi izan du GOIENAK.

**Zein prozesu jarraitu behar da artzain-txakur baten heziketan?**

Kontuan izan behar da txakur hori hautatu badugu, jada dohain batzuk dituelako dela. Hortaz, egin behar den lehen gauza ezaugarri horiek indartzea da. Gero, une jakin bakoitzean zein ezaugarri eta horiek nola erabili ikasi beharko du. Behartuak diren jarrerak, txakurrari berez irtengo ez zaizkionak, dira gehien landu beharrekoak. **Zeintzuk dira artzaintzarako arraza aproposenak?**

Ez nuke esango arraza bat beste bat baino aproposagoa denik, baina, hautaketa



Oskar Murgia, artzain txakurak hezten ikasteko irakaslea. GOIENA

genetikoari erreparatuta, rankinga egin beharko banu, lehen postuan border collierra jarriko nuke; bigarren, kelpie australiarra; eta ondoren, betidanik artzaintzarako erabili izan

direnak, artzain-txakur alemana edo euskalduna, esate baterako. **Zenbat urterekin komeni da txakurraren heziketa hastea?** Lau bat hilabeterekin ardiekin kontaktuan jartzea

komeni da, sena pizteko. Zortzigarren hilabetetik aurrera hasten da txakurra gauza gehiago ulertzen, eta orduan ekingo diogu, benetan, txakurraren heziketari. Hortik bi urtera bitarte, aginduak erakutsi behar zaizkio eta obediencia landu. Hemendik aurrera, artzain-txakur ona izateko, gakoa esperientzia hartzen joatea da.

**Zein da artzain-txakur bat ona dela esateko izan beharreko dohaina?**

Zaila da bakarra gailentzea, ugari dira. Dena den, ezinbestekoa da txakurrak ardiak ondo ezagutzea. Ardien inguruan dena jakin behar du: noraino gerturatu daitekeen, zein abiaduratan, zein momentutan...

**Osasuntsu dago artzaintza Euskal Herrian?**

Egoera leku guztietan erdipurdikoa den arren, Euskal Herrian ez gaude horren gaizki. Hemendik kanpo artzaintza askoz baztertuago dago. Gurean kontzientzia handia dago ofizioaren inguruan. Euskaldunontzat, ama lurra oso garrantzitsua da, txikitatik erakusten digute, eta uste dut horrek zerikusia handia duela egungo artzaintzaren egoerarekin.

## HAU BE BADOGU!

**Euskal taldea Frantziako Tourrean?**



Bihar hasiko da Frantziako Tourra eta bertan 8 euskal ziklista egongo dira lehiatzen, talde ezberdinetan. Zortziak talde berean egotearen inguruan amestu dute erabiltzaile batzuek:

@tropela: "Gogoratu, 8 euskal txirrindulari izango ditugu lehiatzen aurtengo Tourrean. Animo mutilak! #TDF2018 #tropela".

@oskarurkiola: "Tourra irabazteko bezalako zortzikoa. Zenbat botatzen dudana faltan euskal talde bat World Tourrean!".

**'#Tortura' traola, erabilienetakoa**

Guardia Zibileko tenienteorde batek Kataluniako TV3 telebistan Euskal Herrian praktikatu diren torturen gainean egin berri duen aitortzaren ostean, sare sozialetan euren haserrearen erakutsi dute hainbat erabiltzailek:

@atarrabiakomanu: "Eta hemen duzue inpunitatearen eredu bat, gainera gutxiesten torturak jasandako biktimak. Gero esatea dute justizia guztientzat berdina dela... #Tortura".

**Sanferminak sare sozialetan hizpide**

Gaur, uztailak 6, San Fermin bezpera da eta Iruñean txupinazoarekin batera eztanda egingo du festak. #Sfk18, eta baita #erasosexistarikez traolak dagoeneko trending topic izan dira:

@ikertb: "Uztailaren 6an plaza beltzez janztea ez zait irrigarria iruditzen. Are, irudi indartsua litzateke. Beste gauza bat da hori egingarria den. Eta noski, dagokionak egin beharko luke deialdia #Sfk18".

## ITURRI ONETIK

## RIPen gaineko fanzine-liburua

Punk musikaren adierazlerik nabarmenena izan zen RIP talde arrasatearraren gaineko liburu-fanzinea prestatzen ari dira Kataluniako *Silencio tóxico* fanzinekoak, hainbat musika aditu arrasatearrekin eta Txerra Bolinaga RIP taldeko batera jotzailearekin batera. Udazkenean argitaratzeko asmoa dute eta testuz -besteak beste, hainbat elkarrizketa jasoko ditu- eta argazki osatutako papereko CD batekin batera jarriko dute salgai. CD horretan, RIPen abestien moldaketak jasoko dira, hainbat taldek eginak.

## ALBISTE IZAN ZEN

2006-07-06

## Sharon Stoner-ek lehen diskoa aurkeztu zuen

Sharon Stoner talde oñatiarrak lehen diskoa argitaratu zuen, Danbaka Debagoieneko musika lehiaketako lehen edizioa irabazi eta diskoa grabatzeko saria jaso ostean. *Hiru mila bira* izenburuko iraupen luzekoa Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten. Arrasateko Shot! estudioan grabatu zuten, gitarra-soinu astunez eta melodiaz osatutako abesti-sorta. Uda hartan, Azkena Rock-en hartu zuten parte.



## GUTUNAK

## Txosten tekniko batek saihestu egin du Bergarako Udalak bere gain hartzea herria txakur kaketatik garbi mantentzeko erantzukizuna

AIERT LIZARRALDE

IRABAZI BERGARA  
BERGARA

2018.06.29an *El Diario Vasco* egunkarian argitaratutako ohar batek EAJk eta PSEk osatutako Bergarako udal-gobernuak deklarazio instituzional baten berri ematen du, non Irabazi koalizioa zinegotzi Aiert Lizarralderi aurpegiatzen zaion udal-teknikarien profesionaltasuna zalantzan jarri izana. 2018.06.25eko ohiko osoko bilkura batean sortutako eztabaida garrantza dago jatorrian, Irabazik mozio bat aurkeztu baitzuen bide publikoan uzten diren txakur kaken arazoaren inguruan.

Irabazi Bergaran ez dugu udal-langileen profesionaltasuna zalantzan jartzen, udal-gobernuak gure ordezkariaren izen ona galarazteko hori esan badu ere, baina teknikariak ematen dituzten txostenen inguruan gure desadostasuna agertzeko eskubidea dugu, txosten teknikoak lege interpretagarrietan oinarrituta daudelako, eta guk ere lege horiek kontsultatzen ditugu, baita lege horiek ezagutzen dituzten beste teknikari batzuk ere.

Legeak esaten du kale-garbiaketa udalaren betebeharrak dela eta txakur kakei dagokienez, udalak zigortu egin behar ditu udal-arau hori betetzen ez duten jabeak. Herri osoaren arazo bihurtu denez, eta errudunak aurkitu eta zigortzea zaila denez, txakurren DNA errolda bat egitea proposatzen du Irabazik.

Horri buruzko txosten tekniko batek esaten duenez, gai hori ez da udal-eskumenekoa, baina aztertzen ari garen gaiaren inguruko legeak ez du atal batean ere debekatzen udalak txakurren DNA errolda bat egitea. Aitzitik, udalak herriko txakurren errolda bat izan behar duela ezartzen du, eta txakur guztiek identifikatzeko moduko txip bat eraman behar dutela.

Udal-gobernuak gaia ez dela udal-eskumenekoa dio eta ez duela horren inguruko neurririk hartuko. Serioa da horrela jardutea kontuan izanda udala dela herritarrek hurbilen duten administrazioa? Serioa da kaleak garbi daudela esatea herritarrek txakur kakekin nazkatuta daudenean? Herrian sortzen diren arazoak ez al dira udal-eskumenekoak?

Irabazik bere gain hartzen du gizabidearen aurkako ekintza horiek direla-eta herritarren defentsan duen erantzukizuna, eta legea alde zein aurka, bere esku dagoen guztia egingo du herri honetan bizikidetzara errespetu dadin.

## Arrasateko txosna batzordearen oharra, Ibon Arrupek jaietan kendutako pankartaren harira

JOSU ZUGASTI, GORKA RODRIGUEZ,  
LIERNI ETXEBERRIA ETA GARI ARSUAGA  
ARRASATEKO TXOSNA BATZORDEAREN  
IZENEAN  
ARRASATE

Arrasateko Txosna Batzordeak, behin jaiak amaituta eta horien balorazio lasaia egin ondoren, ohar hau kaleratu nahi du, herriko plazatik preso politikoen aldeko pankarta kentzeak sortutako iskanbila dela eta.

1. Txosna Batzordearen egitarauan agertzen zen ekainaren 25eko manifestazioa ez zen antolatatu Ibon Arrupe zinegotziaren aurka. Manifestaziorako baimena ekainaren 1ean eskatu zen, eta Arrasateko presoak etxeratzearen aldekoa zen. Ez zen bere dimisioa eskatu, baina, izenik aipatu barik, manifestaziorako dei egiten zuen pankarta bat horrela apurtzea arbuia zuen.

2. Txosnagunea ez da Ezker Abertzalearen edo, norbaitek esan duen moduan, "mundu horren" egitura bat. Euskal Herrian Euskaraz, IA, Ttak, Askapena eta Mirentxin Gidariak izan dira aurtengo txosnagunea eta egitaraua antolatatu dutenak, eta beste

urte batzuetan Eskubaloi Taldea, Mondra, Kitzikan... eta beste hainbat ibili dira gurekin.

3. Txosnetako lantaldean dihardugunok adierazpen askatasuna babesten dugu, baina ez txosnagunean bakarrik, baizik eta herri osoan. Ez dugu onartzen kartelak eta pankartak behin eta berriz kentzea. Espazio publikoa denona da, bai, baina hori ez da adierazpen askatasuna mugatzeko argudio bat, haren erabilera bultzatzeko baizik.

4. Era berean, jaien "politizazioa" dela eta, guztiz zilegi dela deritzogu jaietan mezu politikoak zabaltzea. Hain zuzen ere, hori da politika egin ahal izateko lehen baldintza, publikoki eztabaida, kritika, aldarrikapenak egin ahal izatea. Ez dakigu nola nahas daitezkeen gune publikoak politikarako erabiltzea eta bakea arriskuan jartzea, arduradun politiko batek esan duen bezala.

Labur esanda, Txosna Batzordea osatzen dugun eragileok ez dugu Ibon Arruperen aurkako manifestaziorik antolatatu, preso politikoen askatasuna eskatzen zuena baizik. Bestalde, uste dugu bakea eta elkarbizitza kaltetzen dituen ez dela pankarta jakin bat, baizik eta herritarren adierazpenak indarkeriaz kentzea.

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Jakin-mina

ANGEL ERRO

HTTPS://LABUR.EUS/VBXWA  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Jakin-mina du Jodie Fosterrek, elkarrizketa batean bota duenez, zahartzaroak zer ekarriko. [...]

Nabarmena bezain askaezina da kontraesana: ataka txarretik ateratzeko modu bakarria ataka txarra aurreratzea litzateke. Horregatik, nire jakin-min nagusia behar baino lehen hildako jende hurbilak, zahartzaroaren itxaronaldirik gabe joan zitzaigunak, nolako zahartzaroa izanen zuen irudikatuta asebetetzen dut. Kontsolabidea izan daiteke gainbehera ezagutu ez zutela pentsatzea, edo gainbehera onargarri bat izan zutela. Nik, berriz, adin berekoen hondamendian oinarritutako robot irudia sortzen diet gogoan, aldizkako zoriontasunak ekarriko liekeen pozak eztituta. Urtebetetzea izanen luketenean ateratzen ditut kontuak zenbat urte beteko zituzten. Bigarren heriotza, konjeturala, ematen diet edade batez beste hilkor batera iristen direnean, patuarekin berradiskidetu. Hurbileko hildakoei ematen dieran alegiazko bizi luzapenarekin erkatu ohi dut hurbileko bizidunen mundualdia eta baita nirea ere, jakin-minez eta kezkabide nagusia txikiagotuta.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA







Estalyn Curay Chulco (Oñati)

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

## Matrikula

Uztailaren 12-13-16-17-18

## Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91



### Esaguzu zure izena, mesedez, eta zein ziklo egin duzun.

Estalyn naiz eta MGEPko goi mailako zikloko Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (ASIR) ikasten ari naiz.

Pertsona bizitzat dut neure burua, ikasteko motibazioa daukat eta edozein egeerata ondo moldatzen naiz.

Gaur egungo bizimodua Informazio eta Telekomunikazio teknologietara bideratuta dago, IKTerara; eta, berez, erronka berriak topatzea eta gainditzea ondo etortzen da.

### Noiz hasi zinen praktketan? Noiz bukatuko duzu?

Informatikako zikloko ASIR-eko lehenengo maila bukatu ondoren, heziketa duala egitea erabaki nuen.

2017ko ekainean hasi nintzen lanean eta 2018ko ekainean amaituko dut, urtebeteko esperientziarekin. Bertan gelditzea eskaini didate, eta horrek asko poztzen nau.

### Zein da Kiro Grifols-en lan-esparrua?

Kiro Grifols-ek ekipo automatizatuak sortzen ditu, ospitaleko farmaziara zuzenduta. Soluzio automatikoak garatzen ditu, ospitaleko farmaziaren prozesuak automatikoak izan daitezen; haren helburua da gaixo batek behar dituen dosiak modu zehatzago eta fidagarriagoan prestatzea.

### Eta zein da zure sailaren edo lantaldearen lan esparrua?

Sistemetako departamentuan nago eta nire bideratzailea Mikel Gutierrez izan da, hemengo sistemetako arduraduna. Nire lana Kiro Grifols-en informatikaren azpiegitura kudeatzea da; hau da, komunikazioa egotea enpresaren eta zerbitzariaren artean -datuak biltzen den lekua-, ordenagailuarekin gertatzen diren arazoak konpontzea, zerbitzarien kudeaketa, enpresaren webgunea kudeatzea, eta abar.

### Zein motatako lanak egin dituzu epe honetan?

Windows sistema eragileko zerbitzariak kudeatzea egokitu zait, enpresaren webgunea kudeatzea, WordPress, edukia kudeatzeko sistema (EKS) erabiltzen den erremintekin, bere edukia eguneratu, aldatu. Erabiltzaileen ordenagailuetan hainbat arazo konpondu ditut; erokorrean, euren zerbitzura egotea izan da nire lana. Erabiltzaileei formakuntza saioak ematea ere egokitu zait. Azkenik, enpresaren IKT aktiboen monitorizazioa ahalbidetzen duen softwarea instalatu eta erabiltzen aritu naiz.

### Bukatzeko, zer eskaini dizu Kiro Grifols-en praktikak egiteak, bai pertsonalki, bai ikasketak aldetik?

Oso pozik nago, esperientzia benetan aberasgarria izan da niretzat. Askok ikasi dut, eta lan-giro ezin hobea izan da. Gainera, orain, enpresa bateko informatikaren funtzionamenduari gainera ezagutza praktikoa handiagoa dut, eta hori asko baloratzen dut.



Herritar bat, Monterron parkera sartzeko aldatxo hasieran, ateari eusten. XABI GOROSTIDI

# Parkea herrira irekitzeko ideiak

Monterron herrira irekitzeko ideia lehiaketan hamaika proposamen batu ditu Udalak. Horiekin guztiekin erakusketa bat jarri dute Kulturateko klaustroan, iraileko bigarren astera arte, eta herritarrek gustukoenak botatu ahal izango dituzte

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Monterron jauregia eta parkea jabetza pribatukoa izan dira sorreratik. Jauregia XVII. mendean eraiki zen, Amerikatik aberastuta itzuli zen Mateo de Aranguren kapitainak hala aginduta. Baina, 1983an, erabilera publikorako erosi zuen Arrasateko Udalak.

Hala ere, izaera pribatu hori nabaria da gaur egun, parkearen sarbidean eta baita inguru urbanistikorekin duen lotura faltan. Horri buelta emateko, ideia lehiaketa antolatu zuen otsailean Udala Gobernuak, eta, horren baitan, proposamen berritzaileak egin dituzte arkitekturen arloko hamaika profesionalak.

Parkera sartzeko aldapa eskailerekin eta gunee berdeekin ordezkatzeko dute, besteak beste, eta ibilgailuek egun duten na-

gusitasuna murrizteko hainbat proposamen ere egiten dituzte. Horrekin lotuta, proposamen askok bidegorria bertatik igarotzeko aukera jasotzen dute.

Proposamen guztietan bi aldaera hartu dituzte kontuan: inguru hori jaietan txosna gune bilakatu ahal izatea, eta Kondekuako berdegune azpian egoiliarrentzako lurpeko aparkaleku bat izatea, 100 plaza ingurukoa.

## Botoa emateko aukera

Herritarrek aukerarik gustukoenak botatzeko aukera izango dute, erakusketan bertan dagoen

## PARKE INGURUA BERRITZEKO HAMAIKA PROPOSAMENEK OSATZEN DUTE ERAKUSKETA

boto-kutxa baten bitartez –udal webgunean ez da horretarako aukerarik izango–.

Hainbat eratarata botatu daitezke: proposamen bakarrari, bi proposamenera maila berean, eta bi proposamenera, baina bat lehenez. Botoa emateko ez dago inongo baldintzarik: ez dago Arrasaten erroldatuta egon beharrik, ezta adin konkretu bat izan beharrik ere.

Bost diseinu onenak sarituko dituzte, eta horien aukeraketa zortzi adituk osatutako epaimahaia egingo du. Hala ere, Ubarretxena alkateak azaldu du epaimahaiko kideek herritarren aukera gustukoenak kontuan izango dituztela. Erakusketa uztailearen 3tik 27ra eta irailaren 3tik 14ra egongo da zabalik –asteleheneetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara–.

## Hamaika proposamenetako batzuk



Kondekuan zuhaitzak, lau berdegune eta ur xafla bat ditu. X.G.

**LURRUNA 1247** Parkerako sarrera bi eratarata egin daitezke: bi noranzko dituen eskaileren bitartez eta eskuin aldeko aldaparen bitartez. Bidegorria jauregiaren aldean kokatzen du, eta Kondekuaren erdian ur xafla bat du, lau berdegunez inguratuta dagoena.



Zirkulazioa lur azpitik bideratzen du proposamen honek. X.G.

**IBILBIDEA 2018** Eredu hori guztia oinezkoentzat izateko, zirkulazioa lurpeko tunel batetik joango litzateke. Lurpean sartzeko, 15 metroko bi aldapa ditu: Amaieratik Kondekuako zebra-bideraino eta jauregiarekin Zaruvalde hasieraraino.



Kondekuan karratu formako belarguneak ditu. X.G.

**PASEAR 0227** Egurrezko zorua planteatzen du Arbolapetan eta Kondekuaren. Arbolapetako aldean 4,10 metroko espaloia du, ondoren aparkalekuak baterian, eta zirkulazioa bi noranzkotan. Parkerako sarbidean eserlekuak ditu, hiru mailatan.



Monterongo anfiteatroaren luzapena du parkerako sarbidean . X.G.

**BIHURGUNE 1545** Egurrezko plataformekin egindako zorua du, hainbat berdegune txiki dituen. Parkera sartzeko anfiteatro moduko bat du; esertzeko zortzi mailarekin, eta eskuinaldean belarguneak dituena. Bidegorria Arbolapeta alboan jartzen du.



Nabarmen egiten du belarguneen alde proposamen honek. X.G.

**UHINA 2018** Proposamen apurtzaile honek berdearen alde egin eta urte osoan erabiltzeko eremu estali bat sortzen du. Horrez gain, hexagono formako egurrezko esertokiak ditu, eta parkera heltzeko hainbat bidetxo ere bai.



Monterron hitzarekin egitura antzerako bat izango luke. X.G.

**PARENTESIS 0132** Orain errepidea dagoen lekua kareharrizko zorua izatea proposatzen du, ibilgailuen abiadura 20 km/h mugatuz. Parkingaren sarrera San Frantzisko elizako biribilgunean jartzen du, eta, eremu handiagoa duenez, zoru bakarrekoa izango litzateke.

## Etkez etxeko langileen greba legezkoa dela ebatzi du epaileak

Udal Gobernuak hiru aldeko bilera deitu du hilaren 11rako: langileekin, Clecerekin eta udal ordezkariekin

**X.G. ARRASATE**

Ute Clece Zaintzen enpresak epaitegira eroan zituen etkez etxeko langileak, greba "legearen aurkakoa" zela iritzita, baina kontrakoa ebatzi du epaileak. Bigarren greba astean sarturik

dira jada, eta segitzeko asmoa berretsi dute, "konponbidea lortu bitartean".

Hain zuzen ere, ordu publikoak eta pribatuak berdinduz ordaintzea zein gaixo egoteagatik penalizazioz ez egotea eskatzen dio-

te enpresari. Bestetik, enpresaren eta Udalaren negoziatzaileak "borondaterik eza" ere salatu zuten martitzenean egindako prentsaurrekoan.

Hori bukatzean, Maria Ubarretxena alkateak iragarri zuen hiru aldeko bilera bat deituko zutela hilaren 11rako: langileekin, Clecerekin eta udal ordezkariekin. Orain arte, Udalak bilerak egin ditu langileekin eta enpresarekin; hortaz, hiru aldeek batera egingo duten lehen bilera izango da.

uztailak 7 larunbata

**-%5**

**DENEAN**

Lurrindegia, produktu fresko, etxetresna elektriko, edari, ehun, konserba, terraza eta lorategi, etxeko gauza...

Euskadi, Kantabria, Errioxa eta Aragoiko EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan egindako 25 €-lik gorako erosketetan eta EROSKI Hipermerkatuetan egindako 50 €-tik gorako erosketetan.

\*Kuboa ordaintzean EROSKI club barriela aurkeztuta, egindako erosketaren % 5ari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu txartelarekin lotutako kortuan. **EROSKI club kortu bakoitzean gehienez sar daitezkeen zenbatekoa: 250 euro.** Testu-liburak, esperientzia-paketeak, salko-kargak, E-pay barriak (aurordainaketa), errebeltu digitala eta zigilu bidezko fidelizazio-promozioetako produktuak (puntuek eta/edo ontzirekin) ez dira sartzen promozioaren barruan. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko satorian.

**EROSKI**  
ARRASATE  
Musakola z/g ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

Baila eroski.es webgunean ere

# "Iheslari esparruak hiri bilakatu dira gaur egun"

**JUAN LUIS MERINO** IRABAZI ALDERDIKO ZINEGOTZIA

Giza eskubideen ikuskatzaileen euskal delegazio bat bidali du Sodepaz GKEK Palestinara, eta zinegotzi arrasatearra bertako partaideetako bat izan da

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Zortzi eguneko egonaldia egin dute, Palestinako errealtatea bertatik bertara ezagutzen eta hainbat eragilerekin elkartzen. **Zeintzuek osatu duzue delegazioa? Eta zein izan da zuen zeregin nagusia han?**

Alor ugaritako partaideek osatu dugu delegazioa: kazetariak, sindikalistak, aktibistak, politikariak... CEAR Euskadiko presidentea Patricia Barcenas, Foro Sozialeko koordinatzaile Agustin Hernan, Donostiako Udaleko EH Bilduko zinegotzi Olaia Duarte, Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak Maite Santamaria, CCOOko Esther Piñeiro, Iñaki Makazaga freelance kazetaria, EITBko albistegien zuzendari Aintzane Bolinaga, *Pikara* magazineko zuzendari Maria Angeles Fernandez eta ni neu izan gara.

**Zer-nolako agenda izan duzue?**

Intentsitate handiko zortzi egun izan dira, atsedetik gabe, 08:00etatik 20:00etara gauzak egiten. Bilera asko egin ditugu, giza eskubideen aldeko elkarteekin, emakumeen eskubideak defendatzen dituztenekin, gazte mugimenduekin, haurrekin lan egiten duten elkarteekin...

**Zerk hunkitu zaitu gehien?**

Injustiziak, oro har. Poliziei hariak botatzea egotzi zieten gazte batzuen epaiketa ikusi genuen, eta ez zuten defendatzeko ia aukerarik. Armada israeldarraren errepresioa eta oldarkortasuna itzelak dira. Zisjordaniako horma ikusten ari ginela, tiro egingo zigutela abisatu ziguten soldaduek, gu hor egote hutsagatik. Eta gero, etxeen afera dago. Kalandian, adibidez, hormatik 100 metrora zeuden etxe guztiak botatzen ari ziren, segurtasun zona zela argudiatuta. Dena justifikatzen dute segurtasunarekin aitzakiarekin, eta berdin zaie bertatik kanporatu dituzten familiekin zer gertatzen den.



Juan Luis Merino, Nablus hirian, bandera palestinarra atzean duela. J.L. MERINO

## "KONTURATU EGIN DIRA EZIN DITZAKETELA HARRIAK ERABILI TANKEEN AURKA"

**Eta nora jotzen dute familia horiek?**

Euren familia kideengana joan, edo zuzenean iheslari esparruetan finkatu. Iheslari esparruak hiri bilakatu dira gaur egun. Aidakoa, adibidez, 5.000 errefuxiatuarekin hasi zen, eta gaur egun 55.000 daude. Oso eremu prekariorik dira, eta bizimodu duina eramatea oso zaila da han. **Adierazpen askatasuna oso mugatuta dago?**

Erabat. Hebron hirian geundela, delegazioko kide bat atxilotu egin zuten. Abrahamen meskita geundela, Iñaki Makazaga kazetariak argazki bat atera zion kaleko jantzita zihoan polizia bati. Zoroen pare etorri zen gurea, eta Iñaki atxilotuta eraman zuten. Mugikorreko argazki guztiak ezabatzea behartu zuten, eta, ostean, aske utzi zuten. *Mozal legea* onartzeke duten arren, egunero aplikatzen dute.

**Zein izan daiteke gakoia palestinarren egoera hobetzeko?**

Euren egoera oso latza da, baina horri beste arazo bat gehitu behar zaio: Donald Trump. Al-Fatah, Herri Fronte Demokratikoa eta OLP alderdiekin batzartu ostean, argi utzi digute biolentziarik gabeko erresistentziaren alde egingo dutela. Ohartu egin dira ezin ditzaketela harriak erabili tankeen aurka egiteko. Boikot, desinbertsio eta isun kanpaina erabili nahi dute Israeli aurre egiteko, arlo ekonomikoa baita min handien ematen diena.

## 3.000 lagun inguru pasa dira AZEren erakusketatik

Pasa den ostegunean amaitu zen *Ez zen kasualitatea izan* erakusketa, eta AZEko kideak oso pozik azaldu dira herritarren erantzunarekin. "Batez beste, eguneko 150 lagunek bisitatu dute erakusketa, eta Arrasate bezalako herri batentzako oso zifra esanguratsua da hori", azaldu du AZEko kide Jose Angel Barrutiabengoak.

"20 argazkirekin hasi ginen, eta, lan mardula egin ostean, 120rekin osatu genuen erakusketa. Baina erakusketa inauguratu ostean, jende mordo bat gerturatu zaigu Aprendices-ekin lotutako argazkiak zituela esaten. Jakin izanez gero, erakusketa osoa egin genezakeen".

## Eskuterzaleen 'Mondrally' festa gaur gauean hasiko da

Zortzigarren aldia da, eta gaur gauean hasiko dute, Iluntz tabernan egongo diren DJekin.

Zapatuan 11:00etarako egin dute hitzordua Herriko Plazan, eta Kajoi tabernan garagardo dastaketa izango dute zain. Arrasatek Oñati alderantz joango dira gero, eta, eguraldiak laguntzen badu, Arantzazuraino helduko dira Vespa eta Lambretta motorrekin. Arrasatera itzultzean, bazkaria egingo dute Larrinetxe jatetxean, eta, ostean, DAT tabernan egingo den DJ saioa izango dute zain. Soul Vespa SC Terrassako kide Adria Mo, Santa Eugenia de Berga SCKo kide Paddy eta Sir Gorka arituko dira musika jartzen.

## Kanpanzar eguna uztailaren 14ra aurreratu dute

San Inazio egunean, uztailaren 31n, ospatu izan dute Kanpanzar eguna. Baina data horietan jende gutxi joaten dela kontuan hartuta, Elorrioko eta Arrasateko udalek eta Angiozar bailarako ordezkariak erabaki dute aurrerantzean ospakizuna uztailako bigarren zapatuan egitea.

"Ez genuen hiru udalerririk elkartzeko egun hau desagertzerik nahi. Bata bestearen ondoan gaude, eta urtean zehar harremanik ez izan arren, egun hau mantendu nahi genuen".

Mugarrien ibilbideak, trikitalariak, bazkariak, Gauargiren emanaldiak eta doke txapelketak osatzen dute uztailaren 14ko egitaraua.

## OHARRAK

### Bedoñabe

Herri Eskolak San Andres auzoan duen egoitzan, Udalak finantzatutako horma-irudi erraldoi bat egingo dute herriko artistek.

### 'Freskura'

Txatxilipurdiren ekimen horri esker, uztailean euskarazko irakurgaiak eta jolasak egongo dira igerilekuko erabiltzaileen eskura.

### Mezak ETB1en

Uztailaren 7an, 14an eta 21ean San Juan Bataiatzailea parrokiaren egingo diren mezak grabatuko ditu ETBk, ondoren, domeka goizetan Euskal Telebistako lehen katean emititzeko.

*Sipi Sipi*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

# Xabi Etxeberria izango da Mondrako presidente

Batzar orokorra egin du asteon Mondragon Futbol Klubak, eta Etxeberriak hartu du orain arteko presidentearen, Ramon Azkarateren, lekukoa; denboraldiaren balantzea, bestalde, positiboa izan da; albiste txar bakarra, Leintz Arizmendiren maila jaitsiera

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Presidente aldaketa izan da batzar orokorrean interes handiena piztu duena. Baina 2017-2018 denboraldiko balantzea egiteko ere baliatu dute. Oro har, "positiboa" izan da urtea, bai ekonomikoki, baita kirol arloan ere, Azkaratek azaldu duenez.

Ekonomiari dagokionez, emaitza positiboak izan ditu Mondrak, azken urteetako zor guztiak kitatuta. "Orain arte, galera batzuk izan ditugu, eta orain, hori murriztea lortu dugu, nolabait. Aurten, zenbaki gorriak ez dugu, beltzak baizik. Pozik gaude".

Kirol arloan, talde guztien erreposoa egin du orain arteko presidentek. "Lehenengo taldeak oso denboraldi txukuna egin du, momenturo goiko postuetan egonda. Datorren urtean goiko postuetan egotea espero dugu". Etxeberria ere ausartu da helburuak aipatzen. "Arrasate moduko herri batek merezi du Hirugarren Mailan egotea; beraz, erronkarik handiena horixe izango da, mailaz igotzea". Jorge Davila entrenatzaileak klubaren "konfiantza osoa" izango du hori lortzen saiatzeko.

Gainontzeko talde guztiek ere "helburuak bete dituzte, euren kategorietan ondo lehiatuta. Hala ere, harrobiko taldeetan, errendimenduari begiratu beharrean, kirolek aparte dauden zenbait baliori ematen diegu garrantzia. Eta oso prestatuta dagoen jendea dugu horretarako", adierazi du Azkaratek. Hori dela eta, orokorrean, "oso pozik" azaldu da.

**Leintz Arizmendi, behera**

Albiste txar bakarra emakumezkoen futbolak utzi du. Izan ere, Leintz Arizmendi taldeak ez du Euskal Ligan jarraituko. "Aurten, bi edo hiru neskak utziko dute futbola. Maila handiko futbolariak ziren eta saiatu gara haien ordezkoak aurkitzen in-



Eguaztenez egin zuten batzar orokorra, Kultureteko areto nagusian. E.A.

## Protagonisten adierazpenak



**RAMON AZKARATE**  
ORAIN ARTEKO PRESIDENTEA

"Momentu ona da bigarren edo hirugarren lerrora pasatzeko. Zuzendaritzan jarraituko dut laguntzen. Jende gaztea dago, oso prestatuta, eta gauzak egiteko gogo eta ilusio handiarekin. Xabi, kategoriako pertsona izateaz gain, azkarra da, eta ondo bideratuko du kluba, ziur naiz".



**XABI ETXEBERRIA**  
PRESIDENTE BERRIA

"Poztasun handia ematen dit, baina erronka handia da niretzat, gauza berria delako. Hala ere, espero dut dena ondo irtetea eta klubak gora egitea. Harrobiaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, eta emakumezkoak erakartzea ere izango da erronka nagusietako bat, Euskal Ligara itzultzeko".

guru herrietan, Aretxabaletan, Bergaran edota Oñatin. Zuzendaritzan, Arizmendikoak, UDAkoak eta Mondrakoak, azken momentura arte saiatu gara talde lehiakorren sortzen, Euskal Ligan jokatzeko, baina ezin izan

dugu lortu. Beraz, kirol aldetik maila mantendu arren, jaitsi egin behar izan gara", azaldu du Azkaratek.

Hala, datozen urteetan, berriro Euskal Ligara igotzea izango da taldearen helburua.

## Bueltan da Zaldibarko 24 orduko areto-futbol txapelketa

Urtebeteko hutsunearen ostean, txapelketa antolatzen hastea erabaki du herriko gazte talde batek

**E.A. ARRASATE**

Uztailaren 14an jokatu da Zaldibarko 24 orduko areto-futbol txapelketa. Iazko hutsunearen ostean, herriko gazte batzuek antolatu dute aurtengoa. "Egun polita izaten da, giro bikaina sortzen da txapelketaren bueltan, eta ez genuen galtzen utzi nahi. Horregatik, berreskuratzea erabaki dugu", adierazi du Danel Garciak, antolatzaileetako batek.

Talde batzuek eman dute izena dagoeneko, eta uztailaren 12ra arte egongo da horretarako aukera. "Gustatuko litzaiguke hamabost talde inguru lortzea, gutxienez, txapelketa luzea izan dadin eta lehengo 24 orduko ohitura hori berreskuratu dadin".

**Izen-ematea**

Inskripziorako, taldearen izena eta arduradun baten kontaktua eman beharko da, Instagram

bitartez -@zaldi24ordu- edota [zaldi24ordu@gmail.com](mailto:zaldi24ordu@gmail.com) helbidera idatzita. Talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko ditu ES32 3035 0202 73 2020042303 kontu korrontean -Laboral Kutxa-, kontzeptuan *Zaldibar* eta taldearen izena jarrita. Nahi izanez gero, Etxoste tabernan ere eman ahal izango da izena.

Talde bakoitzeko bost jokalarik eta atezainak jokatu dute. "Beraz, komeni da bederatziko edo hamar jokalarik inguruko taldeak izatea", antolatzaileen esanetan.

Lehenengo hiru sailkatuek saria izango dute.

**Emakumeena, lehenengoz**

Aurten, parekidetasunaren alde egin nahi dute antolatzaileek, nesken txapelketa antolatuz. Horretarako, hiru talde beharko dira, gutxienez. Beraz, nesken parte-hartzea eskatzen dute.

## Arrasate Eskubaloiko kadeteak, mutilak, Granollers Cup-en

Granollers Cup txapelketa jokatuko dute arrasatearrek, bigarren. Bi kanporaketa jokatu dituzte. Lehena irabazi ostean, bigarrena galdu egin dute, alemaniar batzuen aurka. Josu Herrero entrenatzaileak adierazi du esperientzia "izugarria" izan dela berarentzat zein jokalarientzat. Hamabost herrialdeetako 140 talde aritu dira txapelketan.

## Hilabete garrantzitsua du aurretik Malen Ruiz de Azua atletak

Uztailaren 10ean, Avilan, Saltoen Nazioarteko Topaketan izango da Espainiako Selektzioarekin -Italiako eta Portugalgo selektzioak ere ariko dira-. Uztailaren 14an, Federazio Autonomikoen Txapelketan ariko da Euskadirekin, Granollers (Katalunia). Hilaren 21ean eta 22an, Espainiako Txapelketa Absolutuan hartuko du parte, Getafen (Madril).



# Zaldibar, dantza ikuskizunen epizentro

Kilate askoko bi dantza ikuskizun hartuko ditu zapatuan Arrasateko frontoiak: Haatik taldearen 'Lau eme' eta Ertza taldearen 'Meeting point'. Udazabal programaren baitan eskainiko diren zuzeneko dantza ikuskizun bakarrak izango dira.

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Udazabal egitasmoaren hamargarren aldia badoa pixkanaka aurrera, eta zapatu honetan hitzordu garrantzitsu bat dakar zuzeneko dantza ikuskizunak maite dituzten horientzat.

Udazabaleko antolatzaileek emanaldientzat kokapen berriak bilatzeko saiakerak egin izan dituzte azken urteetan, eta, horren harira, Zaldibarko frontoiaren aldeko apustua egin zuten. Duen tamainagatik, dantza ikuskizunak bertan egitearen alde egin zuten, eta, eman duen emaitza ona ikusita, aurten ere errepikatu egingo dute, goi mailako bi emanaldirekin, gainera.

**'Lau eme'**


Izenak berak pistak ematen ditu dantza ikuskizunaren muinari buruz. Haatik euskal dantza konpainia garaikidearen azken lan horretan, feminismoaren alde borrokan egin duten lau emakume dira protagonistak.



Haatik taldeko dantzariak *Lau eme* obra antzezten. HAATIK

Asko eman dute matxismoaren aurka eta emakumeen eskubideen alde, baina nahikoa egin ote duten galdetzen diote euren buruari. Aurrerapausoak egon diren arren, borrokan eta lanean jarraitu behar dutela jabetzen

dira. Aiert Beobide dantzari donostiarrak zuzendutako obra horretan, ondorengo lau dantzariak emango diote bizia ikuskizunari: Irati Sorondok, Anne Jauregik, Nagore Zabalak eta Amaier Luluagak.



*Meeting point* ikuskizunean, dantzarien akrobazietako bat. ERTZA

## MAX saria jaso berritan

*Meeting point* ikuskizunak kale ikuskizun hoberenaren saria jaso berri du ekainaren 18an egindako MAX sarietan. Estatu mailan arte eszenikoen sariketa garrantzitsuena da, eta, horrez gain, Euskadiko kale ikuskizun onena izendatu zuten 2017an.

**'Meeting point'**

Ertza taldearen ikuskizun horrek bi gizonezko gazteren istorioa du oinarrian. Herrialde berekoak izan arren, 8.000 kilometroko putzua gurutzatu behar dute, elkar ezagutzeko eta, horrez gain, batera duten guztia eza-gutzen hasteko.

Dantza, sinkronizazio eta akrobazia dosi handia eskaintzen duen espektakulua da, *break-dance*-tik eta hip hopetik edaten duena. Dantza maila handiarekin, grabitatea desafiatu eta

ikusleak zur eta lur uzteko gaitasuna duen ikuskizuna da, ez bairik gabe.

Asier Zabaleta ezkiotarra da koreografia zuzendaria, eta Thiago Luiz Almeida eta Caio Enrique de Souza dantzariak dira

## EUSKAL ESZENAKO PUNTA-PUNTAKO BI DANTZA IKUSKIZUN HARTUKO DITU ZALDIBARREK

## 'Aukerak' zirku ikuskizuna gozatzeko aukera domekan

The Funes Troup hirukotearen azken lana da, bizitzan hartzen diren erabakiak oinarrian dituen

**X.G.** ARRASATE

"Nora zoazen dakizunean, argi daukazu zuk aukeratutako bidetik zoazela? Ala eraman zaitzaten uzten duzu?". Galdera horri erantzuna bilatzen ahalagindu dira The Funes Troup taldekoak *Aukerak* izeneko azken obran. Sinopsian honela definitzen dute: *Bizitzako erabakiei eta joanekoa baino ez den bidaia batean aukeratu behar dituzun bideei buruzko zirku ikuskizuna.*

Leioako Umore Azokan antzeztu zuten lehendabizikoz,

maiatzean, eta domekan geldialdia egingo dute Arrasaten -20:00etan, Seber Altube plazan-.

"Obra osatzeko orduan, proba asko egin genituen, eta aukera asko baloratu beharra izan genuen. Hori dela-eta jarri genion *Aukerak* izena. Gure esperientzia pertsonalekin elikatutako gidoia dauka", azaldu du taldeko partaide Xabi Larreak.

The Funes Troup Gorka Peireirak, Rodrigo Lacasak eta Xabi Larreak sortu zuten 2013an, guztiek 15 urteko ibilbide profesionalarekin bizkar gainean.

## Perlatak San Fermin jaietan joko du hurrengo zuzeneko

Laukote arrasatearrak ez du geldi egoteko asmorik. *Nondik hasi* lehen lana kaleratu eta urtebete eskas igaro ondoren lan berria dute besapean, *Urrezko kaiola* izeneko.

San Juan jaietako domekan, diskoa aurkezteko lehen kontzertua egin zuten Osorik tabernan, eta hurrengo geltokia Iruñean izango dute, uztailaren 12an.

San Fermin jaien baitan, Iruñeko Herriko Tabernan joko dute, zeresan handia ematen dabilen Rotten XIII talde nafarrarekin batera. Datorren asteko GOIENA aldizkarian, azken diskoari buruzko elkarrizketa izango da irakurgai.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Zifren erreinuan

18:48 dira. Duela hiru minutu eseri zara sofan. Telebista 4. katean piztu duzu. 6389848 telefonoa deika ari zaizu. Zenbakia ezagutzen duzu, alabari erosi diozun 6. mugikorra da. Entzuten dituzun negar zotinak konta ditzakezu; 7, guztira. Albiste txarren eskalan, alabarentzat 10a du, zuretzat 4a. 3,5 atera duela kimikako azterketan. Bere burua lasaitzeko, 18k 5etik beherakoa izan dutela esan dizu.

Heldu da alaba 6C ataria duen etxera, eta bere burua zenbaki hutsal batengatik ez gutxiesteko esan diozu. 120ko tentsioa duela esan diola medikuak. Etxean bero handia egiten duela eta, aire girotua, mesedez, 21 gradura jartzeko eskatu dizu alabak. Irratia 107.7an piztu duzu, afaria egin bitartean. Egun osoan garrantzia eman diezun lehen zifrak entzun dituzu orduan: "Transexualitatea despatologizatu du MOEk, 2018ko ekainaren 18an -gogorazazi beharra dago, homosexualitatea 1990ean ezabatu zuela buruko gaixotasunen zerrendatik-".

Hainbeste zenbakirekin galdu bazara, badaezpada diot, 2018a da; XXI. mendea; gezurra badirudi ere.

# Hurrengo urtera arte agurtu da Anbotoko Mari

Aurtengo jaietako nobedadeetako bat izan da hura udaletxeko balkoira jaitsita eta astelehenean kontrako bidea eginda hasi eta bukatu direla. Eraso sexisten aurrean erantzuteko protokoloa ere izan da berria; ez da erabili. Ederki joan dira sanmartinak

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Sorpresa zen, eta jendeak pozik hartu zuen: Anbotoko Mari izan zen barikuan jaien hasiera iragarri zuena. Txupina botatzeko ohorea duela mende erdi inguru herrian ikastola sortzen jardun zutenek izan zuten; omenalditxo egin zieten, bide batez, Ana Arriolabengoa, Jesus Za-

bala eta Benito Altunari eta haiekin batera euskarazko eskola sortzen ibilitakoei. "Pozik eta eskertuta" hartu zuten haiek.

Euskarak bestelako protagonismoa ere izan zuen txupinaren bueltan, nahiz eta jaiekin zuzenean lotutako ekintza izan ez, plazan herritar ugari zegoen momentua aprobetxatu baitzu-

ten Euskaraldirako herriko hamaikakoa aurkezteko.

Zapatuko patata-tortilla txapelketan sei parte-hartzaile izan ziren, hiru gazteetan eta hiru nagusietan, eta ama-semeentzat izan ziren bi sari nagusiak: Jakeline Elkorobarrutiarentzat eta Aimar Arriolabengoarentzat. Astelehenean, berriz, Ana Ma-

riarenari eta lagunei eman zieten moztorra onenaren saria.

Gazte Asanbladak antolatuta ere hainbat lehiaketa eta sari izan da jaietan: *Berbapasia* Miren Herizek eta Maider Aldaik irabazi zuten; film laburren lehiaketa, herriko neska talde batek egindako *Humus 2018* lanak; kuadrillen arteko pikean Humus Sapiens izan zen sei taldeetan onena; eta *juergista* onenari Urrezko Gibela Mikel Ruiz de Azua *Marto*-ri eman zioten.

**Erasoen aurkako protokoloa**

Aurrez Eguzkierripa Rocken egin bezala, herriko talde feministak indarrean izan du jaietan ere eraso sexistei aurre egiteko protokoloa. Jakinarazi dutenez, jaietako lau egunetan ez da protokoloa erabili.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

## Bat, bi, sei

Bat: jolasak. Bi: arkatza. Hiru: kalkulgailua. Lau: letrak ala zenbakiak? Bost: batxilergoa ala modulua? Sei: aukeratu bat bakarra, hori izango da zure bizitzaren oinarria. Eta ni: zer?

Azkar gertatzen da, aurreneko arkatza erabiltzen ikasten dugunerako gradu ezberdinen abantailak eta desabantailak idazten gabiltza.

Gure bizitzako aukerarik garrantzitsuenak delakoan, bat-bateko urduritasuna, segurtasunik eza eta beldurra dira sintoma ohikoak, eta "USE gaitutiko al dut?" edota "Behar dudana nota lortzeko gai izango al naiz?" galdera zailenak, hauen erantzunek sintomak baretzeko edota areagotzeko ahalmena dute eta. Eta ni: zakarrontziko paper guztietako abantailek hartu beharreko erabakia errazten zidaten arren, ezin.

HH, LH, BHI, DBH, Batxilergoa eta Unibertsitatea bide dotoreena dela irakatsi digute, garbia, akatsik gabekoa, harrotasuna dakarrena; medikuntza, boteretsuena; eta filosofia, alferrikakoa. Modulua? "Ez nago ziur". Musika? "Oinarritziko gradu bat ikasi ondoren". Adarjotze izugarria.



Azken urtebetean jaietako umeei egindako harrera. EIDER BALLINA



Umea zezenetik erortzen. IMANOL SORIANO



Papargorri abesbatzak jaiak hasi bezperan egindako saioa. ROSA MONDRAGON



Anbotoko Mari eta txupina botatzeko ardura izan zutenak. ARANTZAZU EZKIBEL



Kuadrillen arteko pikea, astelehenean. AITOR AGIRIANO

## San Kristobal eguna, Uribarriko auzotarrek antolatuta, domekan

Uribarriko auzotarrek antolatuta, festa izango da domekan San Kristobal ermita inguruan. 12:00etan meza egingo dute Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta; trikitilariak eta bertsolariak izango dira ondoren. 13:30ean bolo txapelketa, 15:00etan auzo bazkaria eta 17:00etan ipuin kontaketa saioa ere izango dira -KontukaBi-ren eskutik-.

# Aurpegia garbitu, eta martxa berrirako gertu

Basotxo erretiratuen elkartearen dagoen tabernan hainbat berritze-lan egin dituzte eta astelehena ezkerro zabalik dago. Arduradun berria izendatu dute, gainera, Juani Fabian, eta ordutegi zabalagoarekin eta ekintza mordoa egiteko gogoarekin etorri da

**Mirari Altube** ARETXABALETAK

Basotxoko taberna berritu egin dute: margotu, txukundu, argiztapen berria jarri eta altzari batzuk aldatu sukaldean. Udalararen ardurapeko tabernak, hainbat egunean itxita egon ostean, ateko zabaldu ditu itxura berrituarekin eta eskaintza zabalagoarekin. "Aurpegi garbiketa egin diogu, eta, behintzat, beste itxura bat hartu du", jakinarazi du Karmele Uribarrik, Ongizate Saileko zinegotziak, eta erretiratuen elkartearen presidente Jose Rodriguezek hauxe gaineratu du: "Bereziki, sukaldea berritu da, labe berria jarrita. Mojena izan zen sukaldea aprobetxatu da; izan ere, oso ondo dago".



Udaleko eta Basotxoko hainbat ordezkari tabernaren inauguratze ekitaldian. M.A.

## Ordutegi luzeagoa

Beste nobedade bat ere badago: arduradun berria. Eskarmentu handia duen Juani Fabianek hartuko du gidaritza, nahiz eta Mari Jose Etxebarriarteunek ere jarraitu lanean. Erabiltzai-

leen nahiak ase guran, hainbat aldaketa egingo ditu: egunero zabalik, ordutegi luzeagoarekin: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 21:00etara eta aste bukatertan 10:00etatik 21:00etara; pintxopotea egingo dute eguaztentean;

eta andramaixetan zabalik izango da, abuztuaren 1etik 19a arte, hain zuzen ere. Irailetik aurrera, gainera, nobedade gehiago izango direla dio: "Txapelketak, dantzaldiak, bingoa, txokolatjana... ikusiko dugu".



Eguazten iluntzean Herriko Plazan egindako elkarretaratzea. M.A.

## Dispartzio politika salatu dute, domekako ezbeharrak dela eta

Garikoitz Garcia Arrieta presoak bisitatzen zetozen bi aretxabaletarrek auto istripua izan zuten Teruelen

**M.A.** ARETXABALETAK

Picassenten (Valentzia) dagoen Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarren bi lagunek auto istripua izan zuten domeka arratsaldean, Teruel inguruan, hura bisitatzen zetozela. Susto galanta hartu zuten, baina ez zuten zauri larrik izan.

Ezbehar hori eta dispartzio politika salatzen eta, era berean, senideei eta lagunei babesa adierazteko elkarretaratzeak deitu zituen Etxeretek hiriburuetan; Artxabaletan ere hainbat herritar elkartzaren, eguaztentean, Herriko Plazan.

## "Premiazkoa" gerturatzea

Ettxerat-en esanetan, "dispartzio politikaren erruz" gertatutako aurtengo laugarren istripua da, eta gogorarazi gura izan dute Garikoitz Garcia Arrieta etxetik 540 kilometrora dagoela. Horregatik, "premiakoa" dela presoak hurbiltzea ohartarazi du, eta salatu "egungo Espainiako espartxe politikak presoaren eskubideez gain, senideen eta lagunaren eskubideak" ere urratzen dituela.


Elkarretaratzeen bitartez, dispartzioari ezetz esan diote herritarrek Garcia Arrietaren senideekin eta lagunekin batera.

## Basotxoko taberna berritu egin dute; zelan dago?



**JUANI FABIAN**  
TABERNAREN ARDURADUNA

"Gogotsu eta ilusio handiarekin nator, beste martxa bat eman eta giro polita sortzeko gogoz... Ea erretiratuek gain gainerako herritarrek ere sartzen diren. Goizago zabaldu eta gosariak emango ditugu, baita pintxoak ere. Uda sasoiak ez da garai ona, baina irailtik aurrera indartuta ekingo diogu lanari".



**ANA MARI ARETXAGA**  
ERRETIRATUA

"Aurpegia garbitu diote eta ondo geratu da. Asko etortzen gara gu; lehenengo, kantu entsegura joan, eta gero, hona etorri. Meriendak ere egiten ditugu, urtebetetzeak ospatzeko. Musika jarriko nuke, dantzan egiteko, ez daukagu inon eta... Gainerakoan, oso giro polita egoten da".



**JOXE KORTABARRIA**  
ERRETIRATUA

"Ez da askorik aldatu, baina ondo dago. Ni egunero etortzen naiz; eguerdian sagardotxo bat hartzen dut eta arratsaldean, partida. Lagunekin elkartzen naiz jokoan egiteko, baina gero eta gutxiago gara, eta, sarritan, musean egiteko lagunak falta. Ea hemendik aurrera jende gehiago datorren...".

## Dantzaldia domekan, Mikel DJarekin, komentuko lorategian

Kale antzerkiaren tartean, Trapu Zaharra etorriko da eguaztentean eta Zirika Zirkus egunean

**M.A.** ARETXABALETAK

Mikel DJak dantzan jarriko ditu domekan (18:00) komentuko lorategira gerturatzen diren herritarrek. Basotxo erretiratuen elkarteak antolatutako dantzaldia da, eta Dantza Astearen erretiratuendako egindako dantzaldiak izandako arrakastaren ostean dator.

Uztailaren 22an, domeka, bigarren dantzaldia izango dute, lorategian bertan; orduan, AZ Gaubelak bikote aretxabaletarrek jarritako musikarekin astinduko dituzte gorputzak.

## 'Etsiak' antzezlanak

Kale antzerkiari dagokionez, aretxabaletarrek ondo baino hobeto ezagutzen dituzten bi talde gerturatuko dira datorren astean (19:00): eguaztentean, Trapu Zaharra donostiarrak umore eta ironia handiarekin landutako *Etsiak* antzezlanak eskainiko die helduei Durana kalean. Eta eguenean, Zirika Zirkus taldeak aho zabalik utziko ditu neska-mutikoak jolasen eta umorearen bitartez; Araba ibilbidean izango da hori—Eguzkialde elkartearen alboan—.



# "Txikitako ametsa lortu dudala esan dezaket"

## OIHANA ALDAI FUTBOL JOKALARIA

Urtebete Zaragozan egin ostean, Realak fitxatu du Aretxabaletako atezaina, urtebeterako. Pozik agertu da fitxaketarekin, eta baita etxera bueltatzearekin

### Imanol Beloki ARETXABALETA

Oihana Aldai Aretxabaletako atezaina etxera itzuliko da. Realak haren fitxaketa iragarri du 2019ko ekainaren 30a arte. Futbol jokalaria Zaragozan eman du azken urtea, Oiartzundik irten eta gero, eta uztaile amaieran hasiko da talde gipuzkoararekin entrenatzen. Gogo biziz hartu du etxera buelta, eta ibilbide berria hasteko prest dagoela adierazi du.

### Nola jaso zenuen Realak fitxatu egin nahi zintuen albistea?

Oso pozik eta oso ilusionatuta jaso nuen albistea. Txikitatik nahi izaten da talde handi batera iristea, eta, gipuzkoarra izanda, eta Real moduko talde gipuzkoar talde potente batek eskaini izatea, ba, pentsa... Beraz, txikitako ametsa lortu dudala esan dezaket.

### Laster hasiko dituzue entrenamenduak, denboraldi berriari begira, ezta?

Aurten, liga aldatu eta aurreratu egin dute, eta uztaile bukaeran hasiko ditugu entrenamenduak. Opor gutxi izango ditudan arren, hasteko gogoz nago.

### Zaragozako esperientzia nolakoa izan da?

Esperientzia gazi-gozoa izan da. Etxetik kanpo lehenengo aldiz izan naiz, hain urrun... eta espektatiba handiekin joan nintzen hara, baina ez ziren horrenbeste beraino bete. Hasiera batean, ez nuen jokatzeko aukerarik izan, beste atezaina lesionatu zen arte. Orduetik aurrera, gus-tura geratu naiz egindako denboraldiarekin, eta, gure helburua maila mantentzea zen arren, ez dugu lortu; horrenbestez, alde horretatik, triste samar, edo hala moduz...

### Urtarrietik aurrera jokatzeko aritu zara; denboraldi amaiera ona jokatu duzu, ezta?

Denboraldia ez genuen oso ondo hasi. Hasieran, sei partidu inguru jokatzeko aukera izan nuen,



Oihana Aldai, Realeko jokalaria berria. IMANOL BELOKI

## "UZTAIL AMAIERAN HASIKO DITUGU ENTRENAMENDUAK, ETA HASTEKO GOGOZ NAGO"

atzamarra hautsi zuelako atezainak, baina hura lesionatu zenetik jokatzeko hasi nintzen, fitxaketa berriak ere izan ziren, eta orduan salto handi bat eman genuen. Hala ere, azken txanpan puntu gehiago lortu genituen arren, ezin izan genion mailari eutsi.

### Eta orain, Realera. Etxetik gertu. Gogoz hasteko?

Realean jokatzeko, etxera bueltatzea, oso albiste ona eta pozgarria izan da. Beste helburu batzuk dituen taldea da eta ilusionatua eta hasteko deseatzeko nago. Aurten, Erreginaren Kopako formatua aldatu egin da, eta, talde guztiek jokatu dugun arren, dinamika berria izango da eta gogoz nago.

### Talde berriekin egon zara dagoeneko?

Batzuk ezagutzen ditut, eta egon naiz eurekin. Pozik agertu dira.

Horietako bat, gainera, oso lagun mina dut, eta asko poztu zen albistea jakin zuenean.

### Poztasun horrekin, emaitzak ere halakoak izango dira?

Bai, bai, hori seguru. Urtero gauza berriak ikasten dira, hobetzen joateko, eta ikasteko aukera emango dit Realak. Gainera, ni prest nago dudana guztia emateko, eta baita disfrutatze ere, Realak duen mailak hori exijitu eta eskaintzen duela.

### Laster hasiko duzu ibilbide berria, eta jaiegun gutxi hauetan gaztetxoekin azalpenak ematen aritu zara.

Josu Zubia ezagutzen dut, eta hark Mondraren campusera etortzeko gonbidapena egin zidan. Beraz, bertan izan naiz emakumeen eta futbolaren gaineko azalpen txiki batzuk ematen. Uste dut horrenbeste ikusten ez den emakumezkoen futbola ezagutu behar dutela gaztetxoekin, txikitatik. Garrantzitsua da. Emakumezkoen eta gizonzkoen artean ezberdintasunak egin ez ditzaten. Hainbat galdera egin dizkidate haurrek, esandakoak entzuten txintxo aritu dira eta oso gustura izan naiz.



MIKEL ZUMALDE

## Hasi dituzte udaleku irekiak

Uztaila hasi da, eta, horrekin batera, udaleku irekiak. Aretxabaletan, Debagoieneko beste herri batzuetan bezala, udalekuak martxan jarri zituzten astelehenean. 3 eta 12 urte arteko 338 neska-mutiko elkartuko dira aurten, eta 37 begirale izango dituzte guztia bideratzen; bi koordinatzaile ere izango dira. Ilusioz eta gogoz hasi dira batzuk zein besteak.

## Badator kuadrillen arteko VII. Zazpiko Futbol Txapelketa

Hainbat bide egongo dira uztailearen 21erako UDAK antolatutako txapelketan izena emateko

### Mikel Zumalde ARETXABALETA

Zazpigarrenez jokatu dute Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa, UDAK antolatuta. Uztailearen 21ean, zapatuan, izango da, Ibarra futbol zelaietan. Izena emateko hiru bide jarri dituzte: Instagramez, @udaretxabaleta; Whatsappez, 635 20 64 33; eta posta elektronikoz, udaretxabaletake@gmail.com.

Txapelketa uztailearen 21ean izango da, eta izena emateko azken eguna uztailearen 19a da. 16 urtetik gorakoek har deza-

kete parte, 2002an jaiotakoek barne.

Talde bakoitzak arduradun bat izendatuko du eta haren telefono zenbakia jakinarazi behar du; baita 100 euro sartu ere Laboral Kutxako kontu honetan: ES 93 3035 0002 16 0020703093.

Guztira, 1.000 euro banatuko dituzte saritan; lehenengoari 600, bigarrenari 300 eta hirugarrenari 100. Urteotan izandako hazkunde nabarmena da, geroago eta jende gehiagok parte hartzen du eta.

## Gaur egingo dute UDAREN URTEKO BATZARRA, ARKUPEN

18:30ean batuta, gai hauek landuko dituzte: aurreko bilerako aktaren onarpena, 2017-2018 denboraldiaren berri ematea, 2017-2018ko diru-kontuen berri ematea, 2018-2019 denboraldiaren aurkezpena, 2018-2019ko diru-kontuen onarpena, proposamenak, eskaerak eta galderak eta ohorezko jokalariei eta bazkideari esker ona adieraztea.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# 2018ko San Pedro jaien balorazioa "positiboa" da

Eguraldiaren beldur, hainbat ekitaldi kiroldegian egin behar izan zituzten. Hala ere, han egin arren, jende asko gerturatu zen hitzorduetara, eta jaiak ondo joan direla esan dute udal ordezkariak, eta baita txosna batzordeko kideek ere

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

San Pedro jaietan denetarik izan da. Ekitaldi ugari, hainbat, eguraldiaren ondorioz, lekuz aldatu behar izan zirenak, baina partaidetza handikoak, eta "oso ondo" baloratu dituzte udal ordezkariak zein txosna batzordeko kideek.

Ikurrinari omenaldia eta Angel Bañares musika eskolako zuzendari ohiak jaurtitako txupinazoa izan dira jaietako bezperan izandako ekitaldi nagusiak, gaueko danborradarekin batera. San Pedro egunean, berriz, arrakasta handia izan duten Niko Etxart eta Puro Relajo taldeen emanaldiak izan

ziren. Zapatua ere bikain joan zen, eta, *castellers*-en ikuskizunaz gain, aipatzekoa izan da Oxabi taldeak eskaini zuen dantzaldia. Azken egunean, aldiz, herri bazkarira 400 pertsonatik gora joan ziren, eta hutsik egin ez duen buruhandien lasterketa jendetsua izan da.

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak adierazi du jaiak oso ondo joan direla: "Partaidetza oso handia izan da. Bigarren egunean egindako euriarengatik, giroan igarri egin zen; hala ere, hainbat ekitaldi kiroldegira aldatuz konpondu genuen arazoa. Formatu ezberdinean, baina ekitaldiak jendetsuak izan ziren.

Hala ere, dena ez da positiboa izan; izan ere, ganberradak ere izan ziren. Dorletako edukiontzia iraultzen saiatu ziren, batzokiaren aurkako esaldiak izan ziren...".

**Txosna batzordea, pozik**

"Zapatuko kontzertuak eta azken eguna izan ziren jendetsuenak. Kuadrillen arteko bazkari eta jokoei begira, berriz, birplan-teatu egin beharko dugu, datorren urtean hobeto irten daitezten. Hala ere, gure balorazioa bikaina da, eta eskerrik asko txosnetara gerturatu zinetenei", adierazi du Mikel Letonak, txosna batzordeko kideak.



Angel Bañares, familiarekin eta alkatearekin, txupina jaurti ostean. IMANOL BELOKI



Buruhandien lasterketan, Lander Villar izan zen garaile. AITOR AGIRIANO



Niko Etxartek kontzertua eskaini zuen, pasa den egubakoitzean. IMANOL SORIANO



Castellers-ak. IMANOL SORIANO



Euskal Jai egunean, kiroldegian, herri bazkaria izan zen. AITOR AGIRIANO

## 'Paper margotuak' erakusketa ikusgai dago Ibarraundin

Uztailaren 4an eta 18an bisita gidatuak egingo dira museotik Ganuza etxera, 18:30ean hasita

**I.B** ESKORIATZA

Ganuza etxeko paper margotuak, -Gaztañaudi jauregikoak- XIX. mende hasieran egindakoak, garrantzi handia dute, oso gutxi baitaude munduan. Haien artean, bi paper panoramikoak

dira ikusgarrienak, *Parisko monumentuak* eta *Compiègneko ehiza* erakusten dituztenak. Hain zuzen ere, *Paper margotuak* izeneko erakusketa ireki zuten Ibarraundi museoan herriko jaien aurretik, eta irailera arte

egongo da ikusgai, bertako ordutegian.

Erakusketaz gain, paper margotuak bertatik bertara ezagutzeko bi bisita gidatu egingo dira uztailaren 4an eta 18an izango dira, 18:30ean, eta Ibarraundi museotik hasiko dira. Bisitaren iraupena ordubete ingurukoa izango da eta bi talde egingo dira, bat euskaraz eta bestea gaztelez. Informazio gehiagorako, 943 71 54 53 telefonora deitu behar da.



Ganuza etxeko paper margotu bat. I.B

# Willis Drummond, Errekan Gorako lehena

Zapatuan hasiko da Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora; hamaikagarren edizioa du aurten, eta musika jaialdia Willis Drummond taldeak irekiko du. Gernika plazan izango da emanaldia, 22:20an, eta rocka izango da nagusi

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Itzelezko indarra, zuzeneko bizia, intentsitatea eta barneraino sartzen den melodiaz betetako kantuak eskainiko dituzte Willis Drummond taldeko musikariek zapatuan, 22:30ean, Gernika plazan.

Horrela emango diote hasiera Atxorrotx Kultura Elkarteok hamaikagarren Errekan Gora musika jaialdiari. Egitarauan egonkortu den leku bilakatu da Gernika plaza, eta estreinakoz izango dira Iparraldekoak herrian. Gainera, formatu berrian etorriko dira Eskoriatzara.

## Hirukote formatuan

Errekan Gora jaialdira gogo biziz datozela adierazi du Jurgi Ekiza taldekideak: "Eskoriatzara goazen lehenengo aldia da, baina izan gara zona horretan, eta beti esperientzia ona izan dugu; beraz, pozik eta gogoz joango gara. Hirukote moduan ari gara azkenaldian kontzertuak



Willis Drummond hirukotea. BLACK IZAR

eskaintzen. Nik ahotsa eta gitarrara, Xan Bidegain baxuan eta Felix Buff baterian. Hala, formatu berri hori jendearengana gehiago hurbiltzeko jarri dugu abian, eta bost diskoetako kantak eskainiko ditugu. Honekin

batera, gure managerra den Luis eta soinu eta argi-teknikariak ere gurekin izango ditugu, hauek ere taldearen parte direlako. Gainera, argi-joko berezia eskainiko dugu...".

## Disko berria, aurten

Ekizak gaineratu du aurten hirukote formatuan zuzenean grabatutako dutela diskoa, DVDarekin batera. "Laster grabatuko dugu, eta, horrekin batera, 2019an estudioko disko bat ere grabatu nahiko genuke... baina hori, aurrerago".

## Egitarau ederra aurretik

Zapatu honetan, Willis Drummond taldeak eskainiko duen emanaldiaz gain, uztailearen 13an The Farras Band izango da. Uztailearen 20an, berriz, Alai abesbatza, eta uztailearen 28an Izaro. Horrez gain, Errekan Gora musika jaialdia Atxorrotx mendiko festarekin amaituko da, irailaren 15ean.



Gaztetxoak pilotak aukeratzen Gatzagako pilotalekuan. GOIENA

## Elkartasun jaia: eskupilota txapelketarako bikote ugari

Altsasukoen aldeko elkartasun jaia uztailearen 14an izango da: pilota partiduak, bazkaria eta kontzertuak

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

*Altsasukoak aske, muntaia polizialik ez* lelopean antolatutako elkartasun jaia uztailearen 14an izango da. Hiru hitzordu nagusi prestatu dituzte: eskupilota partiduak, herri bazkaria eta rock kontzertuak.


## Bikote ugari pilota txapelketan

Eguna pilota partiduekin hasiko dute; 09:30ean hasiko dira, eta dagoeneko 20 bikotek eman dute izena. Gizonezko 16 bikote eta emakumezko 4 bikote izango dira txapelketan, eta pilota goxoarekin lehiatuko dira.

## Txartelak oraindik salgai

Herri bazkaria 14:30ean izango da: paella eta okela tomatearekin, postrea eta kafea, 15 euroren truke, eta bazkalostean jokatu-ko dira pilota finalak. Txartelak datorren astera arte egongo dira salgai -Kixkor, Inkernu eta Labidea-. Guztira, 130 txartel inguru atera dituzte, baina, datorren astean jasoko dituztenez, antolatzaileek ez dakite zenbat batuko diren. Arratsaldeko zazpietan hasita, kontzertuak izango dira. Hain zuzen ere: Krisis, Crap, State Alerta, Mareo eta Sofokaos taldeak.

## GORA ETA BEHERA



GOTZON BEITIA

## Erretxinarekin, autoak zikin-zikin

Eduardo Gorosarri plaza atzeko kalean dauden zuhaitzek askatzen duten erretxinarengatik autoak itsaskor eta zikin geratzen direla adierazi dute *Komunitatea*-ko kideek sare sozialetan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## 'Hitzen lapurra' helduentzako ipuin kontaketa Ibarraundin

Gaur, egubakoitza, Oihulari Klown taldeak aurkeztuta, *Hitzen lapurra* helduentzako ipuin kontaketa eskainiko dute Dorleta Kortazar eta Virginia Imaz ipuin kontalariek. Gu Denon Artean elkarteak antolatuta, saioa Ibarraundi museoan izango da, 19:00etan, eta ordubete inguruko iraupena izango du.

Ele bitan, ipuin bat kontatuko dute Dorleta Kortazarrek, euskaraz, eta Virginia Imazek, gaztelaraz, aldi berean. Hitzen garrantziaz, elkar ulertzeaz eta pertsona batzuen bizitza ardatz hartuta kontatuko dute istorioa. Horren ostean, kontalari bakoi-tzak bere ipuin bat kontatuko du saioari amaiera emateko.



GATZAGAKO GATZ MUSEOA

## Goierrri auzoko jaiak, bikain

Pasa den domekan, uztailearen 1ean, ospatu zituzten gatzagarrek Goierri auzoko jaiak. Jende asko batu zen Goierri auzoko ermitan San Martin eguna ospatzeko. Mezaz, trikitilariak eta luntxak gain, lauko jokoan ere aritu ziren hainbat lagun. Ganix Otazu izan zen irabazle gaztea eta helduen sailean, berriz, Joxe Manuel Lartza.

# Txotxongiloei bizia ematen ikasteko tailerra

Iñaki Mata txotxongilo-egileak hastapen ikastaroa antolatu du uztaileko. Panpina nola egiten den irakatsiko du, baina baita mugimendua emateko teknika ere. 'Muppet' deritzon teknikaren bitartez emango die bizia, hain zuzen ere, panpinei

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Gazte zein helduendako arte diziplina dela dio Iñaki Mata txotxongilo-egile antzuolarrak. Urteetako esperientzia eta eskarmentua dauka alorrean. Hala, Espainian, Frantzian eta Hego Amerikan ikasitakoa transmititzeko asmoz, uztailean Laskurain baserrian ikastaroa eskainiko du. Txotxongiloei bizia emateko teknika da *Muppet* deritzon teknika eta hori izango da ikastaroaren ardatza. "Gure esku bat panpinaren buruan sartzen dugu eta beste eskua panpinaren eskuan jartzen dugu. Txotxongiloari bizia ematea lortzen dugu modu horretan. Ikasten hasteko



Iñaki Mata eta Luki azerian. MAIDER ARREGI

oso erraza den teknika da *Muppet*, gainera", kontatu du Iñaki Mata artistak.

## Heldu zein gazte

Txotxongiloak, baina, ez direla soilik gaztetxoendako edo haurrendako argitu gura izan du Matak. Izan ere, helduendako ere hainbat onura dituela kontatu du: "Egia da gehien hurbiltzen direnak gazteak izan ohi direla; errazen etortzen dira. Izan ere, oraindik barruko panpina eta arima hori bizirik dute. Baina ez da soilik gaztetxoendako den arte diziplina bat. Helduendako ere askotariko sentazioak barruan mugiarazteko balio du modalitate honek".

## Ikastaroa, uztailean

Hamasei orduko ikastaroa eskainiko du Iñaki Mata txotxongilo-egileak Antzuolako Laskurain baserrian, uztailean. Ikasleek aukera izango dute panpinei bizia ematen ikasteko eta *Muppet* teknika ikasi eta sakontzeko. "Panpina bat egiten ikasiko dugu; eta nola mugitu behar den panpina eta norberaren bizia nola eman eta transmititu

jakiteko mugimenduak ere erakutsiko ditut. Zenbait ariketa egingo ditugu horretarako", azaldu du.

Izena emateko, [inakimata@gmail.com](mailto:inakimata@gmail.com) helbidera mezua bidali dezakete interesa dutenek, edo 655 70 96 34 telefonora deitu dezakete. Bi eguneko ikastaroa izango da eta 90 euroko kostua dauka -materiala barne-. "Ikasleek aukera dute bertan lo egitera geratzeko eta jateko".

## Urrian Bergaran

Bi urtean behin Bergaran egiten den Nazioarteko Txotxongilo Mostra, urrian egingo da aurten. XIII. edizioa izango da eta helburua aurten ere txotxongiloak kalera ateratzea eta arte hau herritarrei gerturatzea izango da: "Jendea ohitu dadin eta panpinak ez direla haurrendako soilik erakutsi gura dugu. Modalitate oso zabala eta anitza da". Matak dio txotxongiloaren artea kalera ateratzea olerki bisuala dela: "Kalean leku berri bat bilatzea eta olerki bisualerendako tokia egitea ere bada helburua; jendearengana gerturatzeke arte diziplina bat da".

## OHARRAK

### AKEren urteko batzar orokorra

Gaur, egubakoitza, egingo du Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra. 18:30ean Olaran etxeko aretoan egingo da batzarra.

### Mairuaren Alardeko entseguak

Uztailaren 11n egingo da Alardeko entsegu nagusia, 18:30ean, herriko plazan. Abesbatza, dantzariak, musikari guztiak, danbor-jotzaileak, fusilariak, buruzagia... denak batuko dira plazan. Ondoren, afari-merienda egingo da. Mairuaren Alardea egingo den egunean bertan, uztailearen 14an, entsegu orokorra egingo da, 18:00etan, eskolako patioan.

### Larrain dantzako entseguak

Uztailaren 10ean, martitzena, larrain dantzako entseguak egingo dute herritarrek, Oinarin dantza taldearen laguntzarekin. 20:00etan eskolako patioan egingo da.

**helburu** 672 69 66 30  
Kalebarren 1 • Antzuola  
[helburu@helburu.com](mailto:helburu@helburu.com)  
zune hezkuntza akademia

Ondo pasau jaixetan!

RPS: 306/13  
**HORTZ KLINIKA**  
Ana Sainz Malkorra  
Mediku estomatologoa  
Elkargokide zk.: 20000437

**PADI • Odontologia orokorra**  
Periodontzia eta inplanteak

**ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!**  
Herriko Plaza 4, behea 20577  
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

**Marilina mertzeria**

**Jai zoriotsuak antzuolar guztiei!!!**

Herriko plaza 4  
ANTZUOLA  
Tel.: 677 46 63 21

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**

Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# ANTZUOLAKO JAIAK 2018



IMANOL SORIANO

- Jai egitaraua
- Txosnetan ere... bada giro!
- Gastronomía eta hanburgesa-jate lehiaketak
- Alardeko buruzagi berria
- Kuadrillen arteko jolasak
- Umeendako ekitaldiak
- Puro Relajo mariatxiak
- Pilota partiduak



ELAY Taldea – Lizarragako Hiribidea, z/g – 20577 Antzuola (Gipuzkoa) – Tel.: 943 76 61 00 – Faxa: 943 76 62 62 – [www.elay.eus](http://www.elay.eus)



NIRE USTEZ

BEÑARDO KORTABARRIA ANTZUOLAKO ALKATEA

## Eta kitto!

Lau urte dantza simple bat ikasteko, eta ezin! Gervasio zena begira egongo balitz, ez litzateke harrituko! Izan ere, larunbat goiz bateko minutu gutxi batzuk nahikoa izan zitzaizkion konturatzeko dantza eta biok ura eta ardoa bezain gaizki konpontzen ginela. Eskerrak beste ezer ez dudan/duzuen erabakitzen bitartean, aurtengoa, oraingo, azken aldia izango den!

Dantza eta biok, ura eta ardoa. Uretik nahikoa eta gehiegi izan dugu iaztik hona, udaren atarian bertan kalte egiteraino. Obra erraldoi amaiezin hori ez balitz hor egongo, todounoa tonaka etorri ez balitz...

Erremediorik gabeko kalterik ez zela gertatu eta, beharraren aurrean, herritarrek izan zenuten erreakzio paregabea, horretxek ditugu ospatzeko motibo handienak aurtengo jaietan. Hortaz, urak tregua eman diezagula, eta egin deiogula bide ardoari. Hori bai, neurrian, bizipozaren mugatik pasa barik. Topa Antzuolarengatik!

Hik ere topa egin, Eltzikorta, nahiz eta derrigor urarekin egin beharko duan; baita egun hauek ospitalean pasa behar dituan antzuolarrak ere; hizkuntzak ikastera kanpora joan behar izan duan gazteak... Eta jakina, Antzuolan zauden antzuolar, ez geratu etxean, irten etxetik, hartu kalea, gozatu eta gozarazi! Ondo pasatu eta kitto!

# EGITARAUA

## ZAPATUA 7

09:0 eta 16:00 BIZIKLETA JAITSIERA.

## DOMEKA 8

09:00 TXIRRINDULARI LASTERKETA. 73. Antzuola saria. Iñaki Lete 26. oroigarria.

14:00 ERRETIRATUEN BAZKARIA Herri Ikastetxean. Gero, dantzaldia.

## EGUENA 12

12:30 JAIEN HASIERA, Plazan. Ume sahararrei ongietorria eta umeen ikuskizuna.

13:30 UMEEN HERRI BAZKARIA, Pausokaren eskutik.

18:00 KALEJIRA Alborada txistulari taldearekin, trikitilarekin eta buruhandiekin.

18:30 TXOSNEN IREKIERA.

19:00 BERTSOTAN, txosnetan.

19:00 MEZA ETA SALBEA.

19:45 ANTZUOLAKO ZAPIA JARTZEA 2017ko eta 2018ko jaiak bitartean jaiotako umei eta herriko bi nagusienei.

20:00 IKURRIN DANTZA Oinarineko dantza taldearekin. Aurten dantzan hasi direnen lehen saioa. Ondoren, Antzuolako BANDERA ETA IKURRINA JASOTZEA eta UDALBATZAREN AURRESKUA.

21:30 Bentazarreko Mutiko Alaia taldearekin KANTU AFARIA, plazan.

23:50 MAHAI ETA AULKIAK JASOTZEA.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA, Plazan. Ondoren, 01:00 arte, kalejira Bentazarreko Mutiko Alaia taldearekin.

02:00 JOKOAK, txosnetan.

## EGUBAKOITZA 13

10:00 Alborada txistulari taldearekin GOIZERESIA.

10:30 GASTRONOMIA LEHIAKETA, Kalebarrean. Aurten: arroza edo paella egitea.

11:00-13:30 UMEEN JOLAS PARKEA, patioan.

12:00 MEZA NAGUSIA.

12:30 MIKRO IREKIA.

13:00 Gastronomía lehiaketako SARI BANAKETA.

13:15 ARROZ DASTATZEA, Kalebarrean.

14:30 HERRI BAZKARIA, Kalebarrean.

16:30-18:30 Jolas parkea, patioan.

18:00 KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK herrian zehar Gesaltza txarangarekin.



# ANTZUOLA JAI XETAN



ANTZUOLAKO  
UDALA

www.antzuola.com  
www.antzuolakoalardea.com

*Ondo pasau!*

*Xenkona*

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Ikastaroak
- Gozokiak
- Osagaiak

*Ondo pasau jaixak!!!*





GOIENA

**Dantzak jaien hasieran**

Eguenean, ikurrin dantza Oinarinekin; herriko bandera eta ikurrina jasotzea eta udalbatzaren aureskua izango dira.  
**Plazan, 20:00etan**

ELEKTROTARANGA herriko kaleetan zehar.

**22:30** ZESENSUZKOA, Plazan.

**22:45** Obaneuke taldearekin ERROMERIA, plazan.

**23:00** KONTZERTUAK, txosnetan: Marianitox Blai, Stai Zitto eta DJ Javi.

**DOMEKA 15**

**12:30** TOR MAGOA, Plazan.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Ez Dot Moztuko Bizarra-k antolatuta, plazan.

**16:30** KANTALDIA, plazan.

**18:30** FILAMENTO FAROLARIAREN IKUSKIZUNA, plazan.

**20:00** LARRAIN DANTZA Oinarin dantza taldearekin.

**20:30** PINTXO DASTAKETA, AKeren eskutik, plazan.

**20:45-22:00** DJ-KI, Iñigo Plazaola DJa, plazan.

**23:00-00:00** DJ-KI, Plazan.

**00:00** HONTZAREN IGOERA.

**00:15-01:00** DJ-KI, Plazan.

**Oharrak**

• **Barrakak.** Bueltaren prezioa: 1,70 euro. Lau bidaiak: 6 euro. Domekan, Umeen Eguenean, buelta bat: 1,20 euro. Orduetgia: 12:00-14:00 eta 17:00-1:00. Zapatuan, 12:00-14:00 eta 19:00-01:00.

• **Ibilgailuak aparkatzeko debekua.** Uztailaren 10etik (asteartea) 17ra (asteartea): Herriko Plaza, eskola aurrealdea, eskola eta eliza artean, Kalebarren 1, Sagasti 1etik gaztetxeraino.

• **Kalea, itxita.** Kalea zirkulazioarendako itxita egongo da jaietan: Kalebarren 17tik -zubia barne- Buztinzuri 15era eta Sagasti 1etik gaztetxeraino.

**19:00** PILOTA PARTIDUAK: Garitano eta Etxezarreta, Sagastumeren eta Jauregiren kontra; Murua eta Salegi, Abxotegiren eta Balerdiren kontra; Etxeberria eta Erostarbe, Mendizabalen eta Merino I.aren aurka. Sarrerak: behean, 10 euro; goian: 5 .

**20:00** HANBURGESA JATE LEHIAKETA, Xinkonaren eskutik, Buztinzurin.

**23:00-01:00** Puro Relajo MARIATXIAK, Plazan.

**23:00** Kontzertuak, txosnetan: Klak!son, Kobrazulo eta Oharkabe.

**ZAPATUA 14**

**09:55** KANOIAK SUTZEA, Plazan.

**10:00** ALBORADA txistulari taldearekin goiz-eresia.

**11:00** Umeentzako eta helduentzako MAHAI JOLAS BERRIAK probatzeko eta ikasteko aukera, Jolasenea elkartearen eskutik. Plazan.

**12:00** UMEENTZAKO JOKOAK, Buztinzurin, Xinkonaren eskutik.

**12:30** BERGARAKO BANDAREN

KONTZERTUA, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. Zurrategin.

**15:00** BAZKARIA TXOSNETAN. Bazkalondoren, bazkalosteko kontuak.

**17:00** Gorka: TXONTXONGILOAK, IPUINAK, ABENTURAK... umeendako, kanpo beltzean.

**19:00** MAIRUAREN ALARDEA. Desfilea herrian zehar; ekitaldi nagusia, plazan. Aurten, Lander Dominguez buruzagi berriarekin.

**20:30** Erre Ke Erre



*Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!*

Ondarre, 9 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 62 45  
garitanosl@gmail.com



**MUJIKA HARATEGIA**

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak



**Jai Zoriontsuak!**

# Txosnagune barik ez dago herriko jairik

Txosna batzordeak gertu dauka jaietarako egitaraua, askotariko ekintzak izango dituena. Aurten, lehen aldiz, bazkaria egingo dute zapatuan, baina, horrez gain, zuzeneko musika, jolasak eta gaupaseroentzako mokadutxoak ez dira faltako

## Xabi Gorostidi ANTZUOLA

Antzuolako jaietan txosnak jaietako kokaleku estrategiko izango dira, beste behin, eta aurten, gainera, hainbat berritasun izango dira gunen horretan.

Lehenik eta behin, bazkaria egingo dute zapatuan. "Orain arte, zapatua elektrotzarangarekin hasten genuen txosnetan. Baina goizaldetik gauera arteko ekintzak egiteko grinak bultzatuta, bazkaria egitea erabaki dugu aurten. Bertara joateko txartelak salgai daude Haitz Garbi tabernan. Datorren aste-ara arte txartelak erosteko aukera izango da, baina eskertuko genuke lehenbailehen erostea,



Marianitoz Blai taldeko bi kide. M. BLAI

ahal bada aste honetan, erosketak lehenago egin ahal izateko".

Beste berritasuneko bat da egubakoitzeko kuadrillen jolasak txosna gunean egingo direla.

## Gaupaseroentzako mokaduak

Eguzkia irten arte parrandari eusten dioten horiek ez dira gosez hilko. Ohera tripa beteta sartzeko, txosna batzordekoek bi gosaritxo prestatu dituzte: zapatu goizaldean ogia eta gazta eta domekan mazedonia. "Lehen, sandwichak jartzen genituen. Baina herriko gazte batzuk ogia egiten hasi direnez, euren ogia eta Antzuolako baserri bateko gazta jarriko ditugu".

## Txosna batzordearen egitaraua

Hona hemen eguenetik domekara bitartean antolatu duten ekintza sorta interesgarria.

### Uztailak 12, eguna

- **18:30** Txosnen irekiera.
- **19:00** *Bertxortan* antzerkia.
- **02:00** Jolasak txosnetan: kuadrillak antolatuta, zaku lasterketak eta antzerako jolasak egingo dituzte.

### Uztailak 13, egubakoitza

- **12:30** Mikro irekiera
- **18:00** Kuadrillen arteko jolasak: aurten, lehen aldiz, txosnagunean egingo dituzte.
- **23:00** Klak!son, Kobrazulo eta Oharkabe taldeak txosnagunean oholtzara igoko dira.

### Uztailak 14, zapatua

- **07:00** *Ogixa eta gazta*: Antzuolan bertan egindako ogia eta gazta jateko aukera paregabea.
- **14:30** Bazkaria txosnagunean. Txartelak salgai daude Haitz Garbi tabernan.
- **17:00** *Bazkal ostekuak*.
- **20:30** R Ke R elektro txaranga txosnagunean.
- **23:00** Stai Zitto, Marianitoz Blai eta DJ Javi Laz artisten musika txosnagunean zuzenean.

### Uztailak 14, zapatua

- **07:00** Mazedonia dastatzea.
- **07:05** Bizi ala iraun.

SUKALDEKO ALTZARIAK

# Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkiocinas.com

ONDO PASA  
ANTZUOLAKO  
JAIK!

Dibertsifikazioa eta pertsonetako konpromisoa dira gure etorkizuneko bermea

FINKAPEN SOLUZIOAK

SARBIDE AUTOMATIKOAK

PLASTIKOAK

www.erreka.com





lazio gastronomia lehiaketan, patata-tortillak prestatu behar izan zituzten; aurten, arrosa. GOIENA

# Hanburgesa-jate eta arroz lehiaketak jaietan

Gastronomia lehiaketa izango da, beste behin, Antzuolako jaietan. Edozelan ere, nork ondoen sukaldean aritu bakarrik ez, jateko duten gaitasuna ere erakutsi beharko dute. Izan ere, hanburgesa jate lehiaketa antolatu dute

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Jateko kontuekin lotutako bi lehiaketa izango dira; biak ere, uztailearen 13an, egubakoitzean. Goizean gastronomia lehiaketa izango da eta arratsaldean, jendea oraindik gose bada, hanburgesa jate txapelketan parte hartu ahalko da. Hamaiketean hasita, aurten, arrosa prestatu beharko dute lehiakideek. Parte hartzaileek ordu eta erdi izango dute, 12:30 arte. Sariak banatu ondoren, lehiaketako arrozak dastatzeko aukera izango da.

Bestetik, aurten lehenengoz, eta gaztetxoek proposatuta, hanburgesa jate lehiaketa egingo da. Kuadrillen jokoen ostean etorriko da, 20:00etan, Buztin-zurin, Xinkona aurrean. Banaka, hanburgesa zeinek azkarrago jan arituko dira. Parte hartzaileek Xinkonak jarritako hiru hanburgesa jan beharko dituzte, eta denbora laburrenean egiten duenak irabaziko du. Dena den, gehienez, bi minutu baino ez dituzte izango ogia, haragia eta gazta duten hanburgesak jateko. Horretarako, eta eztairitik errazago pasatzeko asmotan, uraren,

maionesaren edota ketchuparen laguntza izango dute.

**50 euroko saria**

Parte hartzeko 3 euro ordaindu behar dira eta hanburgesa janean trebeenak 50 euroko saria eramango du, Xinkonan gastatzeko. Gastronomia txapelketan izena ematea doan da, baina partaide bakoitzak bere tresnak eraman behar ditu. Udalak arrosa, olio eta gazta jarriko ditu eta lehiakideen esku jarriko ditu lagatzeko moduan dituen hainbat su-bonbonarik gabe eta paella-ontzia. Dena den, ez da ziurtatzen azken tresna horiek denentzat egongo denik. Izenak emateko azken egunak hauek dira: uztailearen 6a, arroz lehiaketarako; eta uztailearen 9a, hanburgesa jate lehiaketarako. Udalera deituta (943 76 62 46) edo mezu bat bidalita [kultura@antzuola.eus](mailto:kultura@antzuola.eus)-era.

**GEHIENEZ, MINUTU BI  
IZANGO DITUZTE  
HANBURGESA AHALIK  
ETA AZKARREN  
JATEKO**



## amaia

Kalitatezko produktuak  
Bertako produktuak  
Produktu ekologikoak

*Ondo pasau  
Antzuolako jaietan!*



Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



**Gabilondo - Arregi**

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela




**Ondo pasau jaixak!!!**

**KALEBARREN 5**

**943 76 62 90**

**ANTZUOLA**

# Mairuaren Alardearen buruzagitzan aldaketa

18 urtean buruzagi izan ostean, Joseba Iparragirrek testigua pasa zion iaz Lander Dominguezi, eta aurtengo Mairuaren Alardean beteko da lekuko aldaketa hori; buruzagi berriak aitortu du "motibazioz gainezka" dagoela, baina baita "urduri" ere

**Eneko Azurmendi** ANTZUOLA

Lander Dominguez izango da 2018ko Mairuaren Alardeko buruzagia, Iparragirreri lekukoa hartuta. "Motibazioz gainezka" dago, baina urduri ere bai. "Egunak pasa ahala, gorantz doaz urduritasunak, egun handia geroz eta gertuago sentitzen dudalako", adierazi du. "Egun handi" hori uztailearen 14a izango da, eta, buruzagi izango zela jakin zuenetik, egutegian ondo markatuta dauka Dominguezek. Orain, atzera kontaketa hori bukaerara heltzear dago.

Lan handia egin du buruzagi berriak testua ikasten, eta orain, "detalle txiki" batzuk baino ez

zaizkio falta. "Testua perfekzionatzea falta zait oraindik: pausak non egin eta zenbatekoak egin, noiz intonatu, eta abar".

Horri lotuta, Iparragirrek eman dio aholkuren bat edo beste: "Bere egunean esan nion lasai jokatzeko, erritmoa, arnasketa eta denborak ondo kudeatzeko. Patxadaz jokatzeko eta ondo ahoskatzea ezinbestekoa da".

**Lekukoa, "esku onetan"**

Iparragirrek aitortu du "esku onetan" utzi duela buruzagitzan, eta lasai dago. "Gogorragoa izango litzateke ordezkorik ez egotea, eta utzi behar izatea. Baina ikusita Landerrek nolako gogoare-

kin hartu duen lekukoa eta nola dabilen lanean, oso pozik nago".

Gainera, motibatuta ikusten du Dominguez, baita maila ona emateko gai ere. "Oso gai ikusten dut ondo egiteko, eta iruditzen zait hala egingo duela".

Buruzagi ohiak beste zeregin batzuk izango ditu aurtan. "Oraindik ez dakit zer egingo dudan, baina parte hartuko dut. Zaldi gidari lanak egingo ditut, agian".

**Janzkera ere, berria**

Buruzagia ez ezik, janzkera ere berria izango da aurtan, nahiz eta ez den aldaketa nabarmenik izango. "Kapela, adibidez, beste kolore batekoa izango da".



Dominguez eta Iparragirre, lekuko aldaketa irudikatzen. ENEKO AZURMENDI

**"TESTUA ONDO BARNERATUTA DUT, PERFEKZIONATZEA FALTA ZAIT ORAIN"**

LANDER DOMINGUEZ

**"ORAIN ARTE IZAN EZ EZ DUDAN LASAITASUNA IZANGO DUT"**

JOSEBA IPARRAGIRRE





**Zabalo Iturgintza S.L.U.**

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Bero-aurrezteak
- Berogailuak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBArekin bidez
- Aire egokitua
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxa: 943 76 64 73



**AITZ GARBI**      **ONDO PASA**      **ARIN**

**LARREA**      **JAIK!**      **ONGI ETORRI**

**GAILUR**      **EGIN TOPA GUREKIN!**      **KOKKOR**

# Kuadrillak, nor baino nor gehiago bazkariaren bila

Nork bere alkandora edo kamiseta jantzi eta elkarren artean lehia ibiliko dira Antzuolako kuadrillak ostiralean. Herri bazkariaren ostean, Zurrategin bildu eta bertan ekingo diete jokoei, Gesaltza txarangak girotuta

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Hirugarren urtez antolatu dituzte kuadrillen arteko jokoak. 2016a ezkerro jai parte-hartzai-leagoen aldeko apustua egin, eta ordura arte ohikoak ziren zezen txikiak eta Joselu Anaien ikuskizuna egitarautik kanpo uztea erabaki zuten. Horien orde z gehitu ziren ekintzetako bat da kuadrillen arteko txapelketa.

Herri bazkariaren ostean, 18:00etan, kuadrillakoen artean taldea osatu eta hainbat proba-ri aurre egin beharko diete parte hartzea erabakitzen duten antzuolarrek. Usoa Agirre Kultura zinegotziaren esanetan,



lazo kuadrillen jolasen irudi bat. AITOR GARITANO

"indarra alde batera utzi eta trebezia baliatzeko jokoak pres-tatu ohi dira, edozeinek parte hartzeko moduko jokoak izateko asmotan". Helburua lagunartean ondo pasatzea da.

**Gazteendako eta helduendako**

Aurreko urteetan, herrian zehar egin izan dira jokoak, baina aurten, Zurrategin izango dute leku finkoa. "Bazkaria luzatuz gero, kuadrillak ez ziren ondo iristen jokoetara, eta gero, luzerako joaten ziren. Aurten, beraz, leku bakarrean egingo dira eta ordubete iraungo dute, pilota partiduetara joan nahi duenak denbora izan dezan", azaldu du Agirrek.

Parte hartzeko baldintza bakarra, DBHko lehen mailatik gorakoa izatea da. Hortik aurrera ez da adin mugarik. Taldeak zortzi lagunez osatuak izango dira, gehienez, eta kuadrilla garaileak Antzuolako jatetxe batean afaria edo bazkaria irabaziko du, 200 euro artekoa. Udaletxera deituz edo [kultura@antzuola.eus](mailto:kultura@antzuola.eus) helbidera idatziz eman daiteke izena, uztailaren 6a baino lehen.

## Aspertzeko denborarik ez dute izango txikienek

Udalekuetako umeen ikuskizunarekin eta Saharako haurrei egingo zaien ongietorriarekin egingo dute eztanda Antzuolako jaiek eguen eguerdian. Gerria mugitu eta gero, umeek herri bazkaria izango dute eskolako patioan, eta, tripa ondo beteta dutela, 18:00etan, buruhandiekin kalejiran ibiliko dira.

Egubakoitzean, jolas parkean jolasteko aukera izango dute. Eskolako patioa puzgarriekin, mahai futbolekin eta bestelako jokoekin beteko dute bigarren egun horretan.

Zapatuan, umeendako eta helduendako mahai jolas berriak probatzeko aukera egongo da lehenengoz, 11:00etan, plazan, eta 12:00etan jokoak Buztinzur-in, Xinkonaren eskutik. Bazkalostean, Gorka eta bere txotxongi-loak kontu kontari ibiliko dira kanpo beltzean, 17:00etan. Jaien azken egunari aurre egiteko, Tor magoak trikimailuz betetako ikuskizuna eskainiko du plazan, 12:00etan.

**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!



**oerlikon**  
balzers

Ondo pasau  
jaixetan!

Oerlikon Balzers  
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2  
20577 Antzuola  
Tel.: 943 76 62 08

[info.balzers.es@oerlikon.com](mailto:info.balzers.es@oerlikon.com)

[www.oerlikon.com/balzers/es](http://www.oerlikon.com/balzers/es)

# Puro Relajok mariatxi doinuz beteko du plaza

Nafarroatik datorren Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du egubakoitz gauean. Betiko mexikar doinuez gain, euskal bertsoak jotzen dituen talde horren musikaz gozatzeko aukera izango da 23:00etatik 01:00etara, herriko plazan

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

2013an hasi ziren Puro Relajo taldeko bost kideak herririk herri Mexikoko musikarik onena zabaltzen. Oibar herriko lagun horiek afari batean elkar ezagutu, eta taldea eratzea erabaki zuten. Seigarren diskoa kaleratu berri dute eta aurten bakarrik 90 kontzertu baino gehiago dituzte hitzartuta.

Rantxerak, korridoak, balsak eta latinoamerikar musika dira taldearen espezialitatea, baina, betiko kantu mexikarrak abesteaz gain, euskal klasikoetako asko moldatu eta "sentimendu eta pasioz" eroaten dituzte taula gainera. Publikoak behin eta



Naparren *El primer amor* diskoaren azala. PURO RELAJO

berriz eskatzen zien euskaraz abestera animatzeko, eta 2016ko abenduan iritsi zen *Puro Relajo canta al euskara* lana.

**Musikaz gozatzea helburu**

Taldea bi tronpeta jotzailek eta ahotsa jartzeaz gain baxua, gitarrara eta akordeoia jotzen dituzten beste hiru lagunek osatzen dute. Kideen hitzetan: "Gehien poztzen gaituena da abestea eta taula gainean aritzea; beraz, hori da egiten duguna". Duela bost urte, taldea jaiotzearen zegoela, ez zuten halako onarpena izaterik espero: "Jendearen erantzuna izugarria izan da. Eskaintzen ditugun kontzertu guztietan, publikoak gehiago eskatzen digu, disko berriak, abesti gehiago. Oso pozik gaude orain arte egindako bidearekin", diote taldekideek.

Azken urteetako egitarauarekin alderatuta, berritasuna dira aurten mexikar doinuek Antzuolako jaietan. Puro Relajoren hitzetan, jendeari asko gustatzen zaio musika estilo hori, joaten diren herri guztietan harrera "oso ona" izan ohi dute eta Antzuolan ere hala izatea espero dute.

## Mendizabal herrikidea izango da pilota jaialdiko izarra

Herriko frontoiak hiru pilota partidua hartuko ditu egubakoitzean. Duela pare bat urtera arte, gauz jokatzeko ziren partiduetan, baina iaz, arratsaldera pasatzea erabaki zuten. Aurten ere, 19:00etan hasita, binaka arituko dira lehian pilotariak.

Lehen partiduan, kadeteen txanda izango da. Hasiera batean Garitanok eta Etxezarretak bikotea osatzea aurreikusita zegoen arren, azken horrek min hartu duela eta Markez arituko da Garitanorekin batera. Bikoak Sagastumeren eta Jauregiren aurka jokatu du. Hurrengo partiduan afizionatu mailako pilotariak jardungo dute: Murua eta Salegi, Atxotegiren eta Balerdiren kontra. Hirugarren eta azken partidua profesional mailako pilotarien artekoa izango da: Aitor Mendizabal antzuolarrak eta bere bikotekide Merino I.ak Erostarbe eta Etxeberria izango dituzte aurkari.

Sarreraren prezioa 5 euro da goian eta 10 euro behean.

## Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta teknologia, Goizperren ADN. Ingurune digitalean eta 4.0an garatzen ditugure produktu eta zerbitzuak.



Industrialia



Ihinzadura



Bioteknologia

# Herriko erretiratuen bazkaria eta omenaldia

Ehun lagunetik gora elkartuko dira domekan Landatxopek antolatuta egingo duten erretiratuen bazkarian. Musikak alaituko du bazkalostea: Tomas Gesalagak eta Isidoro Martinek girotuko dute arratsaldea, nagusiek jai giroan dantza egin dezaten

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ANTZUOLA Etzi, domeka, ospatuko dute erretiratuek urteko bazkaria. Landatxope elkarteko erretiratuek urtero egiten dute ospakizun jaia. Herriko nagusiak omentzeko bidea ematen du, gainera, egunak.

## Bazkarian 100 bat bazkide

Domekako bazkarirako 100 bat bazkidek eman dute izena. Horiez gain, erretiratuen elkarteko batzordeko kideak eta laguntzen ibiltzen den boluntario taldea ere izango dira bazkarirako. "Udaleko bi ordezkari ere gonbidatzen ditugu", gaineratu du Pilar Etxanizek.

Eskolako patioan izango da bazkaria, 14:00etan. Menua izango da: hasierakoak, marmitakoak, txahal-biribilkia eta hostopiltarta izozkiarekin.

## Musika giroa

Erretiratuen Eguneko bazkaria aprobetxatzen dute herriko "bi nagusienak" omentzeko. Etxanizek esan du: "Jaietako zapia jartzen diegu bi erretiratu horiei".

Bazkalostean musika izaten dute. "Herriko musikari Tomas Gesalagak abestuko du lehenengo. Ranchera doinuak ekarri izan ditu, dantza girokoak", dio Etxanizek. Ondoren, Isidoro



laz egin zuten erretiratuen bazkarian, jendea mahaiaren bueltan. GOIENA

Martin soinu-jolearen txanda izango da. "Dantza askatuen egiteko egokiak" diren abestiak eskainiko ditu, bai euskal abestiak, eta baita bestelakoak ere.

## Elkarretaratzeak

Etxanizek azaldu du erretiratuek egin izan dituzten elkarretaratzeak bertan behera utziko dituztela uda sasoi honetan. "Aurrerago berriro ere elkarretaratzeekin hasi edo ez jakiteko, berba egin beharko dugu lehenengo, eta konpromisoak bete diren edo ez ikusi", dio.

## Astelehenera arte eman daiteke izena hanburgesa-jate lehiaketan

Uztailaren 13an izango da; jokoetako eta gastronomia lehiaketako izen-ematea gaur amaituko da

### A.E. ANTZUOLA

Jaietako barikuan, uztailaren 13an, hanburgesa-jate lehiaketa egingo dute Buztinzurin, Xinkona aurrealdean. Lehenengo aldiz egingo dute; hain zuzen ere, gazteen eskakizunak aintzat hartuta erabaki du Udalak ekitaldi berri hori jaietan sartzea.

Lehiaketa irabaziko du hiru hanburgesa denbora laburrenean jaten dituenak. Izena eman nahi duenak astelehenera arte izango du horretarako aukera. Xinkonan bertan edo udaletxera deituta edo [kultura@antzuola.eus](mailto:kultura@antzuola.eus) helbidera idatzita eman daiteke izena. Parte hartzaile bakoitzak 3 euro ordaindu beharko ditu.

### Gastronomia lehiaketa

Betiko moduan, gastronomia lehiaketa barikuan izango da. Izena emateko azkeneko eguna

gaur da, uztailaren 6a. Aurten, arroza prestatu beharko dute lehiakideek, nahi duten eran. Horretarako, Udalak arroza, gatza eta olio jarriko ditu. Gainerako osagaiak eta erabiliko dituzten ontziak eta sua parte hartzaileek eraman beharko dituzte. 11:00etan hasiko da lehiaketa eta 12:30erako sukalde lanak bukatuta izan beharko dituzte.

### Jokoetako saria, 200 euro

Barikuan bertan, 18:00etan, kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte Zurrategin. Taldeak zortzi lagunekoak izango dira. Saria izango da Antzuolako jatetxe batean afaria edo bazkaria. Udalak 200 eurora artekoa ordainduko du eta gainerakoa taldeak jarri beharko du. Gaur da izena emateko azkeneko eguna: udaletxera deitu edo idatzi beharko da horretarako.

**Itzar**  
LIBURU DENDA  
ESTANKOAK  
JAI ZORIONTSUAK!  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

**Martin Okindegia**  
Lantegia: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35  
Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Ile apaindegia  
*Bob*  
Edertze aretoa  
Ondo pasatu Antzuolako jaixetan!  
Germaine de Capuccini produktua  
Laser bidezko depilazioa  
Informa zaitez!  
Agosti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

**Nerea**  
Zorionak antzuolar guztioi!  
Kalebarren 13 ANTZUOLA  
659 57 50 97

# Bultzada berria Espaloia kafe antzokiarendako

Elgetako Udalak hitzarmena sinatuko du Kultur Hiru taldearekin. Hiru hilabeterako akordioa izango da, gauzak ondo bidean berritzen joango dena. Iker Muruamendiaraz bergararra da taldeko kideetako bat. Lehen ikuskizuna irailaren 21erako iragarri dute

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Bi aste barru sinatuko dute hitzarmena alde biek, martitzenean udalbatzak baldintzak aho batez onartu ostean. Hasiara batean, hiru hilabete iraungo du hitzarmenak; hau da, irailaren 21etik abenduaren 31ra arte. Asmoa da hiru hilabete behin berritzen joatea.

Udalak antzokiko ekipamendu guztia utziko dio Kultur Hiru taldeari, goiko jangela eta sukaldia izan ezik. Aretoak duen tabernaren kudeaketa Kultur Hiruren ardura izango da. Udalak edo bestelako eragile batek sustatutako ekintzetan ere bai, horrela eskatzen bada.

Aretoa 06:00ak bitartean zabalik egoteko baimena emango du Udalak, eta, agendak koordinatu aldera, azpiegitura erabiltzeko dauden gainerako eskaeren berri emango dio Udalak Kultur Hiruko lantaldeari.

Jarduerak, bestalde, diruz lagunduko ditu Udalak. Adostutako ekintza bakoitzeko 100 euro jasoko ditu Kultur Hiruk, eta euskaraz eginiko ekintzak bada beste 50 euro, urtean hamar ekintzako mugarekin.

## Kultur Hiruren konpromisoak

Kultur Hiru taldeak, berriz, 200 euroko bermea jarriko du, eragin daitezkeen kalteei aurre egiteko, eta 100 euroko alokairua ordainduko du. Erantzukizun zibileko poliza kontratatu izanaren agiria aurkeztu beharko du ekitaldia egin baino lehenago eta polizaren zenbatekoa, gutxienez, 50.000 eurokoa izango da.

Gastuei dagokionez, Kultur Hiru taldearen kontura izango dira: ekitaldien promozio eta hedapena karteletan, sare sozialetan zein hedabideetan, ekitaldiak babestuko dituzten RC eta TRM aseguruak, aretoaren garbiketa, soinu-teknikaria eta ekitaldiei atxikitzen zaizkien



Ametz Arzallus eta Sustrai Colina, 2016ko abenduan, Espaloian. IMANOL SORIANO

## KAFE ANTZOKIAK UDALARENA IZATEN JARRAITUKO DU ETA AGENDAK KOORDINATUKO DIRA

bestelako gastuak, hala nola zamaianak, katxeak, bidaiak, ostatuak, sarrera txartelak, segurtasuna, zerbitzariak...

Ur, argindar eta bestelako gastu korrontekak Elgetako Udalak hartuko ditu bere gain.

## "Aukera oso polita dela uste dut"

Kultura zinegotzi Janire Lazkanok azaldu du hainbat bileraren emaitza dela alde biek adostutako hitzarmena, eta Kultur Hiru taldeko kideak ilusio handiarekin eta ideia pilarekin ikusten dituela. Lokalak Udalarena izaten jarraituko du, eta bertan egin ohi diren ekintzak —Herrixa Dantzan, adibidez— egiten jarraituko dute. "Mahai bat eratuko dugu eta Kultura batzordean emango da guztiaren berri, ikusteko aretoaren erabilerarako egon daitezkeen bestelako eskaerak, izan Udalarenak izan herriko gainerako eragileek". Interesgarri ikusten du baita ere taberna zabalik egongo dela ekintza horietan. "Uste dut Espaloia dagoen moduan egonda aukera oso polita dela. Sortzen digun gastua ez da handia eta, eman dezakeen etekina balioan jarrita, balantzak argi eta garbi egiten du alde batera".



Janire Lazkano. EH BILDU

## GORA ETA BEHERA



MANOLO MONTIEL

## Txikizioak jaietako barikuan



Kaltetuak haserre daude eta ulertzekoa da. Apurketak izan dira hamar autotan, zortzi bat zaborrontzitan, Maala parkean, baserriaren postontzietan, industrialdean... Ederra egin dute!

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## Intxortako frontea ezagutzeko eskaintza berezia uztailean

Hileko lehen eta azken domeketako bisita gidatuei formatu motzagoko beste batzuk gehitu zaizkie aurtan

**L.Z. ELGETA**

Turismo teknikari Ainhoa Bernabek azaldu du ohikoak diren hiru orduko ibilbide gidatuez gain, ordu eta erdiko bisitak ere eskainiko dituztela uztailean. Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroan egiten den bisita zatia da formatu berriko eskaintzan kentzen dena. "Udan bisitak iraupenez motzagoak eta aire zabalean izateak bisitariak erakar ditzakeela uste dugu", esan du. "Bisitariak aukera paregabea izango du Asentziotik abiatuta Espainiako azken

gerrako ezaugarriak eta Intxorta magaleko baliabideak ezagutzeko, eta oroimen historikoa jorrazteko".

## Barikuetan eta zapatuetan

Uztaileko bisita bereziak barikuetan —11:00etan eta 16:00etan— eta zapatuetan —11:00etan— izango dira. Prezioa da hiru euro 12 urtetik gorakoendako. Bisita guztietarako, aurrez eman behar da izena. Kontakutak dira: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus) / 943 79 64 63 eta [turismo@elgeta.eus](mailto:turismo@elgeta.eus) / 943 76 80 22.

## Herri Eskolak 129 ikasle izango ditu hurrengo ikasturtean

Ikasle kopuruari dagokionez goranzko joerarekin jarraitzen dute Elgetako eskolan. 2018-2019 ikasturtean 129 ikasle izango ditu ikastetxean, horietatik 20 bi urteko gelan. Irakasleak, berriz, 17 izango dira. Ikasle gehienek irailaren 7an emango diote hasiera ikasturteari. Haur Hezkuntzan lau gela izango dira eta Lehen Hezkuntzan, bost.

## OHARRAK

### Euskaraldia

Batzarra astelehenean, hilak 9, 20:00etan, Ozkarbin.

### Emakume taldea

Batzarra martitzenean, hilak 10, 18:30ean, kultura etxean.

### Podologoia

Uztaileko kontsulta hilaren 19an, eguna, izango da. Txanda hartzeko, deitu: 943 76 80 77 (Nati).



Udal Gobernuako kideak, San Martin plazan: Agirre, Azkarate, Galarraga, Amasorrain, Barrenetxea, Lete, Oiarbide, Labaien eta Arregi. J.B.

# Garapena, eta herri eroso eta irisgarria iparrorratz

Orain artekoarekin "pozik", Udal Gobernuaren ardatz nagusiak dira Bergararen garapen ekonomikoa eta "herri dinamikoa, eroso eta irisgarria" lortzea; horretarako, herritarren iritzia jasotzea eta udal teknikarien aholkularitza izatea "oso inportanteak" direla diote

## Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak "pozik" dago azken hiru urteotan egindako lanarekin, eta, martitzenean orain arteko agintaldiaren balorazioa egiteko agerraldian adierazi zuten, hasierako ilusioak eta gogoak, makaldu beharrean, indartu egin dira. Bergara ekonomikoki garatzen jarraitzea,

herri dinamikoa izaten laguntzea eta bergarar guztiendako herri eroso eta irisgarria izatea dira Gobernuaren ardatz nagusiak.

## Iritzia jasotzea, "oso inportantea"

Horrez gain, diotenez, herritarren iritzia jasotzeari eta parte hartzeari garrantzi handia ematen diote. "Oso inportantea da gure

eguneroko lanean adin ezberdinetako jendearen, gizon zein emakumeen eta eragile ezberdinetako pertsonen iritziak jasotzea. Eta horiek guztiak garatzeko, alboan ditugu teknikariak, diziplina bakoitzean adituak direnak eta aholkulari zein bidelagun lana egiten dutenak", esan zuen Elena Lete alkateak.

## Eperik ez, oraingoz, aparkalekuetarako

Seminarioko patioan lur azpiko aparkalekuak egitea da Udal Gobernuaren proiektu nagusia. Uste dute aparkaleku horiek herriko garapen ekonomikoari eta herritarren zein bisitarien erosotasunari "mesede handia" egingo diotela. Joan den astean, azterketa geologikoak egiten aritu zen Ikerlur enpresa, baina alkateak oraindik ez du eperik zehaztu obren exekuziora begira: "Lehen antolamendu proposamenak mahai gainean ditugu, baina horiekin batera zenbait zalantza geologiko eta topografiko piztu zaizkigu. Ikerketaren emaitzen zain gaude, eta espero dugu hil honetan ezagutzera emango ditugula aparkalekuetarako antolamendu-proposamen ezberdinak". Gogora ekarri behar da 1.400.000 euro inguru bideratuko dituela Udalak seminario azpiko aparkalekuak egiteko; horretarako, 1.120.000 euro inguruko mailegua eskatu dute.



Ikerketa geologikoak seminarioan. B.U.

## Azpiratutako proiektuak

Proiektuen artean honako hauek azpiratu zituzten: bost kilometroko bidegorri sarea osatzea; Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berrirako lekualdaketa erraztea; Larramendiko industrialdea martxan jartzea; Gureak enpresak planta berria jartzea erakarri izana; urtarilaren 26an inauguratu zen Seminararioa aretoa; 2019an hasitako diren Labegaraietako kirolegia berritzeko lanetarako diru laguntza lortzea; hasi berri

diren Boluko frontoia estaltzeko lanak; amaitu berri duten San Martin Agirre ikastetxeako patioa estaldura; eta, baserri auzoetarako inbertsioen artean nabarmendu dituzten Uberako plaza berritu izana, "laster" hasitako diren Angiozarko beheko kaleko urbanizazio lanak edota auzo taxi zerbitzua.

Amaitzeko, alkateak azaldu zuen Udal Gobernuaren egitasmo guztietan "koherentzia, irmotasunez eta diskrezioz" jarraituko duela lanean.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

## San Pedro jaia

Aurten, San Pedro eguna jai izan da, eta 29rako jaiaren egitarauan ekintza bakarria zegoen iragarrita: hiribilduaren sorreraren 750. urteurrena ospatzeko kontzertua, ezin izan zena egin. Hau da, egun horretan Bergaran ez zen ezer egon... Edo bai, egon zen zerbait, meza nagusia San Pedroko parrokiaren bertan hirurehun lagun baino gehiago batu zirela, eta dorre ederrean kokatuta dauden hamabi kanpaien joaldi ikaragarria. Gurea estatu akonfesionala da -ez laiko- eta erakundeak libre dira nahi duten jarrera hartzeko. Erljioa ez dago modan, ziur asko ez delako eguneratu bizi dugun aro digitalera eta sare sozialetara. Nire iritziz, modan ez egote hori da, gazteek diotelako inongo elizaren jarraibideak ez dituztela jarraitu behar, eta erakunde erlijiosoekin ez dutela bat egiten.

Ostera, aldi berean, gazteak humanistagoak dira, lehen baino eskuzabalagoak eta hobeak dira premian daudenen arazoekin, eta, gainera, demokratikoak dira. Beraz, ziur naiz egitarauan meza ospatuko zela ipintzeagatik, herriko berrogeita hamar gizon-emakumek kantatutakoa, gainera, inor ez zela asaldatu.

## San Kristobal jaiak Aldai-Egian, gaur hasi eta hilaren 10era arte

Bihar auzo-taxi zerbitzua egongo da 22:30etik 08:00etara eta erabiltzaileek hamar euro ordaindu beharko dute

### J.B. BERGARA

Gaur hasi eta martitzenera arte, San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Aldai-Egia auzoan. Gaur gauean emango diete hasiera festei, "kalimotxo onarekin" bedeinkatutako urteroko pinu sartzearekin (22:00); ondoren, saiheskia eta sagardoa egongo dira inguratzen diren guztiendako, eta, aurreratutakoz, afalostean "sorpresatxoren bat" egongo da belarriak alaitzeko. Bihar, zapatua, meza (12:00) izango dute eta ondoren, auzoko erretiratuendako luntxa eta he-

rri kirolen erakustaldia ere egongo da. Etzi, domeka, Obeneuke taldearen kontzertua (23:00), eta, ondoren, urdaiazpiko baten zozketa egingo dute.

Jaiak amaitzeko, uztailearen 10ean, meza izango dute, 12:00etan, eta ondoren, trago batzuekin lagunduta eta pintxo batzuekin batera azken urdaiazpikoa zozketatuko dute. Festetako azken ekitaldia izango da auzo afaria. "Ea hurrengo urterako auzoan zer hobetu daitekeen baloratuko dugu", adierazi du jai egitarauan, ohikoa duten umore onean.

## OHARRAK

### Domeka Azoka

26 postu egongo dira etziko azokan: umeen eta helduen arropak, liburuak, artisauek, bitxiak, jostailuak... Postuak seminarioko patioan egongo dira, 11:00etatik 14:30era.

### Diru laguntza: euskara

Euskara ikasi edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko diru laguntza eskainiko du Udalak; eskaerak, irailaren 15a baino lehen: 943 77 91 66 / [euskara@bergara.eus](mailto:euskara@bergara.eus).

### Realzaleen batzarra

Bergarako realzaleek urteroko batzarra egingo dute gaur Irizar jauregian, 19:30ean. Amaieran, luntxa egingo dute euren egoitzan.

# Agorrosingo ur txorroten aurka dago EH Bildu


2019ko udarako Agorrosin ur txorroten gunea jartzeko Udal Gobernuaren proiektua ez du begi onez ikusten EH Bilduk, eta kiroldegitik kanpoko ur-parke berri bat sortzea edo baliabide naturalak aprobetxatzea gura dute: "Alternatiba polit bat sortu beharra dugu"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

EH Bilduk ez du begi onez ikusten 2019ko udarako ur txorroten gunea berria Agorrosin jartzeko Udal Gobernuak duen proiektua: "160.000 euro inguru gastatuko ditu, berez nahikoa urria den berdeguneari 150 metro koadro kenduz". Gogora ekarri dute badirela urte batzuk Agorrosingo kanpoko igerilekuetan edukiera arazoak daudela: "Herriarrek irtenbideak eskatzen dizkigute. Duela urtebete ur txorroten eremu bat sortu edo beste alternatiba batzuk aztertzeko parte-hartze prozesu bat zabaltzeko eskatu zion EH Bilduk Gobernuari eta irailetik aurrera horretan buru-belarri jartzeko konpromisoa hartu zuen".

## "Inolako lanketarik egin gabe"

Hala ere, oposizioko talde nagusiak salatu du herritarrekin eta talde politikoekin "inolako lanketarik egin gabe" ekarri zuela ur-txorrotak Agorrosingo igerilekuetan kokatzeko proposamena Udal Gobernuak, eta ur txorrotak Agorrosin jartzeak proiektua bera eta erabiltzaileak asko mugatzen dituela uste dute: "Eremuaz disfrutatze baxkide izan beharko da edo sarrera ordaindu". Era berean, egungo proposamena "hankamotz" ikus-



EH Bilduk ez du egoki ikusten ur txorrotak markatutako gunean jartzea. EH BILDU

ten dute: "Halaxe esan genion Gobernuari hasieratik, alternatibak aztertzeko eskatuz behin eta berriz. Beste askotan gertatzen den bezala, erabakia hartuta zegoen. Proiektua herritarrekin kontrastatu gabe egingo da, iritzirik ere jaso gabe, eta proiektua parte-hartzearekin mozorrotze aldera udalekuetako umeek aukeratuko omen dituzte iturrien formak eta estiloa datozen egunetan. Ariketa bera polita izanda ere, iturriek perraxiko edo lore forma izatea garrantzizkoena balitz bezala".

## Baliabide naturalak aprobetxatzea

Agorrosindik kanpo ur-txorrotak parke bat sortzearen edo herriko baliabide naturalak aprobetxatzearen alde dago EH Bildu eta Bergarak aukera handiak dituela uste dute. Inguruan dauden eredu ezberdinen artean, aipatu dituzte inauguratu berri den Mendaroko Andoneikuako berdegunea, Oñatiko Eltzia ur-parkea edo Azpeitiko Izarraitz parkea. "Zer ikasi badugu Bergaran eta gure beharretara moldatuz alternatiba polit bat sortu beharra daukagu", gaineratu dute.



Zazpi emakumezko eta zazpi gizonezko hartu zuten parte soka-dantzan. I.S.

## Dantza parekidea, eta justizia patriarkalaren aurkako aldarria

Udalak dio "gero eta txukunago" geratzen dela ingurua urtez urte, oraindik batzuek zaborra bertan utzi arren

**J.B. BERGARA**

Giro ederrean joan da aurten ere San Martzialgo erromeria. Ekaitz arriskua iragarrita bazegoen ere, eguraldiak lagundu egin zuen. Gainera, ingura gero eta garbiago geratzen da, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregiren arabera. Arregik dio azken urteekin alderatuz egoerak nabarmen egin duela hobera: "Elizatik gorako tartean, bereziki, hobekuntza izugarria izan da. Beheko partean, nerabe gehienak elkartzen diren tokian, zikinzeria bazegoen, baina ez beste urte batzuetan ikusi izan dugun beste; hobera egin du. Hori bai, oso zikin geratu ziren zelai inguruko *harmailak*, jendea eserita egoten den lekua; hor edalontzi eta botila dezente geratu ziren. Espazio komunak diren hobetzeko asko dago, baina kuadrillak elkartzen diren tokiak garbi geratu ziren, oro har".

## Dantza, erabat parekide aurten

Urteroko soka dantza erabat parekidea izan da aurten lehenengoz. "Dantzari erdiak neskek eta beste erdiak mutilak izan diren lehen aldian izan da. Bi aste lehenago elkartu eta entsegu gutxi batzuekin nahikoa izan da", azaldu zuen Leire Lazkano dantzariak. Zazpi emakumezko eta zazpi gizonezko dantzatu zuten lehen aldiz; tartean, ohi-turari eutsiz, baita udal ordezkariak ere. Gainera, geroago dantzara irten zirenen artean egon ziren Euskaraldiko *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak ere.

## 'Justizia patriarkala ez da justizia'

Elkarretaratze jendetsua egin zuten, Martxantereak deituta. *Justizia patriarkala ez da justizia* kartelaren atzean herritar asko batu ziren eta "gora borroka feminista!" eta halako oihuak entzun ziren.

**UGARTE**  
AROTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**121**  
**K**  
KALITATA

Enpresa Registrada Y002025

**Sugoi**

**ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...**

Fraskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

---

*Sukalde eta bainu enjimerak*

---

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**disdira**

**ile-apaindegia  
edertze gela**

---

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



Denboraldia amaitzeko ohiko talde argazkia ere atera zuten omenaldiaren ondoren, *betiko* zuzendaritzarekin batera. PILOTA SAILA

Zuri kantxaratu beharrean, mahoi jantzita aureskua dantzatu zieten pilotariek. P.S.



Kargua utziko dutenek "oso hunkituta" jaso zuten omenaldia. P.S.

# 'Betiko' sakeari, erresto freskoa

Denboraldia amaitzeko urteroko ospakizunean, "omenaldi hunkigarria" jaso zuen urte luzez pilota saila zuzendu duen eta kargua utziko duen taldeak, eta zuzendaritza berria hamaika lagunek osatuko dute: "Oraindik ere hunkituta nago", dio Reyes Azkoitiak

## Jokin Bereziartua BERGARA

"Urtero denboraldiari amaiera emateko bazkaria egiten dugu Elosuko elkartearen eta ohitura bihurtu da bazkalostean elkarrekin kanpoko barandan talde ar-

gazkia ateratzea. Aurten, baina, argazkia bazkaldu aurretik eta frontoian aterako genuela esan ziguten eta orain arte zuzendaritzan egon garenok erantzun genien esanez bazkaldu ostean

eta barandan ateratzen dugula beti argazki hori. Frontoira eraman gintuzten eta orduan agertu ziren mahoi jantzitako dantzariak. Oraindik ere hunkituta nago zapatukoa gogoratzera-

koan...". 30 bat urtez pilota sailako zuzendaritzan egon den Reyes Azkoitiak nekez ahaztuko du ekainaren 30ean jaso zuten omenaldia. "Erabateko sorpresa" izan zen; aureskua, bertsoa eta argazki zaharrekin osatutako oroiragarria eraman zuten etxera.

## Belaunaldi aldaketa badago

Urte luzez zuzendaritza osatu duten zortzi lagun omendu zituzten: Reyes Azkoitia, Felix Larrañaga, Luis Mari Gutierrez, Jose Mari Muruamendiarrak, Iñigo Eguren, Jose Ignacio Murguruza, Karmelo Osa eta Iñigo Zaitegi.

*Betiko* zuzendaritzaren lanak izango du jarraipena, eta lekukoa hartuko dieten kideak honako hauek izango dira: Iker Muruamendiarrak, Aitor Muruamendia-

raz, Ander Muruamendiarrak, Eloy Crespo, Jon Larrañaga, Beñat Iñarra, Aritz Rezusta, Gorka Irizar, Julen Aranburu, Aitor Oregi eta Mikel Gallastegi.

## Omenaldiaz gain, bertsoa

*Sakerako prest Reyes errestoan Guti juez arrear Iñaki atzen Joxe Mari markagailuan Felix ta flash-ean Zaitegi txuletekin Karmelo eta Iñigo beti ez deu inon ikusi lantalde hoberik.*

**FORD TRANSIT CAMPER**  
ABENTURA HASI DA

Azokan 11.000€-rainoko deskontua


[www.mugarri.eus](http://www.mugarri.eus)

**MUGARRI**

Debagoieneko kontzesionario espezializatua

FORD TRANSIT CAMPER GAMA BERRIA. KONTSUMO MISTOA: 6,1-7,2 L/100 KM. KONTSUMO GIDATZEKO ERAK BALDINTZATZEN DU. CO2 IGORPENAK: 156-188 G/KM; INDARRIEN DAJEN ARALUEN ARABERAKO NEURRIAK, BAINA EGOERA ERREALETAN ALDATU EGIN DAITEZKE.

Tel.: 943 790744 • San Andres auzoa - Arrasate



Unai Garmendia Markiegi, Aintzane Conde Sagastume eta Ugutz Basauri Ganboa, ziegan, Novedadesko bobinekin. JOKIN BEREZIARTUA

## Kartzela zaharreko ziega, zinema areto bihurtuta

"Euskal Herriko zinema aretorik txikienaren" aurrestreinaldia uztailearen 20an egingo du Dynamo zineklubak Eyharts taldearen ikuskizun batekin; Novedades aretoko 18 aulki, oihal originala eta beste zenbait apaindura ditu, zinema areto baten kutsua emateko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Kartzela zaharreko zortzigarren ziega zena zinema areto bihurtu du azken urteetan gaztetxea bera topaleku izan duen Dynamo zineklubak. "Euskal Herriko zinema aretorik txikiena" da, 18 eserleku dituena, eta, argazkiak ikusita bergarar askok gogoratuko dutenez, ez dira edozein aulki: 12 urte itxita da-

roatzan Novedades areto mitikoko eserlekuak dira. "Eraikina bota aurretik, nahi genuena eraman genezakeela esan ziguten eta orduan operatibo guztia jarri genuen martxan. Novedadeskoen eskuzabaltasuna esker-tu gura dugu", adierazi du Dynamoko kide Ugutz Basaurik.

Basaurik dioenez, lekualdaketarako elektrizitate-sorgailu bat

lortu behar izan zuten, Novedadesen ez zegoelako elektrizitate-rik, eta, horrez gain, kamioi bat, rotaflexa eta laguntzarako zenbait lagun behar izan zituzten.

**18 aulkiak igotzea, lan nekezena**  
Aulkiak ziegan sartzera izan zen lanik zailena: "Zazpi aulkiko bi ilara osorik sartzera erabaki genuen, xarma mantentzeko.

Eskaileretatik ezinezkoa zen sartzera, eta, orduan, diziplina ezberdinetan adituak diren lagunak fitxatu genituen: eskalatazaille bat, suhiltzaille bat, Udaleko brigadako lagun bat... Izan ere, sabaiko habe bat aprobetxatu genuen aulkiak poleekin eta, betiere, modu seguruan igotzeko", dio Basaurik.

**Aurrestreinaldia, hilaren 20an**  
Zinema areto berriaren inauguraziorako, aurrestreinaldi bat egingo dute uztailearen 20an. Zortzigarren ziega Jokin Guridik eta Alain Carazok osatzen duten Eyharts taldeak erabiltzen zuen entseguetarako, eta aurrestreinaldi horretan kontzertua eman-go dute ziegan bertan. Aurrestreinaldi horretarako txartela lortu duten hamazortzi lagunak aukeratuta daude dagoeneko: "Zozketa bat antolatu genuen zineklubeko gastuak finantzatzeko eta zozketa horretako irabazleek ziegarako txartela izango dute. Horrez gain, zineklubekoak eta muntatzen lagundu zigutenak egongo dira; ez dago asko betetzeko, egia esan [Barre]".

Pozik dago Basauri, aurrerantzean toki finko bat izango dutelako: "Zinema areto baten usaina eta guzti dauka dagoeneko [palomitak bertan egiteko makina badute dagoeneko]; pelikula klasikoez gaztetxean bertan gozatzeko aukera izatea ederra da. Gainera, ziegaren izaera ere bere horretan mantendu dugu, ondarea da eta".

**Hamabi urte Novedades barik**  
Dynamo zineklubak azken urteetan izan duen ibilbide gorabeheratsua egonkortuko du aretoak, eta, formatu txikian bada ere, herriko zinemazale batzuen gosea asetzeko balioko du "Bardira hamabi urte Novedades itxi zenetik; gu beti hara joaten ginen, *Harindondin*-en litxarrerriak erosi ostean. Orduetik hona, Eibarrrera edo hiriburueta joan behar izan dugu. Ez dakit herrian zinema areto beharrik dagoen edo ez, baina beste xarma bat ematen dio. Eta aukera izatea gaztetxean bertan Novedadesen kutsu nabarmena izango duen areto batez gozatzeko... Sekulakoa da", dio Dynamo zineklubeko kide Unai Garmendiak.

Hasiara batean, pelikula finko batzuk programatuko dituzte; gero, interesa agertzen duen jendearen arabera antolatuko dira.



Shirley Davis: gaur, Espoioian (22:00). B.U.

## Berumuga eta Veus abesbatza izango dira aste bukaeran

Gaur, Kataluniako Veus korua Seminarixoan (20:00) eta Ingalaterrako musika beltza Espoioian (22:00)

**J.B. BERGARA**

Uztaileko egubakoitzak musika beltzez musikatu dituen Berumuga zikloa gaur hasiko da Espoioian (22:00), Ingalaterran jaio eta Australian bizi den Shirley Davis artista handiarekin; Silverbacks taldearekin etorriko da. Dantzan egiteko "sekulako ikuskizuna" eskaintzen dute, Gaztelupeko Hotsak-eko Ubane Uzinen arabera. "Goi mailako taldea" da, eta, antolatzaileen arabera, ez da aukera askorik izaten halako talde handi batez formatu txikian gozatzeko.

Bestalde, Granollerseko (Katalunia) Veus gazte abesbatzak kontzertua egingo du gaur, Seminarixoan, 20:00etan. Sarrera doan da. Josep Vila Jover zuzendari duen abesbatza gazteak euskarazko, katalanezko eta ingelesezko kantuak interpretatuko ditu; besteak beste, Txaranggoren, Josu Elberdinen, Andrea Parodiren, Joan Vidalen eta beste musikagile batzuen kantuak.

**Kale ikuskizuna eguean**

Eta uztaileko kultura eskaintzarekin jarraituz, hurrengo eguean, hilak 12, Markeliñe taldearen *Chef Nature* izeneko kale antzerkiarekin gozatzeko aukera egongo da San Martin plazan, 19:00etan hasita.

### Azken ukituak bakarrik falta dira

Uztailearen 20an egingo duten aurrestreinaldirako azken ukituak falta dira. Sistema elektrikoa hobetzea, zinema areto baten kutsua emango dioten apainketa batzuk —led argiak jarriko dituzte filma hasi aurreko argiztapen berezia irudikatzen—... eta Novedades-eko oihal originala jarriko dute. "Benetako areto baten itxura hartuko du; hori bai, formatu txikian", diote.



Kartzela zaharreko zortzigarren ziega bihurtu dute zinema areto. J. BEREZIARTUA

# Ostalaritza arautzeko ordenantza eztabaidagai

Duela hamar urte egin ziren azken aldaketak ostalaritzako jarduna arautzen duen ordenantzaren. Berria prest du EH Bilduk eta horren kontsulta publikoa egitea onartu dute ekainean. EAJ kexu da, "modu parte-hartzaile eredugarrian" egin ez dela iritzita

## Oihana Elortza OÑATI

Ostalaritzako establezimenduen jarduna arautuko duen ordenantzaren kontsulta publiko egitea onartu zuen udalbatzak ekaineko osoko bilkuran. Udaleko webgunean jarri dute eta uztailearen 20ra arteko epea zabaltu herriarrek proposamenak egin dezaten. Erabaki horren alde agertu dira bi alderdiak, EH Bildu eta EAJ, baina prozesua egin den moduarekin ados ez daude adierazi dute jeltzaleek.

## Berria

EAJko udal bozeramaile Lourdes Idoiagak esan zuenez, "berandudator eta ordenantza hori ez da garatu sistema parte-hartzaile eredugarri baten bitartez; hau da, tabernarien, bizilagunen eta alderdi bietako ordezkari politikoaren artean. 2008an horrela egin genuen eta ikaragarria izan zen tabernarien inplikazioa. Orain ez da horrela egin, eta pena da, Kale Zaharra eta inguruko bizilagunak sufritzen ari dira eta". EH Bilduko bozeramaileak, Mikel Biainek, erantzun zion bizilagun batzuek badutela ordenantza horren berri eta denboran gehiago ezin dela luzatu: "Ikusten dugu daukagun ordenantza oso zaharkitua dagoela, eta, parte-hartze gehiagorekin edo gutxiagorekin, baina berri beharra dago. Batez ere, arrazoi tekniko eta juridikoenatik".

Ostalaritzako negozioen jarduna arautuko duen ordenantza horren eguneraketa aspalditik datorren gai bat da. Duela hamar urte moldatu zen azkenengoz. Azken urteetan zarata arazoak berriz jarri dira agerian eta zigorrak ere jaso dituzte hainbat tabernarik. Mikel Biain alkatearen esanetan, 2017ko iraileko gertu zuten euren ordenantza berria, "baina teknikariek mahai gainean uzteko proposamena egin zuten, Eusko Jaur-



Ekainaren 28an egin zen azken osoko bilkura. ANDONI BODES

## JAURLARITZAREN JOKO ETA IKUSKIZUNEN ARAUTEGIRA EGOKITU BEHARKO DA GERO

laritza joko eta ikuskizunen dekretu berria lantzen ari zela". Biainen esanetan, duela egun batzuk egindako kontsulta batetik jakin dute oraindik lau bat hilabete pasako direla hori onartu aurretik, eta egoerak gehiago irau ezin duela irizita erabaki dute ekaineko osoko bilkurara ekartzea kontsulta publikoaren erabakia. "Lehen ordenantza 1992koa da. 1996an eta 2008an aldaketa batzuk jaso ziren, baina, oinarrian, 1992koa dago eta dena berri behar dela iruditzen zaigu", esan du Biainek.

EAJri iruditzen zaio orain proposatzen den ordenantzak atzerapauso ekarriko duela, hain zuzen ere, zarata neurtzeko gailuen puntuan; ez dute uste "herriarren salaketen zain" egon behar dutenik neurriak hartzeko. "2008an onartu zen aparailu mugatzaile erregistra-

tzaile batzuk jartzea, zarataren audioa neurtzen eta erregistratzen zutenak. Emaizak udaltxean jasotzen ziren automatikoki, telekudeaketa sistemaren bitartez. EH Bilduk dio hori ez dela horrela. "Ordenantzak jasotzen du jaso behar den moduan legez taberna bakoitzak izan behar duela bere aparatua. Kontua da aurreko ordenantzaren jaso zela modelo konkretu bateko aparailua izan behar zela, enpresa konkretu batek kudeatuko zuena. Eta ikusi da ez duela ondo funtzionatu", dio alkateak.

Egin gura den ordenantza berri hau behin-behinekoa izango litzatekeela gaineratu du alkateak; hain zuzen ere, Jaurlaritzak joko eta ikuskizun arautegia onartzen duenean, moldatu egin beharko delako.

## Adierazpenak

Udalbatzak bi adierazpen instituzional ere onartu ditu: ekainaren 28ari lotutakoa, Udalak giza eskubideekin duen konpromisoa berretsiz, eta *La Manada* auziaren ingurukoa, justizia eskatuz eta Udalak berdintasunaren alde lanean jarraituko duela azpimarratuz.

## Aisialdi aukera gehiago gura ditu EAJk gazteendako

Udaleku ireki ezberdinak eta kirolguneekin aisialdigu berriak egitea dira proposamenetako bi

## O.E. OÑATI

Gazte eta nerabeendako "aisialdigu gehiago, berriak eta bestelakoak" sortzeko eskatu dio Oñatiko EAJk Udal Gobernuari.

Egindako proposamenetako batzuk dira, adibidez: 12-18 urte bitarteko gazteentzat udaleku ireki ezberdinak antolatzea –antzerki udalekuak, udaleku musikalak edota teknologikoak...– eta 14-20 urte bitartekoentzat tailer ezberdinak –sukaldaritza, karikatura, argazki urbanoa gaeuz, *parkour*-a, skatea–; baita musika kontzertu ezberdinak.

Uda sasoiari begira, aisialdigu berria egitea proposatzen du EAJko udal taldeak: "Kirol aisialdigu osatua: kanpoko igerilekuarekin, ur-jolasekin, adin ezberdinentzako ur-txorrotekin, erabilera askotariko kirol-lekuekin, mahaiekin...".

Jeltzaleek prentsa oharrean azaldu duten moduan, guraso askok kezka agertu dute gazteek aisialdia pasatzeko duten ohituren inguruan, eta gazteei eurrei galdetuta atera dituzte emaitza horiek. Islandiako eredu hartu dute adibide moduan.



AMAIJA TXINTXURRETA

## Maibi eta Arkauz, Singular

Herriko kaleei "bizitasuna" emateaz gain, duten "originaltasunagatik" nabarmentzen diren dendek jasotzen dute Singular Dendak ziurtagiria. Bezeroari erosketa-esperientzia "berezia" eskaintzen dizkietenak dira. Eta Oñatin, Udalak Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin batera emanda, Maibi Dekorazioak eta Arkauz Optikak jaso dituzte lehenengo ziurtagiriak.

## Pentsiodunen elkarretaraterako autobusa jarri dute

Uztailearen 14an Bergaran egingo da Debagoien mailako pentsiodunen elkarretarateraketa, eta Oñatitik autobusa egongo da hara joateko. Lekua hartzeko, izena ohiko lekuetan eman daiteke: Arrano, Boga eta Olakua tabernetan eta Pake Leku elkarrean. Azken eguna uztailearen 12a da. Oñatiko elkarretarateraketa irailera arte eten dituzte.

## San Kristobal eguna ospatuko dute gidariak martitzenean

Gidarien zaindaria da San Kristobal eta urteroko ospakizuna prestatu du ermandadeak martitzenerako, uztaileak 10. 18:30ean, santutxoan elkartuko dira, Olabarrietan, eta ibilgailuak lorez apainduta parrokiara joango dira karabanan. Meza ostean, ibilgailuak bedeinkatuko ditu apaizak eta 21:00etan, afaria izango dute; 47k eman dute izena.



Iñigo Mugarza txirrindulari oñatiarra, Kantoikrit lasterketan, 2015ean. IMANOL SORIANO

## Badator herriko kaleak astintzen dituen proba

Uztailaren 14an, zapatua, jokatu dute Kantoikrit piñoi finkodun kriteriumaren zazpigarren edizioa, 22:00etan; berrikuntzetako bat da Gold Sprint proba ez dutela egingo; bestalde, aurten ere 'streaming' bidez egongo da ikusgai lasterketa

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Lehenengo bi edizioak Surf Fixed izenarekin egin zituzten, eta hirugarrenetik aurrera Kantoikrit izenpean. Aurten, beraz, zazpigarren edizioa izango du piñoi finkodun bizikleten lasterketak, hurrengo zapatuan jokatu dutenak.

Ibilbidean ez da aldaketarik egongo. "Hasieran, zirkuituak hainbat aldaketa eduki zituen, baina azken urteetan dagoeneko finkatuta dago. Gainera, parte-hartzaile desberdinei galdetu izan diegu, eta oso iritzi onak jaso izan ditugu. 1,6 kilometro ditu zirkuituak eta hamabost itzuli egin behar izaten dituzte. Hala, 24 kilometroko lasterketa osatzen dute txirrindulariek", adierazi du Xabi Barrenak, antolakuntzako kideetako batek.

60 parte-hartzaile izango dira, gehienez, lasterketan. "Izan ere, zirkuitua ez da hain luzea eta txirrindulariak pilatu egin daitezke. Gainera, gogorazi behar da lehenengoak txirrindulari

bat harrapatzen badu, zuzenean kanporatua izango dela", azaldu du Barrenak.

Urtean zehar zazpi laguneko lantaldea aritzen da antolaketa lanak egiten, baina egunean bertan jende gehiagoren beharra izaten dute. "Ez gaude kexatzeko moduan; izan ere, urtero jende asko aritzen da laguntzen, bidegurutzeak kudeatzen, zirkuitua prestatzen, *merchandising*-a saltzen, eta abar. Benetan eskertzekoa da eskaintzen dituzten laguntza, haiek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako Kantoikrit aurrera eramatea".

Iaz *streaming* bidez emititu zuten lasterketa, zuzenean, eta aurten ere errepikatuko dute hori. "Oñatin bertan jarritako

**24 KILOMETROKO  
LASTERKETA IZANGO  
DA: 1,6 KILOMETROKO  
ZIRKUITUARI  
HAMABOST ITZULI**

pantailei ez zieten kasu handirik egin herritarrek, baina etorri izan ezin zutenek asko eskertu ziguten. Beraz, aurten ere errepikatzea erabaki dugu". Hala, sare sozialen bitartez zabalduko dute webgunearen lotura.

Lasterketarako izen-ematea zabalik dago, *Sailkapenak.com* webgunean. "Normalean, azken lau egunetan ematen dute izena gehienek", dio Barrenak. Esan behar da Espainia mailako goi mailako txirrindulariek ere hartzen dutela parte lasterketan.

**Gold Spint** probarik ez

Hiru urtez egin izan dute Gold Sprint proba, gaztelekuan. Hala ere, aurten ez dute egingo. "Lehen urtean oso ondo joan zen; bigarrenean parte-hartzea asko jaitsi zen; eta hirugarrenean are gehiago jaitsi zen. Saiatu gara pentsatzen jendea nola erakarri, baina, egia esan, Kantoikritek berak nahiko lan ematen digu, eta nahiago dugu horretan zentratu".

## "Ibilbide egokia zen niretzat, eta irabaztera joan nintzen"

**AIMAR EROSTARBE** TXIRRINDULARIA

Euskadiko txapeldun berria da oñatiarra, kadete mailan

**E.A. OÑATI**

Zeberion (Bizkaia) jokatuak lasterketa irabazi zuen pasa den asteburuan Erostarbek. Bestalde, Espainiako Txapelketa jokatuko du asteburuan Ourense (Galizia). Gaur, egubakoitza, erlojupekoa eta domekan errepideko lasterketa.

**Duela bi aste Xabi Murgiondo, eta orain zu Euskadiko txapeldun.**

Hala da. Ez dakit kasualitatea den, baina polita da bi oñatiar Euskadiko txapeldun irtetea.

**Esperotako garaipena izan da?**

Egia esan, bai. Irabazteko helburuarekin joan nintzen. Ibilbidea oso egokia zen niretzat, eta aprobetxatu egin nuen. Beraz, oso pozik nago.

**Nolako ibilbidea zen?**

60 kilometroko lasterketa izan zen, une oro errepide estuan. Hiru kilometroko mendatetxo bat zeukan, bi aldiz igo beharrekoa, eta gero, ordeka.

**Nola bizi izan zenuen lasterketa?**

Lehenengo mendatetxoan, hamabosgarren kilometroan, erritmo gogorra jarri genuen lasterketan, eta aurrean zazpi txirrindulari inguru gelditu ginen. Bigarren igoeran batek ihes egin zuen; hala ere, ordekan harrapatu egin genuen, eta talde txiki batean iritsi ginen hamar bat txirrindulari. Egia esan, nahiko erraz irabazi nuen.

**Orain arte lortutako garaipenik garrantzitsuena da hau?**

Zalantzarik gabe. Bat ez da eguneroko Euskadiko txapeldun izaten. Gainera, aita eta arreba egon



Aimar Erostarbe. E.A.

ziren lasterketa ikusten, eta polita izan zen, hunkigarria.

**Denboraldia zer moduz doa?**

Hasieran, kosta egin zitzaidan erritmoa hartzea, baina, azkenean, nahiko ondo. Beste bi lasterketa irabazi ditut eta zortzi podium lortu. Gustura nago.

**Lesioek errespetatu egin zaituzte?**

Erdiko atzamarra apurtu nuen eroriko batean, eta lasterketa pare bat ezin izan ditut lehiatu. Baina bestela, ondo.

**Asteburu honetan, Ourense, Espainiako Txapelketa. Horra ere irabaztera zoaz?**

Espainian maila handia dago; disfrutatzea eta ikastera joango naiz. Aurrerago, agian, bai.

**Lehen urtea duzu kadete mailan. Nabaritu duzu aldaketarik?**

Bai, aldea handia da. Lasterketak luzeagoak eta gogorragoak dira; izan ere, azkarrago joaten zara lasterketan.

## Pirinioetara irteera egingo du mendi sailak 14an eta 15ean

Aloña Mendiko mendi sailak irteera antolatu du Picos del Infierno tontorrera. Uztailaren 14an irtengo dira Oñatitik eta 15ean itzuli, Picos del Infierno tontorra egin ostean. Bachimañako aterpetxean egingo dute lo.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek 70 euro eta langabe eta ikasleek 50 euro. FEDME txartela ez dau-

kanak 10 euro gehiago ordaindu beharko du aterpetxean. Derri-gorrezkoa da federatuta egotea eta nortasun agiria eraman beharko da aterpetxera.

Mendi sailak adierazi du kranpoiak eta pioleta eramatea derri-gorrezkoa dela -badituzte batzuk uzteko moduan-.

Uztailaren 10a da izena emateko azken eguna, *aloñamendi.mendi@gmail.com* helbidera idatzita. ES62 3035 0005 33 0050002973 kontu korrontean egin beharko da ordainketa.



Luis Maiztegi eta Javier Galarza, erakusketan. E.A.

# Filatelia erakusketa ireki du Zekak kultura etxean

Astelehena ezker dago ikusgai, uztailaren 15era arte, 18:00etatik 20:00etara; Javier Galarzaren, Fernando Garciaren, Luis Maiztegiren eta Mikel Untzilla legazpiarraren zigilu bildumak batzen ditu erakusketak; bakoitzak gai bat lantzen du

## Eneko Azurmendi OÑATI

Zenbait urtez erakusketarik egin gabe egon ostean, pasa den urtean berreskuratu zuten egitasmoa Zeka filatelia taldekoek, eta aurrean berriro zabalduta dute.

Lau pertsonaren artean osatu dute erakusketa, eta horietako bakoitzak gai baten inguruko bilduma landu du, taldeko kide Luis Maiztegik azaldu duenez: "Javier Galarzak perretxikoen gaineko bilduma prestatu du, Fernando Garciak hegaztien gainekoa, Mikel Untzilla gauza berezi bat egin du, konposizio artistikoak elkarren artean nahastuta, eta nik, azkenik, formak, siluetak eta gaur egungo inprimatze sistemak erabiliz egindako zigiluak egin ditut, hautsarekin, olio tantekin, haziekin, eta abarrekin. Izan ere, geroz eta forma desberdinagoak dituzten zigiluak daude, ohikoez gain".

Ehunka zigilu batzen ditu erakusketak. "45 panel daude, panel bakoitzean sei orri, eta orri bakoitzean hainbat zigilu".

Maiztegik azaldu du "geroz eta indar gutxiago" duen zaletasuna dela, "teknologia berrien ondorioz" zigiluak ez direla erabiltzen iritzi. Oñatin, 25 bat herritar daude filateliarekiko zaletasuna dutenak, baina zaletasun hori "nahiko partikularra" da, "etxekoa. Zigiluak banatzen ditugunean, gustura jasotzen dituzte, baina erakusketan ez dute parte hartzen. Beraz, lau bakarrik animatu gara".

Zaletasuna indarra galtzen joan arren, aurrerantzean erakusketa hau mantentzen saiatuko direla nabarmendu du Maiztegik, "Oñatiko edota bestelako gai interesgarriekin".

Aurten, adibidez, Eusko Ikaskuntzaren 100. urteurrenaren

## EUSKO IKASKUNTZAREN ETA ARANTZAZUKO AMA BIRJINAREN ZIGILUA ATERA DUTE AURTEN

zigilua eta postala atera dute, baita Arantzazuko Ama Birjinaren zigilu bat ere. Datorren astetik aurrera salgai egongo dira Turismo Bulegoan -ez daude erakusketan-.

## Datorren urtean, berriz

Behin martxa hartuta, datorren urtean ere erakusketa egingo dutela aitortu du Maiztegik: "Dagoeneko hasi gara gai posibleak pentsatzen".

## Milaka zigilu etxean

Etxea zigiluz beteta dauka Maiztegik, orotariko gaiak batzen dituzten bildumekin. "Britainia Handikoak, Alemaniakoak, Frantziakoak, Suitzakoak eta beste hainbat herrialdeetako bildumak ditut. Orain perretxikoenak, txantxikuenak edota txirindularitzakoak ere hasi naiz pilatzen, txukuntzen eta ordenatzen. Etxean ere geroz eta toki gutxiago dut horrelako bildumak gordetzeko, apal guztiak beteta ditut dagoeneko".



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

## Alkoholik ez!

Ze ondo! Eskerrak eman beharrea gaudu. Oñatiko tabernarietako kanpaina berri bat hasi dute. Alkoholera zerbitzatzearekin batera kontzientzia sozialaren bonbilla piztu zaiela nabaria da azkenaldian. Ulertzen dut arduratik jarri dituztela abian aurreko kanpainak ere: ZuritoTXOaren kanpaina: euro eta piku eta askotan basoaren herena beteta, inguruko herrietakoak beteagoak eta merkeagoak direnean. Baina beno, gure nerabeen osasunaren alde!

Izotz gehigarriaren kanpaina: kalimotxoetan gertatzen da hau, gehienbat. Edariari dagozkionak baino izotz bat gehiago botatzen diote -kasurik onenean-. Hemen ere, izotz gehiago eta alkohol gutxiago. Bai horixe! #HealthyFarra!

Eta oraingoan... prezio altuen kanpaina: dena da borobila. Edari gutxi, prezioak geroz eta gorago... laster soilik hiru trago hartzera helduko dira nerabeak. Pagak ez baitu gehiagorako emango.

Nerabeez ari gara, baina niri ere lotsa ematen dit poltsikotik hainbeste diru ateratzeak garagardo bat ordaintzeko. Ez da norbere kontzientzia baino kanpaina hoberik!

PD: testua ez da apologia bat, badaezpada.

## Ventos de Saudade taldearen fado kontzertua eguaztenean

Kalean egitarauaren baitako emanaldia izango da, San Lorenzo auzoko ermitaren aurrean, 19:00etan

## E.A. OÑATI

2005ean Soraluzen sortutako taldea da Ventos de Saudade, taldeko kide Domentx Uzinek azaldu duenez. "Salamanca nengoela, Galiziako lagun batek fado disko bat oparitu zidan, eta asko gustatu zitzaidan. Soraluze itzuli nintzenean, Arianeri -abeslaria- gomendatu nion, eta hari ere gustatu zitzaion. Hala, gitarra portugaldarra erosi nuen eta, pixkanaka, taldea osatuz joan gara".

Zaletasunagatik hasi ziren fadoa jotzen, baina, "nahi gabe",

kontzertuak lotzen hasi ziren. "Hasiera batean, ez zen asmoa kontzertuak eskaintzea", dio.

Orain, kontzertuak eskaintzeaz gain, fadoa ezagutarazten dihardute. "Jendeak interesa erakusten du, eta gu laguntzen saiatzen gara, ahal dugun heinean".

Bertsioak egiten dituzte; normalean, abesti ezagunenak.

## Gariren kontzertua, 26an

Kalean egitarauaren baitan Gari & Maldanbera taldea aste honetan emateko zen kontzertua hilaren 26ra atzeratu da.

## Hainbat ekintza egingo dituzte uztailean gaztetxean

Hilabetero moduan, uztailean ere hainbat ekintza antolatuta ditu Antixena gaztetxeak.

Uztailaren 14an, kobazuloetara irteera egingo dute -Urtao eta Urtao II-, 09:00etan abiatuta.

Hilaren 15ean, berriz, *Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera* filma proiektatuko dute gaztetxean bertan, 20:00etan, eta Mikel Ezkerrorrek, filmaren

egilearekin, solasaldia egingo dute ostean. Filmaren oinarria da Gorbeia mendian kokatutako Mairuelegorreta kobazuloan 1963a ezker egiten den Euskal Jaia.

Uztailaren 18an, *Azala erre* liburuaren gaineko solasaldia egingo dute, 18:45ean, gaztetxean, liburuaren egile Danele Sarriugarterekin.

Azkenik, musika teknikari ikastaroa egingo dute hil bukean, nahiz eta oraindik ez duten eguna zehaztu.



Asier Garitano, astelehenean, gaztetan astebururo joaten zen Angiozar auzoan. XABIER URZELAI

# "Limitera eroango ditugu jokalaririk"

**ASIER GARITANO REAL SOCIEDADEKO ENTRENATZAILEA**

**FUTBOLA** Bergarakoa hasi da Realarekin denboraldia prestatzen. Etxean egingo dute denboraldi aurrea, eta jokalaririk bihar irtengo dira lehenengoz Zubietako berdegunera

**Xabier Urzelai** BERGARA

Angiozarrera bidean, Asier Garitano (Bergara, 1969) adi doa irratia entzuten, esataririk Neymarren golarekin ez tarria urratzen duen bitartean –Brasilek 2-0 irabazi dio Mexikori–. Realeko entrenatzailea gertutik dabil jarraitzen Munduko Kopa, baina Angiozarren ez dago kobertura onik. Jokin Etxanizekin elkartzearekin batera ahaztu ditu futbol kontuak. Izan ere, alebinetan, bi horiek Gipuzkoako pilota txapelkun izan ziren, elizpeko horman pilotan –eta futboleant– ordu mordoa egin eta gero: "Gaztetan, oso gutxi behar genuen pozik ibiltzeko; egungo gazteek, ordea...".

**Realarekin fitxatu ondorengo zurrubiloa atzean utzita, eta oportunitate bueltan, Realazuzentzeko gogotsu?**

Bai. Aspalditik neukan garbi Realera etorri gura nuela. Leganesekin denboraldia amaituta, hiruzpalau aukera nituen, baina garbi neukan zein zen lehentasuna. Ilusio handia dut. Gainera, aurtengo oporraldia beste urte batzuetakoa baino laburragoa izan da, etxe aldatzekarekin lanpetuta ibili garelako. Hasteko gogoz nago.

**Aste barruan batu zarete staffteknikoa Zubietan. Pozik ondoan izango duzun lantaldearekin?**

Bai, pozik nago. Gutako bat oraindik Munduko Kopan dabil

[Barre], baina pozik nago. Realeko ordezkariarekin batu ginenean, argi geneukan zer zen gura genuena, eta Realekoak ere bat zetozen gure ideiekin. Postu bakoitzari izena jartzea geratzen zitzaigun.

**Izen horietako bat Beñat Labaien herrikidearena da.**

Halaxe da, bai. Madrildik ezagutzen dut Beñat, Real Madrildaldeen bost urte egin zituelako, besteak beste, Morientesen laguntzaile, eta, ondoren, Ingaltarrara joan zen. Eta orain, Realera ekartzeko aukera izan dugu; oso prestatuta dagoen gaztea da, talentuduna, eta horixe da garrantzitsuena. Badakit, gainera, pozik dagoela.

**Jokalariekin lanean hastea geratzen zaizue.**

Poliki-poliki hasiko gara, jokalaririk ezagutu behar ditut lehenengo, baita haiek ni ere...

**Halakoetan, nork egokitu behar du? Kanpotik datorren entrenatzaileak ala jokalariek euren?**

Entrenatzaileak daukan taldera moldatu beharra daukala esan ohi dut beti, baina jokalariek ere egin behar dute lan hori, talde moduan zein helburu dugu, zeintzuk diren gure erronkak, zein den gure lan egiteko modua... Hor jokalariek eskaera berrietara moldatzeko ahalegina egin behar dute, zalantza barik. **Dagoeneko diseinatu duzue denboraldi-aurrea, eta nobedadea da ez zaretela kanpora joango.**

Bai; beste urte batzuekin alderatuta aldaketa hori egin dugu, Zubietatik kanpora joateari ez geniolako inongo abantailarik ikusten. Horrela, taldeak ez du bidaiarik egin behar, eta Zubietan daukagu beharrezko guttia.

**Partidu bat, gainera, Bergaran jokatuko duzue. Berezia izango da.**

Bergararen urteurrena dela-eta partidua eskatu dute [uztailaren 28an izango da], eta Osasunaren kontra jokatuko dugu Agorrosinen. Duda barik, egun berezia izango da niretako.

**Taldea indartzeko fitxaketak egingo dituzue?**

Bai; taldea konpentsatzea falta zaigu, postu batzuetan larri gaitza eta oreka falta zaigu. Baina lasai gaude; izan ere, Munduko Txapelketarekin, asko atzeratuko da dena. Orain, 16-17 jokalaririk ditugu, eta pozik nago daukagun taldearekin. Ikusteko dago, baita ere, orain taldean ditugun jokalaririk guztiek jarraitu egingo duten edo ez.

**Zuk esana da, Leganesko entrenatzailea zenez, orokorrean realzaleok oso zorrotzak izaten garelataldearekin.**

Bueno, kanpotik, gauzak modu batera ikusten dira. Izan ere, nire ustez, Realak azken urteotan oso lan ona egin du. Akaso, urte batetik bestera gorabeherak izan dira, edo denboraldi berean oreka handiagoa falta izan zaie. Hori bilatzen ahaleginduko gara gu, betiere, azken urteotako lanari jarraipena emanda.

**Onenen artean egoteko moduko taldea dauka Realak?**

Puntu kopuruan, behintzat, aurreko horiek alde handirik izan ez dezatela, horixe da lortu behar

duguna. Hau da, diferentzia horiek txikitu egin behar ditugu. Urtero egoten dira bizpahiru talde puntu asko batzen dituztenak, besteongandik oso urrun geratzen direnak, baina ea sailkapenean ondoren egoten diren hiruzpalau talde horien artean egotetik dugun.

**Zuk esandako beste bat: udako hilabete hauetako lana egiten zaitzula gogorra, ondoren hamar hilabetez gozatu egiten duzula.**

[Barre] Bai, halaxe sentitzen dut. Sasoi honetan, fitxaketen gainean egon, klubeko jendea ezagutu, bestelako lanak egin... Nahikoa zeregin izaten dugu. Ondoren, liga hasten denean, nik gozatu egiten dut. Lehiaketan ibiltzen naiz ni gustura.

**Azken urteotan izan dituzun lorpenak ikusita, esaten diozu zeure buruari: "Asier, txarto ohitzen habil...".**

Ez, ez... egindakoari ez diot buelta handirik ematen; hortxe dago, beste barik. Aurretik datorren horretan jartzen dut indarra.

**Garaipen gosea duten jokalaririk fitxatzen ahalegindu zara beti. Realean, jokalariei entzun izan diegu Donostian ondo bizi direla. Akaso, norbait haserretu egingo da, baina Realeko jokalariei gose hori falta zaie?**

Ikusi egin behar... Egia da Donostia leku ona dela bizitzeko, jokalariek urte asko egiten dituztela klubean eta lasaitzearena gerta daitekeen zerbait dela. Uste dut azken hamabost urteetan hogeita bi entrenatzaile izan dituela Realak, eta datu esanguratsua da hori, zerbaiten seinale. Gure partetik, jokalaririk limitera eramango ditugu. Xabi Prietori entzun nion futboleant egindako urte batzuk zerbait irabaztearekin aldatuko litzukeela. Hamalau urtez egon da Realean eta ez du titulurik irabazteko aukerarik izan. Hausnartzeko moduko esaldia da.

**Munduko Txapelketan hainbat ordezkari izan ditu Realak. Zer lan egin dute?**

Odrizolarendako hor egote hutsa oso esperientzia baliagarria izan da. Baina uste dut entrenatzaile aldaketa ez zaiola ba-

**"ONENEN ARTEAN EGON? PUNTU KOPURUAN GERTU EGOTEN SAIATU BEHAR DUGU"**



Jokin Etxanizekin batera, grabaketaren une batean. J. BEREZIARTUA

## 'Barru' saioa, uztailaren 11n

Datorren eguaztenean, hilak 11, eskainiko du Goiena telebistak Asier Garitanorekin egindako *Barru* saioa. Gaztetako lagunen esanak, pilotan bikotekide izan zuen Jokin Etxanizekin elkarrizketa eta Zubietako lanegun bat erakutsiko ditu erreportajeak.

tere ondo etorri, ez du minutu bakar bat ere izan. Hala ere, Munduko Txapelketa batean egon izanak erakusten du maila goreneko jokalaria dela. Hector Moreno ondo ibili da; lehenengo bi partidua ondo jokatu zituen. Eta Januzajek ez du askorik jokatu, baina egin duenean erakutsi du zer-nolako jokalaria den.

### Odriozolaren etorkizunaren gainean etorri da albisterik aste barruan.

Normala da, talde guztietan gertatzen da hori. Hiru jokalaria izan ditugu Munduko Kopan, horrek esan gura du jokalaria onak direla eta taldeak egon daitezkeela euren klausulak ordaintzeko gertu. Futbolaren egunerokoa da.

### Reala hainbat jokalariri kontratua luzatzen dabil.

Bai, eta mezu garbi bat helarazi gura da horrekin. Asier Illa-

ramendi, Mikel Oiarzabal, Andoni Gorosabel, Lucas Sangali... Martin Merquelanz min hartuta egon da ia urte osoa eta ea zelan dagoen, Ander Guevara ere gertutik jarraituko dugu... Beti esaten dut jokalaria horiek gertu egon behar dutela salto emateko. Ea denboraldi-aurrean jokalaria gazte horiek daukatena erakusteko gai diren.

### Bergararrek bereziki jarraituko dute orain Real. Momentu gozoetan, zure gertukoek gustura entzungo dituzte entrenatzaileari eskainitako loreak. Baina momentu zailetan...

Bai, eta ez dakit nik gertukoak horretarako prestatuta dauden [Barre]. Aitarekin, esaterako, egin dut berba gai horretaz; izan ere, gu dagoeneko ohituta gaude, badakigu lanbide hau zelakoa den eta zertarako prest egon behar dugun. Baina, etxekoendako, ezberdina izango da.



Bi bergarar Zubietan, Asier Garitano eta Beñat Labaien. GOIENA

# Lau txanda eta chicane bat gutxiago Gatzagan

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, zapatua, ia berrogeita hamar pilotu elkartuko dira Gatzagako 21. Igoeran. Udanan moduan, oraingoan ere lau txanda jarriko dituzte antolatzaileek eta ohi baino goizago hasiko dute lasterketa, 14:00etan

## X.U GATZAGA

A+Gas taldeko ordezkariek antolatuta bihar egingo duten Gatzagako Auto Igoeran, pilotuek lau txanda izango dituzte lehia-tzeko: "Udanako Igoerako esperientzia positiboa izan zen, eta guk ere entrenamendu txanda bat egitearen aldeko erabakia hartu dugu", adierazi du Asier Amutxastegik.

Ia 50 pilotu batuko dira irteera puntuan, eta ez dute arratsaldea askorik luzatuko den beldurrik: "Lasterketa 14:00etan hasiko dugu, eta, lasterkari kopuru polita izango badugu ere, egia da beste urte batzuetan pilotu gehiago izan ditugula. Alde horretatik, Kantabriako Alisasko Igoerarekin bat egiten du gure lasterketak, eta pilotu gutxi batzuko hara joango dira. Baina Euskadiko Mendiko Txapelketan aurrealdeko postuegatik borrokan dabiltzanak gurean izango dira; horrenbestez, pozik gaude".



BMW autoa, iaz, Leintz Gatzagan. GOIENA

## Zarimutz, zona azkarra

Lasterketako beste nobedadeetako bat da Zarimutzeko chicaneak kendu egingo dutela: "Berez, segurtasuna berbatzeko neurri moduan jartzen dira chicaneak, pilotuek abiadura txikitu deza-

ten, baina aurreko edizio baten, hain justu, hor gertatu zen istripua, bihurtune azkar baten ondoren zetorrelako Zarimutzeko chicaneak, eta, neurri handian, pilotuek trazatua aldatu beharra zeukaten. Orain, berriz, tramu hori oso azkarra izango da".

## Bailarako pilotuak

Hauek dira lasterketan izango diren pilotu debagoiendarrak: Aitor Zabaleta (Lola BMW), Ruben Nogueiras (Silver Car S2), Xabi Fernandez (A+Gas), Ander Sarrao (BMW M3), Mikel Fernandez de Arroiabe (Fiat 131 Abarth), Gorka Idigoras (Renault Clio Sport), Aitor Frutos (Renault Clio Sport), Emilio Rodriguez (Renault Clio Sport), Joseba Frutos (BMW 325 E36), Maialen Iarza (Peugeot 205), Gorka Urrutia (BMW 318), Andoni Aperribai (Citron AX), Ander Lezeta (Peugeot 206 HDI), Joseba Arroiabe (Seat Ibiza GT TDI) eta Alex Calzon (Citroen VTS).

## FUTBOLA Txipreko AEK Larnacak fitxatu du Mikel Gonzalez

Mikel Gonzalezek taldez aldatzea erabaki du datorren denboraldira begira, eta, Zaragozan urtebete egin ostean, Txipreko AEK Larnaca taldeak fitxatu du. Andoni Iraola Athleticen jokalaria ohia da taldeko entrenatzailea, eta Espainiako Ligan jokatutako hainbat jokalaria batuko dira Txipreko talde horretan; oraingoz, hamar daude. Hain zuzen, Imanol Idiakezek talde horretan egindako lanari esker, Europa League txapelketa jokatuko du AEK Larnacak, eta, horrela, Arrasatekoak berriro ere European jokatzeko aukera izango du. Besteak beste, Realean taldekide izandako Toño Ramirez atezainarekin egingo du bat.

## ZIKLISMOA Hainbat debagoiendar Euskal Selektzioarekin

Oraingo asteburuan jokatuko dituzte, Ourense, Baños de Molgasen, Eskola Adineko Espainiako Txapelketak, eta Euskal Selektzioan Debagoieneko hainbat ziklista izango dira; lau, guztira.

Emakumezkoetan, errepideko kadete mailako kategorian, bi aretxabaletar izango dira lehian, Garazi Estebez eta Xubane Garai. Infantil mailako gizonetakoan, berriz, errepideko kategorian Gari Arexolaleiba aramaiorak jantziko du selektzioaren maillota eta kadete mailan, azken lasterketan aurrealdean dabilen Aloña Mendiko txirrindulari Haimar Erosarbe oñatiarra izango da.

## ZIKLISMOA Arrasaten egingo dute domekan kadete mailako proba

Dorletako Amak antolatuta, kadete mailako txirrindularitza lasterketa egingo dute domekan Arrasaten (16:00).

Denboraldiko azken laugarren proba izango da. Hain zuzen, Arrasateko lasterketak 65 kilometro izango ditu eta hasierako kilometroak nahiko lauak izango dira: Arrasateko Oñatira eta handik Eskoriatzara. Bigarren zatian, desnibel handiagoa gainditu beharko dute, Eskoriatzatik bueltan Olandixotik Aramaiora joango dira eta. Arrasatera etorrira, Kanpanzarko maldak izango dituzte zain; Sara jate-txean, Epelera jaitziko dira, eta Arrasateko Garibaiko zuzenean izango dute helmuga zain.

# 25 urtez, txalapartaren hotsak guztion gozagarri

1993an sortu zuten Ttakun taldea, garai hartan herrian zegoen txalapartarekiko interesari erantzuteko. Gaur egun ere taldea osasuntsu dago eta askotariko ekitaldiak ari dira egiten urteurrena ospatzeko; bihar, zapatua, Txalaparta Eguna egingo dute

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Herriko txalapartariak, Aretxabaletako, Aramaioko, Zumarragako eta Iruñeko taldeetakoak lagun dituztela, Txalaparta Eguneko soinu banda bihurtzeko asmoa dute. Ez da izango, baina, arituentzako eguna bakarrik, probatzeko aukera izango da; hori da hasieratik jaiaren helburuetako bat. “Hainbat eramango ditugu: bat, tradizionala, otzara gainean ohola dutenak; egur ezberdinekin egindako bi jarriko ditugu, bat afinatutakoa, eta bestea, barik; eta harrizkoren bat ere bai. Han egongo dira, hurbildu gura duenarentzako, eta gu, dakiguna erakusteko prest”, dio Ttakun taldeko kide Kike Dapenak.

## Lorentxo Atube gogoan

25. urteurrena ospatzeko, hitzaldiak eta erakusketa izan dira Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, atzo, eguna, bitartean. Lorentxo Altube zenak egindako ohol eta makilekin hasi ziren, eta “ospakizunetan haren testigantza izatea nahi zuten”; hori horrela, Eskoriatzako Ibarraundi museokoen laguntzarekin, hango erakusketako pieza batzuk ekarri dituzte: “Baditugu lokalean oraindik Lorentzok egindakoak; neurri ezohikoa dute; hortaz,



Kulturateko Jokin Zaitegi gelan astean egon den erakusketa. IKER OÑATE

soinu berezia ateratzen dute. Gure taldearen bilakaera oholen bitartez kontatu dugu: oinarria, Ibarraundiko 23 oholekin, eta, gaur egunera bitartekoa, egur eta material berriekin.

## Biharkoa, eta gehiago

Orain arte moduan, Santa Barbaratik eta Altamirako igogailutik egingo duten dianarekin hasiko da jaia. Goizean, saio libreak izango dira, eta han salduko dituzte Udalpe elkartearen egingo duten bazkarirako gertzen diren txartelak; arratsaldean,

emanaldi ibiltariak izango dira erdiguneko hainbat tokitan gel-dituta. “Iruñeko Hutsun hirukoteak bere azken proiektua eskainiko du, txalapartaren ibilbidea kontatzen duena”.

Urteurrenaren aitzakian bestelako asmo batzuk ere badituztela diote Ttakun-ekoek: “Trailean Mendiparta–mendian txalaparta saioak–; geroago, Auzopartak ere egin gura ditugu; ikastaro trinko bat bai... Jendea badago horiek aurrera eramateko; hortaz, zehazteke noiz, baina egingo ditugu”.

## "Solfeorik ez dakitenendako, oso erraza da txalapartaren idazkera"

SERGIO LAMUEDRA ZURARTEAN TXALAPARTA ELKARTEA

Eskarmentua du txalaparta kontuetan Donostiako Zurartean elkarteke Sergio Lamuedrak. *Txalapartaren idazkera eta adibideak* izeneko hitzaldia eskaini zuen eguaztenean, Kulturaten.

### Zelakoa da txalapartaren idazkera eta zertarako?

Nik neuk solfeoa badakit, baina txalapartariok gure idazkera propioa dugu. Solfeoa musika hizkuntza aberatsa den arren, mugatuta geratzen da hainbat pertsonaren arteko joerak plasmatzeko orduan. Musika ikasketarik ez duten ikasleak ditugu, eta horientzako, bada, aproposa da txalapartaren idazkera; erraz ulertzeko hizkuntza da, oso bisuala da. Arabiar kulturaren zuten perkusio instrumentuak idazteko modua oinarri hartuta, Juan Mari Beltranek moldatutako idazkera da hori.



IKER OÑATE

### Zelan sortzen duzue hainbat musikariren arteko elkarrizketa hori?

Bi modu daude: tradizionala edo inprobisazioan oinarrituta, eta, gaur egun, aurrez idatzi egiten dugu gero joko duguna. **Garaiak aldatzen doaz; erritmoak ere bai?** Hizkuntza garatzen doa joerekin batera. Oraindik ere gehien ezagutzen dena bi pertsonaren arteko joaldia da, baina badaude beste aldaera batzuk; garatzen jarraitzen dugu.

## Txalaparta Eguneko egitaraua

- **10:00** Diana.
- **11:30** Txalaparta saio libreak Herriko Plazan.
- **12:30** Irrintzilariak Herriko Plazan.
- **14:30** Herri bazkaria Udalpe elkartearen.
- **18:00** Txalaparta saioa: Aramaioko eta Arrasateko taldeen eskutik, Iturriotz tabernan.
- **18:30** Txalaparta saioa: Aretxabaletako eta Arrasateko taldeen eskutik, Arbolapetan.
- **19:00** Txalaparta saioa: Zumarragako eta Arrasateko taldeen eskutik, San Juan Bataiatzailea parrokiaren.
- **20:00** Iruñeko Hutsun txalaparta taldearen emanaldia, Herriko Plazan.

## ASIER GARITANO

GOIENA TELEBISTA, 'BARRU'

UZTAILAREN 11N, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ASIER GARITANO, REALEKO ENTRENATZAILEA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Pedro Luis Ormazabalen margolanak, Aroztegin

'Argazkigintzatik abstrakziara' erakusketa du eskarmentu handiko argazkilari eta margolariak uztailearen 15era bitartean jaioterrian ikusgai; formatu handiko margolanak eta Polaroid Transfer teknikarekin egindako askotariko lan bitxiak batu ditu bilduman

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Argazkilaria izan da ogibidez Pedro Luis Ormazabal eta aspalditik du margotzeko zaletasuna; bi diziplinak batuta sortu ditu uztailearen 15era bitartean Aroztegi aretoan ikusgai dituen lanak. Lehenengo aldiz erakutsi ditu pintura artelanak herrian, eta, horregatik, pozik eta harro dagoela dio: "Bergarak pintura kultura handia dauka eta margo eskola oso aberatsa ere bai. Horregatik, oso harro eta pozik nago nire lanak erakusteko aukera dudalako".

Hainbat erakundetan egin du bere obrekin lan Ormazabalek. Erreportajeen eta erretratuen espezializatua da, eta herrialde batzuetan zehar ibilitakoa ere bai: Europan, Afrikan eta Ipar eta Hego Amerikan.

**Askotariko teknikak eta irudiak** Aretoan sartu orduko, tamaina handian margotutako Jesukristoren irudia dago, Polaroid Transfer teknikarekin egindakoa. "AEBetan hasi nintzen formatu txikian teknika hori erabiltzen, eta, geroago, formatu handiko aparatua erosi nuen. Teknika hori azaltzeko, esan, polaroid plaka zabaltzen denean eta emulsioa bustita dagoenean, eskuz egindako paper batekin egiten



Pedro Luis Ormazabal margolaria, Aroztegi aretoan erakusketan. AMAIA TXINTXURRETA

## POLAROID TRANSFER TEKNIKADUNAK ETA FORMATU HANDIKOAK DITU AROZTEGIKO BILDUMAN IKUSGAI

dela. Paper berezia da eta testura ona dauka piktorikoki emulsioa paper horretara eramateko", dio Ormazabalek, eta zera gaineratu: "Paper horiek, gero, josi egin ditut, eta liburu formatuan ekarri ditut Arozte-

gira. Niretzako, garrantzitsua zen lan horiek erakustea, teknika hori ez delako sarritan erabiltzen eta oso lan prozesu luzea dutelako".

Teknika horrekin egindakoez gain, tamaina handiko margolanak ere batu ditu Bergarako bilduman: olioizkoak eta akrilikoak. "Denetarik daude: Euskal Herriko folkloreakin lotutakoak, Indiako irudiak dituztenak, AEBetakoak ere bai. Nahasketa hori aproposa da erakusteko munduan zehar ari zarenean barruan daramazuna".

## Frantzisko Asiskoaren biografia euskaraz idatzita, lehenengoz

Joseba Intxausti historialariak idatzi du eta Arantzazuko argitaletxearekin atera du 'Asisko Frantzisko' liburua

**A. A. OÑATI**

Frantziskotarren ordenaren sortzaile izan zen Frantzisko Asiskoaren gainean liburu asko idatzi izan dira; hala ere, Intxaustirena da euskaraz idatzitako lehenengoa. Arantzazun

ikasi zuen Intxaustik, geroztik ere harremana izan du Arantzazurekin, eta, Italian ere ibilitakoa denez, Asiskoren lurraldeak ondo ezagutzen dituela dio gaurko *Puntua* aldizkarian argitaratutako elkarrizketan.

Iñaki Beristain eta Joxe Mari Arregi frantziskotarrak izan ditu liburuan bidelagun Intxausti idazle, historialariak eta oherrezko euskaltzainak. "Biei zor diet esker ona. Ez da testu soila, lan handia egin dute irudiak bilatzen, ikusteko moduko liburu bat izan dadin lortzeraino. San Frantziskoren irudi eginagoa, helduagoa eta bere historikotasunean segurtasun handiagoa duena osatzen saiatu gara".

Arantzazuko dendan eta liburu dendetan eros daiteke.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko Uztaileko sariak!



#### PARTE HARTZEKO:

**Posta elektronikoa:** klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 89 00 07 zenbakia. Parte-hartzailearen aurreneko izena zozketari lotuta sartuko da. Zozketaren helburua da irabazlearen izena zozketatu eta irabazlearen izena zozketatu. Zozketaren emaitza zozketaren ondoren zozketatuko da. Zozketaren emaitza zozketaren ondoren zozketatuko da.


### Irabazi bi lagunendako otordua

#### GAZTAINUZKETA JATETXEARI ESKER

Beigatu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ klub@goiena.eus

📍 KLUBA Jostetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 89 00 07 zenbakia.



Bazkide zaituz: 2018 (Uztailetik aurrera): 31€  
Deitu: 943 25 05 05. klub@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 101. SALDU

**Deba.** Guztiz berritua dagoen apartamentua salgai edo alokagai. Gela bat, sukalde-jangela-egongela eta komuna ditu. Trastelekua prezioan barne. Iggogailua, berokuntza elektrikoa eta leiho bikoitzak dauzka. Bikote batendako egokia da. 30 metro koadro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659 41 90 54

#### 103. ERRENTAN EMAN

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan Grosen. Abuzturako. Lau pertsonarendako. Hondartzatik bost minutura. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609 47 86 91

#### Trastelekua Bergaran.

Trastelekua ematen da errentan Matxiategi 14an. Hilean 50 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607 69 49 93

#### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 72 52 93

#### Bergara edo Arrasate.

Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Bergara.** Etxe bila nabil Bergaran. 450 euro ordain ditzaket. 684 14 95 54

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

#### 105. ETXEA OSATU

**Donostia.** Logela ematen da errentan Amara auzoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 45 30 97

**Logela Arrasaten.** Arrasaten logela ematen da errentan. Interesatuok

deitu telefono zenbaki honetara: 659 05 53 65

### 3. LOKALAK

#### 303. ERRENTAN EMAN

### ARETXABALETA

Goiaran erretegia errentan ematen da. Erabat berriua. 65779 24 86

### ESKORIATZA

Mirentxu taberna errentan ematen da. 609 42 63 23 650 62 29 90

### 4. LANA

#### 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Abuztuaren 4tik irailaren 4ra, zaintzaille bat beharko genuke pertsona nagusi bat zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko. Ahal bada euskalduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 30 58 45 (Amalia)

#### 402. ESKAERA

**Arrasate.** Esperientzia handia duen neska umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeak lan egiteko gertu. Berehala hasteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 03 65 02 (Elena)

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen, garbiketan eta etxeak lan egiten jarduteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 83 32 44

**Arrasate.** Neska gertu orduka nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 93 19 94

**Arrasate.** Neska gertu zerbizari moduan lan egiteko. 667 88 69 79

**Arrasate.** Zaintza lanak egingo nituzke zapatuko 15:00etatik domekako 20:00etara bitartean. 632 48 38 91

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Pre-sazkoa da, oraingo etxea laga behar dut-eta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 33 23 07

**Debagoiena.** 28 urteko neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 96 92 05

**Debagoiena.** 40 urteko mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 97 71 66

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusi eta umeak zaintzen zein taberna edo elkartek garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 36 20 89

**Debagoiena.** Asteburuetan, orduka, nagusiak zaintzeko gertu. Garbiketan egin edota ospitalean gaixoak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 90 85 13

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu 15:00etatik aurrera nagusiak zaintzeko zein atariak eta etxeak garbitzeko. Orduka eta asteburuetan ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 86 83 69 (Glenda)

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketan aritzeko. 602 82 64 15

